ITXARO BORDA

Amorezko pena baño

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

La Voz de la Ribera egunkaria nolanahi tolesturik, kirol berriak zitzaizkion gehien bat gustatzen, egiaren errateko, eta mahaitik altxatzean, maleta beltza esku-ahurrean tinkatu zuen. Bihotzean halako zimiko bat nabaritu zuen, antsiaren gisako ausikia, amodioak eta maletak zeramaten misterioak eraginik. Bazen abantxu urtea Anaz amorostu zela Iruñeko San Ferminetan, eta bi egun doi Bardeetan zebilelarik maleta kausitu zuela; gainera intsumiso deklaratu zenez geroztik haiduru zegoen presondegira eramateko Polizia bila noiz jinen zitzaion. Egoera nahasiegia zen gizon gaztearen gogoaren lasai atxikitzeko.

Erriberako zeru mugagabea gorrailtzen zuen eguzki-sartzearen mirestea laket zitzaion hala ere. Barneko durduzadurak ahanzten zituen orduan. Han, itsasalde urrunean, ilunabar erromantikoagoak imagina zitzakeela bistakoa zen: hondar fina, uhinen fereka oinetan eta urak presaka desegiten zituen ametsak. Gau zohardietan ilargia eta eguzkia biltzen ziren lurrekoa zen du-

darik gabe. Apiril hastapen hartan Tuteran haizea mehetzen ari zen, egunaldiko bero ziztakorraren labankadak jabalduz. Uritzek unea berezia zela pentsatzen zuen. Laster, diamantearen zorroztasuneko gaua zatekeen eta mutiko zaintsua bere egitekoetara bermatzen saiatuko zen.

Hitzordua Tafallan zeukan hamaikak eta erditan, hango intsumiso lagun batekin. Bederatziak hurbil ziren jadanik eta tarrapataka egongela zeharkatu zuen. Ihardesgailua martxan jarri eta banpez etxeko atea hertsiz, karrikan aurkitu zen Uritz, autoaren ondoan. Kanpoko epeltasun samurrak kateastatu zuen mutikoa, antsia biderkatuz. Behakoak bazter guzietara botaz volvo zurian aterbetu zen, maleta, aitzineko ttottoan erreposki pausatuz. Lehen giltza-tornuan berean piztu zen Uritzen kotxea.

Autoan sartzean, beti bezala pentsamendua haiatua sentitzen zuen gazteak, batez ere irratizintan zebilen Mikel Laboaren K7a entzuten hasten zenean. Itsasaldeko kantariaren ahotsak Herriaren xoko minartuak eztiz gozatzen zituela eta, bideak, delako oinarrizko pentsatzeko ahala bizirik zatxikala zirudion. Halatan, hiriko plazara

heltzearekin, burrasoak ez zirela Uritzek hautatu intsumisioaren xedearekin oso ados oroitu zen. Esplikatzeko hitzak ugari izan ziren eta ez beti alegerazkoak. Debadio luzearen ondotik, ikusirik semea tematzen zitzaiola, amak erran zion:

– Egin ezazu sinesten duzunaren arabera!

Egiaz, zenbaitetan kartzelaren ideiak Uritz beldurtzen zuen: zelda murritzak, espazio eskasak, libertatearen bahiketa bekaitza; hots, kartzela. Baina orain, Euskal Herriko intsumiso ororen untzi berdinean lerratzen zen eta debaldezkoak ziren damuak.

Gogoeta frango zebilzkion kasko-zokoan dantzan, irrati-zintan ozenduak ziren Mikel Laboaren kitarra joko magikoak begiak zerualdera altxarazi zizkiolarik: Tutera Komarkako lur biluzi erreak, abeslariak goraipatzen zuen Baztan berdearen egarriz susmatu zituen:

ez nago ziur baña
egunsentiarekin izango zen
Baztango bazterrak nire logelan
hasi ziren sartzen eta sartzen
lekurik ezak nonbait

esnatu ninduen...

Ekialdeko mantra lanzinate aluzinatu baten gisa deiadarkatu «Baztan baitan Baztan izan nintzeeeen!» hitzek ur desiraz kilikatu zioten barnea, eta mentalki arras deboilatu baino lehen, ardura karrikan gidatzeari uztartu zion.

Betetzekoak zerrendatu zituen, hiriko garraioen ibilbidea noiztenka ebakitzen zuten suetan geldirik zegoen bitartean: Tafallan Jon zelakoari maleta 'entregatuko' zion, gero Iruñera abiatuko zen Anerekin gauaren higatzera eta, biharamunean, arratsaldeko seietan Tuteran beharra zen zazpi ikasle bihurriei Erriberako AEKren kondu, berak ikasi zuen eran, hitzak hautsiz, traukatuz, purruskatuz, puskatuz eta hondarrean bostehun urte hauetako Erriberako elesail elkortua isiltasunaren lorez apaintzeko.

Noski lan gaitza zen, baina deretxoko ixtudioek denbora librea uzten zioten AEKan irakasle izateko, Bardeetan paseatzen ez zenean behintzat. Ordutegi zehatza zeukan Uritzek, eta zenbaitetan bere autokritika egiterakoan iduritzen zitzaion haitxalili edo pinpilin-pausa baten mane-

ran alor batetik bestera ibiltzen zela, funtsik gabe.

Erromatarren Zubia trabeskatuz Tuteratik jalgitzea maite zuen. Hebrongo exiliobidetik Jerusalemeren kitatzea bezala zen: hiria, atzikusgailuan nagi, sapatsu, lizun eta xume hedatzen amiratu zuen. Tenore auher honetan Idir eta Bachir lagun iparrafrikarrak zeuzkan buruan: bi aste zuela arrestatuak izan ziren, paper eta eskubide bagerik esparrago eta alkatxofa zelaietan lanean zirelako akusaziopean. Egun parrasta bat pasatu zituzten komisaldegian eta, menturaz atzerritarren legea aplikatuz, botere zentralek kanporatu zituzketen. Haien berririk ez zuen aspaldian. Miseriaz miseria lerratzen zen mundua, eta Erromatarren Zubitik zerua sekula baino ubelagoa nabaritu zuen, zeru partekatua baina ez usu zoriontsua.

Zaldunen Ejeako juntara heldu zelarik, burdinan moldatu zezen erraldoiaren parera, Europara errekonkista katoliko-kapitalista garaiak, juduen zein arabeenganako erdiaro hondarreko izu larriko denborak itzuliak zirela komentatu zuen. Ordea, gaurko integrismo nazionalen bo-

rrokan ez zuen Nafarroak ‘katerik’ irabaziko, ez baitzen gehiago errege gosetu erorik Nafarroako errege-aulkian, gerlari eta armada mota guziei uko zegioten gazteak baino. Mikel Laboak «Zaude lasai» errepikatzen zuen bizkitartean autoko irrati-zintan.

Ahotsaren indar soilaz egoera ez zen aldatzen ahal, eta Uritz oroitu zen ostatuko egutera batean behin adituaz:

– Arabeen ondotik emazteak dira lur honetako kalamitateak!

Ez zekien zuzen non zegoen hori entzun zuelarik, baina odola burbuilaka hasi zitzaiola bai, eta gizon espantosekin aharratzeko enbeiak plegatu zuela: gaztigu gabeko erramerran arrazistak airatzen ziren arras naturalki prentsan, telebistako komiko estatalen ahoetarik, lan edo ikaskideen ezpainetarik eta guti aski zen orokorki Mouloud edo Malika bat atzemanik haren zanpatzeko edo ibaira aurdikitzeko tentazionetik ez urruntzeko. Justifikazioa, geriza modukoa, kolektiboa zatekeen.

Argedasko bide puska linealean zebilen orain Uritz, 180 kilometro oreneko markatzen ziola au-

toko abiadura orratzak. Ibilgailua prestua zuen, eta orozbat laster gidatzea laket zitzaion, partikulazki Argedasko zati leunaren segurtasunaren babesean. Plazerra gainditzen sentitzen zuen eta behialako ideia jorra zezakeen bukaeraraino: mendea ez zen erraza, baina noiz izan zen aisa bizitzea, irautea, oldartzea baztertuentzat? Halatan, ertaroan nola eta progrearen ondoriozko kalteak multiplikaturik, sozietateko parte ahulenek zuten eraikin industrial-militarraren bekaizkeria jasaten: kanpotarrek, emazteek, gazteek, haurrek eta desertu kulturaletan bakardadean, eske eta mutu ziharduten indigenek. Ezintasunak hazten zuen pobrezia zen aberastasunik barreiatuena.

Eki biribil gorria ilunago zen Korella aldetik.

Bapatean, Aneren aurpegi eztiak pentsamendua ebaki zion. Ane... Ane... Bazekien aurtengo San Ferminak ez zituztela iaz bezala elkarrekin jastatuko. Festaren oihartzunak kartzelako leihotik etorriko zitzaizkion eta, musu-balaken hurbiltasuna debekaturik, Ane barroteen artetik baizik ez zukeen hizketatzen ahalko. Anartean gozo zitzaion neskaren sahetsean luzadan etzaten zela

eta mihiaz haren bularrak laztantzen zituela itxuratzea. Amodio unea asmatzean, zangartean zakila malgortzen sentitu zuen eta, hasperen batez, oinaz autoaren abiadura berrehunetara helarazi zuen.

Maitatzea eta maitatua izatea eder zen, epe laburrerako izan arren, emaztearen ondoan iratzarri eta laster, desiraz hatsanga, eskuaz baztertu ile kixkurretan barna begitartea haren aluaren heze gazian kokatzea. Neskak gero zakila milikatzen zion. Eta husturik jaikitzen ziren. Aharrausika. Hurrengo hitzorduaren haiduru. Ostatuetan zebiltzanean, larrua jotzeko tiria bortitzegia zen: probokazione ttikiz osatua zen Ane lizunegiaren etxeko ohe lauzean bukatzen zen haien bidea.

Bihurgune antzeko bizkar batean, Argedas ortzaiz damutuan pindarka agertzen zelarik, abiadura moteldu zuen Uritzek. Baltierra eta Kaparroso bitarteko leku desolaturen batean geldi-tu beharko...

Izpirituaren haiatzeko «Bardenas Reales de Navarra» zeraman bide-seinalea irakurri zuen, eta handik piripita herdoilduaren aldamenean,

aspalditik ezagutzen zuen Migelin artzainaren forma traketsa itzalez itzal zila zezakeen. Burua makurtuz agurra luzatu zion: adiskide gisa hartzen zuen gizona. Agurrari ihardesteko Migelinek eskua inarrosi zuen. Uritz, mende desberdin batean sortu izan balitz, menturaz artzain zatekeen, hala gustatuko litzaioke bederen, baina edozein garaietan 'bortuko' bizia ez sekulan aiseta. Mutiko gaztea ordea ez zen bakardaderako jaioa, eta preseski gaztetasunaren iunfa eta odol-beroak zeramatzan zainetan: gauza handietarako munduratua zen; hots: abokatu ikasketak amaitzeko edo jargian zekusan maletaren Tafallako lagunari emateko eta Anerekin amodioaren hurrupatzeko. Libertaterako...

Hain zuzen, maletaren Bardeetan abandonatua kausitzea harrigarri zitzaion. Molde berekoa ikusi zuen Bill kaliforniar kidearen etxean: koinzidentzia zitekeen agian. Zena zela, ez zen heldu maletaren irekitzera eta halaz barnean zeukanaren mirazkatzeko ideia baztertu zuen, Jonen proposamena eskuratu artean. Jonek alabaina jukutria batez zabal zezakeen maleta misteriotsua. Ororen buru, segitu zuen pentsatzen, maleta Bi-

llena izaten ahal zen. Billen lanbidea arras bitxi zitzaion, tiro-poligonoaren inguruetan ardura harrapatzen baitzuen, bospasei laguntzaileekin bere paralitiko-aulkian barandan, fauna eta flora ikertzen zioen bezala.

Bideak duda izpirik ez zeukan. Argedas gibelaldeko harrizko Bardea-mihietan zilatu aterbeak ikusmenean zituen Uritzek.

– Basamortu hau! –xuxurlatu zuen abiadura oraino apalduz.

Eta gogoratu zen urte zenbait zuela burrasoekin etortzen zela hamaika kilometro luze horietan tusta gotorka landatuak ziren arbolen itzalpera, bero handiegietako igandeetan. Egun batez ordea, ohartu zen pinudi nasaiak moztu zituztela eta ipularrak errekai bilakatu zirela. Zenbaitek zioten, Bardeak manera berdinean, oixe denboretan, oihan oparoz estaliak zitezkeela, ezen gaur ez baitzen buztin, errauts, gatz eta landare usaintsu txipilik baizik.

Hargatik Bardeak udaberrian bizi ziren, eta Uritzek maite zituen negu idorraren ondotik xoko guzietarik jaukitzen zitzaizkien indar-oldar kemenak. Banpez berdetzen zen eremu desolatua,

koloreztatzen, txori kanta airosez oihartzuntzen, eta Bardeetako arrasberak zoragarriak zirela burutu zuen unean... Argedas aldetik suzko bola erraldoia ziztuan gainera zetorkiola ikusi zuen.

Judizio Jeneralaren ordua zena? Nola ezkon zitekeen Bardeen samurtasuna, garraren mendeku-mehatxuarekin?

Arresta zaplastatu zuen, papoaz bolanta joz. Bitrak purruskatzen entzun zituen. Segundu batez konturatu zen autoa zartatzen zihoakiola eta Uritzek ez zezakeen gerrikoa aska: metalez eta plastikoz eraiki ibilgailua presondegi bihurtu zitzaion. Bide ertzeko arroilara lerratu zen autoa. Handik laster, su-mihi gosetien krix-krax ozentsuek hautsi zuten isiltasuna. Zintan, teman nola, etengabe zarraikan Mikel Laboaren ahotsa urruna iduritu zitzaion: kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean...

Pentsamenduak zirauen. Mutikoak Aneren laztantzeko desia bortitza jasan zuen, baina mihise-arteko berotasun itxuratuak ez zion gorputzean hedatzen ari zen hotza den-mendrenik ere geldiarazten. Imaginatu zuen begiak zerura altxatzen zituela eta mentalki erran zuen:

– Eskerrak ortzea urdin eta izartsu dela!
Hotza zeukan hezurretan: herioa.

–2–

Pilar Faras beti oroituko zen Reina Sofia ospitaletik deitu zioten goiz argitsu hartaz. Orduan iduritu zitzaion bihotza zartatuko zitzaiola, burumuina nahaspilatuko eta hatsak ihes egingo ziola. Telefonoaren besagia belarrian eratxekirik aulkian jarri zen, erdiesten zuen berriaren ondorioak neurtzearren. Begi hegian zeuzkan malkoak.

Alta ospitaleko deitzaileak oso eztiki erraten zion, semearen bisitatzera etortzen ahal zirela, medikuek salbu zela ziotela, baina arazo bat bazegoela: mintzamena eta memoria biak arras ezabaturik zituela Uritzek. Uste zuten paralisiaturik egongo zela, Argedasko bidean zuela lau gau ukan zuen istripuarengatik. Deitzaileak erantsi zion, orain kaidera erosoak bazirela eta mutiko gazteak kasik normalki bizitzen jarraitzen ahalko zuela. Hori entzutearekin, Pilar negarrez hipaka lehertu zen eta haserrez pausatu zuen urrutizkinaren besagia.

Zur zizelkatuzko jargian egon zen unearen luzetasuna ez zezakeen muga andereak. Bapatean karrikako airearen jastatzera jausteko premia nabaritu zuen. Automata moldean etxea hertsirik, eskaileretan behera abiatu zen, eta krudel kausitu zuen karrikako apirileko argitasuna. Espaloian geratu zen, ezagun zuen hirian arrotz. Senarraren kontsultara zuzendu zituen urratsak azkenik.

Aireak Bardeetarik udaberriko usainak zekarzkien, idor, berde, horail, astun eta aldi berean ezti. Karrikan gora zebilen, egunerokotasunaz baino axolarik ez zuten beste etxekandereen taldeen artetik. Keiles pasealeku berrian zehar, zaharretxearen ertzetik, Plaza Berrira heldu zen, hango dorretan kabitzen ziren amiamoko edo zikoinak miresteko denborarik hartu gabe eta Gaztanbide etorbide xinaurritsuan aurkitu zen hondarrean. Jasonek han zeukan kontsulta.

Behagelan zanpez sartu zen Pilar, haiduru zirenen begitarte harrituak zenbatuz. Ezadostasun handia ageri zen medikuaren atean jo zuelarik. Haiduru zegoenetarik bat altxatu zen, irakurtzen

zuen aldizkari arrosa bortizki lurrera erortzen utziz:

– Aizu! Bakoitzak bere txanda hemen!

– Arrazoi duzu. Zertara dator honako hau! –gehitu zuen batek, baina Pilarren aurpegi xifritua ikusiz, sentitu zukeen egoera larrian zebilela anderea.

Medikuak bere emazteari atea ireki zionean, kexu-ele uhinak jabaldu ziren. Pilarrek urduritasuna epe laburrean komunikatu zion gizonari:

– Zer pasatzen zaizu?

– Uritz... Uritz da...

– Zer du Uritzek?

– Istripua, duela lau egun, Argedasko bidean. Reina Sofian dago. Paralisiaturik egongo dela erran didate. Zatoz laster. Goazen.

Medikuak kontsultan sarrarazi zuen emaztea. Pilarren zainen kordokaren arintzeko doia whisky eskaini zion. Lasaitasuna bildu zen istant bat lehenago destrenpuak harrotu gelan. Anartean Jasonek ospitalera telefonatu zuen xehetasun eske. Pilarrek ikusi zuen emeki-emeki Jasonen aurpegia hirotzen, histen, tristetzen. Hasperenka ari zen galdezka:

– Nola gertatu da?

– Ez dizut ezer salatzen ahal; badakizu, sekretu medikala da –ihardetsi zion hariaren puntatik behialako deitzaileak, eta Jasonen eskariak hutsean hausten ziren.

Lore mediterraneoz edertu zokoan dilingo zeukan paltoa hartu zuen Jasonek, emaztea sorbaldetarik loturik, kontsultarik atera ziren biak, elkar sostengatuz bezala. Pilarrek behatu zituen senarraren hitzak:

– Zatozte berantxago. Joan beharra daukagu. Barkatu...

– Baina? Baina? –errepikatu bezain etsiegien artetik xendra zilatuz karrikaratu ziren senaremazteak.

Ez zeramaten solasik, eleak debaldezkoak bailiran. Zeruan zirurikan zebiltzen zikoinak zituzten lekuko.

Jasonek autoa ziztuan gidatzen zuen eguerdi aldean, mugimendutsu zegoen hirian barna. Tuterako kaleak hertsiak ziren eta kasu ez eginez gero metalak erraz plegatzen ziren. Pilar beldurrez kiribiltzen ari zen sahetseko jargian, baina ez zion senarrari lasaiago ibiltzeko kontseilurik

ematen. Noiztenka Jasoni begiratzen zion eta amodioa lehentze urratu zuten haraintzineko gaua jin zitzaion gogora: Jason oso seguru zegoen, berak aldiz ez zekien zehazki zer zen larruaren jotzea. Atseginik gabe sentitu zuen Jasonen zakila malgotzen eta hazia azpi artean leunki bezain beroki isurtzen. Maitasun doi horren igalia izan zen Uritz duela hogei urte. Uritz, eduki zuten seme bakarra. Esperantzetan zegoela ezkondu zen Pilar arropa ilunetan.

Ospitaleko aparkalekuan ziren jadanik. Eritetxeko harrera-bulegora joan ziren lasterka eta han Uritz non zen otoiztu zuten. Goiz-parteko deitzailea izan zitekeenak ahots hilez erran zien:

– 205. gelan. Mediku nagusiari jakinaraziko diot hor zaretela.

– Zergatik ez gaituzue abisatu?

– Mintzatuko zara mediku nagusiarekin –ahozkaturik, erhiaz Uritzen gelara lehiatzeko eskailerak erakutsiz isildu zen harrera-bulegoko neska panpoxa. Jasonek amorrua zeukan bihotzean.

Logelako atea zabalik zen. Gorputz bat begimendu zuten biek, luzadan etzana, hodiz kartze-

latua, ttanttakakoa airean, gorputz biluzia, mihise arinaz estalirik. Mututasunak hormatu zizkien ezpainak hurbilagotik Uritzen aurpegi errea ikusi zutelarik: semea zen, seme bakarra, seme ausarta, ausartegia. Elkarri so geratu ziren Jason eta Pilar, sendimendu berdina partekatzen zutela: hobendunak ziren, zorionaz hobendun bezainbat zoritxarraz. Errudun izateak ospitaleko murruak hertsatzen zituen, mundua murrizten, hatsa zapaltzen.

Mediku nagusia zirudienak egoerari zihoakion agur motelaz helatu zituen burraso errautsiak:

– Istripua ukan du. Argedas parean. Abiadura dela kausa. Zuen semea da?

– Bai –ihardetsi zuen Jasonek–. Ez dugu ezer jakin, istripurik izan zenez ere ez. Normalean egunkarietan agertzen dira gisa horretako berriak. Noiz gertatu da?

– Apirilaren lauko gauean. Duela bost egun beraz.

– Zergatik erredura horiek?

– Autoa zartatu zaio –marmarikatu zuen medikuak; eta kanpora zihoala, Jasonek besoa inarrosi zion:

– Medikua naiz eta egia behar dut.

Zuriz jantzi gizona irri umila (umilegia ote?) marraztuz urrundu zen, betetzeko frango bazuela erantsiz. Bizkitartean Pilarrek Uritz zuen behamuga. Negarrez urtzear zegoen, mutikoaren betazalak urriki igitu zirelarik. Ohe ondora punpatu zen emaztea, jautziaz senarra deiadarkatuz:

– Ez gaitu ezagutzen.

– Ez, ez da gutaz oroitzen.

– Nola biziko gara?

– Agian unean unekoa da: memoria itzul daiteke, paralisiaturik baldin bada aldiz –perpausa moztu zuen Jasonek, emaztearen malkoei bereak juntatzeko.

Haurra argiratzean bezalako oinazea zela baimendu zuen Pilarrek eguerdi sapadun hartan jasaten zuena.

Handik hara, bizimoldea aldatu zuten Jason eta Pilarrek: ospitaleko pasaleku etertsuak ukan zituzten egunerokotasunaren aterbe. Uritzek aitzinamendu zenbait zegizkien baina hain asmae-

zinak hargatik, non aitetamak ez ziren berant baizik ohartzen, semea hobekitzen zihoakiela. Bi hilabeteren buruan hitz arruntak ahozka zitzazkeen. Burrasoak ez zitzaizkion arrotz eta hoditxo itsusi haiek mutikoaren gelatik kenduak izan ziren. Nekez baino nekezago, Uritz ttottotzen zen ohe hegian, zango ginarretsu zirenak flako eta inutil, amak ekartzen zizkion pasteltxoen milikatzeko.

Uritz ez zen gogoratzen zein plantaz zegoen ospitaleko gela hotzean, maiatz bukaerak kilikatzen zituen kanpoetan ibiltzeko partez. Ametsetan lurralde horailak jaukitzen zitzaizkion eta laster, laster, lasterka hatsanga zebilela itxuratzen zuen momentuan iratzartzen zen Uritz, antsiatsu, egarri, bakar. Lurralde horailak, loak hartu aurretik, ETBn programatu western ingurumenen antzekoak ziren: dena lehor, pista erlausdunez estaliak, haizetsu, txabola eroriak, malkarrak, larraitzak, zuhaitz makurtuak, saiak ortzean eta zaldunak lauhazka ortzaizean hurbiltzen. Eta usaina, idorrarena.

Anartean Jason Gonzalez de Mendavia, Uritzen auto istripuari buruzko xehetasunak biltzen

saiatu zen: komisarian zeukan eskolako lagunarekin hitz egin zuen autoaren herexak zein garageetan ikusgai ziren ikasteko. Bidenabar, aspaldiko lagunari eskatu zion istripua Guardia Zibilari seinalaturik izan zenez. Aste bat eman zion ihardespenaren biribiltzeko. Argedas parera joan zen belarrean suzko erredura hondarrik bazegoenez ikertzeko, eta goizero ospitaleko mediku nagusia trabatzen zuen bere aita desesperatu oharpen minberekin.

Medikuak leunki baztertzen zituen Jasonen karbak, ama nardatuak, baratze publikoetan, haur mukuzu aspergarriari lekiokeen gisa. Zergatik ez zituzten istripua agitu zen gauean berean ospitaletik deitu zen burua jaten zion kezka larria. Zer ziren misterio horiek oro? Nolaz ez zen nehon errekontruaren hatzik aurkitzen? Semearen memoria galtzeak ez zuen badezpada gertakariaren osatzea errazten. Etsitzear zegoelarik, Uritzen gelara joaten zen eta lanetik landako orenak hari beha iragaiten zituen, emazteak telefonoz afaltzera bultzatu arte.

Pilar ez zen etxetik ospitalera baino ibiltzen; jadanik laguntzat zeuzkan auzoko emakumeek

aspertzen zuten urrikari baitziren, laguntzaile izan ordez. Sohako bakoitzean inbalier baten ama zela sentiarazten zioten. Aurpegi arduratuegiak gohaingarri kausitzen zituen eta horregatik sukaldetik doidoia ateratzen zen. Isilik egoten zen, karrikara leihotik begira: oihu egin nahiko zukeen, ordea ezintasuna barnean indarrez zihoakion gehien bat. Kontsolamendu apurra atzeman zezakeen, kaleaz bestaldean altxatzen zen elizaren dorrean jostatzen ziren zikoinen intziri eta hegaldietan.

Jasonen aldetik ikerketak ez ziren hobeki aitzinatzen: komisariako langile zen eskolakide ohiak agertu zion paperetan nehon ez zela istripuaren berririk azaltzen, orain bi hilabeteren buruan aztarnarik ez zela gehiago nehon begimenduko ere, eta Uritzen sendatzearen helburuaren inguruan bermatzea zegokiela.

Ospitaleko mediku nagusiak erran zien Uritz agian oinez abia zitekeela goiz edo berant, memoria aldiz nekez berreskuratuko zuela. Esperantza zerbait airatzen zen bizkitartean.

Behin Jason Gonzalez de Mendavia, kontsultan mekanikoki lanean zegoenean, oroitu zen

Iparraldean zuen lehengusuak aipatu istorio batetaz. Jose, Errepublika suntsitu zuten garaian ihes joan zen mugaz haraindira eta bizia han orratu zuen: ezkondu zen eta haur saldo baten aita bilakatu zela jakin zuen Jasonek zuela guti, familiako biltzar batean. Josek kondatu zion noizbait zaldiak galdu zituela Errozate gain haietan eta bilatzen etsiturik norbait deitu zuela, detektibe rural bat, eta hark zaldi errebelatuak harrapatu zizkiola, ondoko herriko laborari baten bordan. Jan eta lo trukean ari izan zen detektibe arraro hura, eta saritzat maiz bi gasna zeramazkien.

Kusiarekin harremanetan jarri behar zuela erabaki zuen kontsultatik ateratzean. Etxera orduko Joseren zenbakia marraztu zuen telefonoan. Emaztea so geratu zitzaion harriturik. Seipazazpietan jotzera utzi zuen txirrina eta etsitu baino lehen, besagia pausatu aitzin Pilarrenganat zuzendu zen:

– Jakin gabe ezin dugu iraun...

– Nori telefonatzen zenion?

– Joseri. Hark jendea ezagutzen du eta gogotik lagunduko gaitu –ahozkatu zuen, eta istant

baten buruan Joseren ahots lodia ukan linearen puntan:

– Baaai... Nor da?

–3–

Karrikaren erditik nindabilan, burua zangoekin uztartu nahirik, trinkili-trankala, alkohol urrinaren zama zeramaten jendeen artetik, nora jo ez jakinez, agerrinde mistiko moldean Joana jaukitu zitzaidalarik. Begiak torratu nituen, debaldetan: Joana Garalda hor zegoen nere aitzinean, sekulan baino ederrago, sekulan baino desiragarriago. Harengana jautzi egin nahiko nuen, haren besoetan arrunt gerizatu, mehatxuka zetorren ingurumenetik ihes. Oinak, euriak busti Udaletxe Plazaren zolan eratxekirik nabaritu nituen eta izugarrikeria baten maneran, ikusi nuen, jendalde koloreztatuak garraiaturik, Joana sahetsetik iragaiten, nitaz ohartu gaberik.

Arkaitzek gerritik lotzen ninduen samurkiro eta indarrez beso kuttunetik askatuz, Joanaren gibeletik abiatu nintzen deika:

– Joana! Joana!

Ez zuen kasurik eman eta deiadarra, bihotza pilpilka ari zitzaidala, errepikatu nuen:

– Joana! Joana!

Zaraitzuarra zenez dudatzen hasirik nintzen jadanik, aspaldiko maitearen begiek nereak gurutzatu zituztelarik. Urrezko zimizta zerion aurpegitik:

– Amaia!

Bapatean, mundua isildu zen, bizidunak bekandu eta karrika hustu: bata besteratu ginen, haraintzinetik galdu amore-ezpalak bildu nahian bezala. Urteak pasatu arren ez zirudien gauza gehiegi kanbiatu zirenik:

– Ze ari zra Amaia?

– Bestalier...

– Alabadre.

Joana Garalda eztiaren euskararen musika kasik ahantziak munduari, bizidunei eta karrikari hatsa eman zion. Ikaran nindagoen, edanaren gainera, Joanak belarrira ele xeheak arraiki xuxurlatu zizkidalarik:

– Maite zaitud zu!

– Eta Haritz?

– Fan zun. Nihau utzi nizu Itzaltzun.

– Zer bekatua! –erantsi nuen soilik, pena handia irakurtzearekin behiala zimiztek iraungi begietan.

Zaldikora beharra zela agertu zidan, istanteko ilundura gordetzen saiatuz:

– Bear zut norbait kusi kan. Ta zu nola zra?

– Ontsa. Geroago hobekiago menturaz.

– Zihau zra?

– Bai, Zeldak ez zizun jin gei...

– Zeldak?

– Zu harrapatu arteko neska-laguna.

Irriz urratu zen Joana. Oraingoan zoriona antzeman nezakeen zaraitzuarraren ibilmoldean. Zelda noiz ezagutu nuen kontatu nion, nola konpontzen ginen biak eta zein manera herrestan abandonatu nuen Mauleko gure etxean, kexu eta hein bat jeloskor. Zeldak sukaldeko mahaiaren izkinan dolorez plegaturik amodioa, fideltasuna eta leialtasuna jarri zituen baskula herdoilduan, San Ferminetara zuzen ez nindedin. Ondorioz, baina ez nion argiki azaldu Joanari, trahitze sentimendu larriak irauli kontzientzia uholdetsuarekin utzi nuen Zelda, malerus bat bederen egiten nuelako iduripenarekin. Xifriturik nintzen engoitik.

Jarautako bihotz-uhinak zeharkatzen genituen hain hurbiletik non taupada bakoitzak lurra

inarrosten zuela asma genezakeen. Joanak eskua hartu zidan eta bidea zilatzen zuen, Ushuaia eskualdeetako galernetan untzia kraska beldurrez kapitain ausartak gida lezakeen bezain trebeki. Ekaitzetan neskaren ahurra fermuago sentitzen nuen eta ordutik hara banekien ez nintzela itoko. Segurtasuna laket zitzaidan.

Joanak ahapez agertu zidan Haritzekilako egunerokotasuna dorpea izan zela, ez zitzaiola erraz filologo batekilan bizitzea eta ez zuela gehiago sekulan Zaraitzuko euskalkia erabiltzen, Haritzen gustuko euskalki oso baino, Joanak mintzatzen eta idazten zuen eran behintzat, pidgin moduko zerbait zela. Ulertu nuen, amodioak eraginik, gau-eskolan ikasi batu apurraren plazaratzeko tenorea jinik nuela:

– Gogorra zen ezta?

– Super-gogorra zen maitea, ez zurekin bezala!

– Ba, enekin aise zinuen, nahi zinuena eginez –ihardetsi nion zoriontsu, oroituz neskaren kapritxo frango baimentzen nituela Zuberoan pasatu genuen aste hartan. Funtsean, salbu San Ferminetarako, Zeldak ere sudurretik eramaten nin-

duen: buztin malgoa nintzen maitemintzeko unean.

Batuaren pratikatzen segitu nuen:

– Neure ‘emakume insektizida’!

– Bestea! Zaldikon gara. Sartzen?

– Prefosta –soila ahozkatu nuen eta han, kontuarrean begiak luzaturik guri so Arkaitzen trenpua miresteko denbora ukan nukeen.

Joanak musua pausatu zidan lepo-gibelean. Arkaitzi niñikak betziloetarik gorri atera zitzaizkion. Mutikoaren haserrea susmatu nuen. Hurbildu zitzaigun:

– Zu orduan! Jolin! Jakin izan banu!

– Beee... –ausartu nintzen– es ke harrapatu dut maite nuena...

Isilik geratu zen Arkaitz, agian larunbat gau hau bakarrik hurranduko zuela pentsatzen. Kexua jabaldu zitzaion eta kanpora jalgi zen, agurrik egin gabe. Egiaren errateko, arrats guzian inguru-minguru ibili zitzaidan Arkaitz izenekoa; trago bat hemen, trago bat han eta azkena hor, sinets ez nitzazkeenak marmarikatzen eta edonon gorputzen berotasuna bilatzen. Gizonek, emazteek ere, aitortzea zilegi zitzaidan, besta-

ren estakurua baliatzen zuten oherako bidearen lainotzeko. Harreman lasterrentzat egoerarik egokienak ziren festak.

Joana, ezagutzen zuen norbaitekin elestan jarraitzen zuelarik, Parisen ohatua zen herriko batekin solasean ihardun nuen. Patriciak zoko lasaiago batera tiratu ninduen, hitza biltzearren:

– Beti Parisen?

– Bai, eta ongi gainera. Ez dut itzultzeko asmorik ere: lan interesgarria daukat eta senargaia situazione onarekin. Badakizu sanskritoaren ikasteari lotua naizela?

– Zu? A boon?

Harriturik nintzen: Patriciak ez zuen sekulan indar mikorik egin etxeko hizkuntzaren berreskuratzeko, eta agertzen zidan deblauki, astean sei oren hartzen zituela oinarrizko Zen filosofiaren barnatzeko erabiliko zuen sanskritoaren beretzeko. Azalpenetan samur ari zen Patricia, eta gizongaiak amoltsuki gerizatzen zuen hitzemana zitzaion anderea. Mihia lizunki iragaiten zuen ezpainetan mintzo zelarik, eta arras indigena sentitzen nintzen, lokatz hezea eskalanpoinetan za-

matsu, deusetara helduaren tristurak udalaturik. Galdetu nion:

– Noizbait halarik ere jinen zira bai araiz?

– Ba pentsa! Claude eta biok ahal baldin badugu, Midi hortan mas bat erosiko dugu eta herri eurizu honetarik urrun biziko gira.

Claude zelakoak ahurraz sabelpea balakatu zion algara gurintsua ozenaraziz. Zaldiko ostatua iratzar arazi zuen irriak. Jendeak jautzika hasi ziren, karkara burrunbatsuen artetik, intsumisioa deiadarkatzen zutela. Tabernako egurrezko zola mugitzen zen eta aire amiñi bat eskas nuela pentsaturik, aterantz abiatu nintzen. Izkina ilunean, Claude eta Patriciak ahoak karrea ahala musu ematen zioten elkarri eta noizean behin, zaratagatik, hortzen joaldiak entzun nitzakeen.

Kanpoko espaloian jarri nintzen. Zelda neukan gogoan. Zaldikotik zetozen soinuek bizi nintzen herrialdera eraman ninduten. Hasperen luzea askatu nuen eta Xiberoko ikastolek antolatu Su Ta Garren kontzertuan nola juntatu ginen oroitu nintzen. Tabernen mahai lerros eta alkoholez bustiak bezalakorik ez zen Hegoaldean

dioten eran ligatzeko, edo hemengo moldean xinpleki dragatzeko. Zelda, zerbitzariak lau garagardo haguntsu ekar ziezazkion beha zegoen, «irabazi arte» hizkiek mailukatu ametsetan galdurik. Ni ere haiduru nintzen. Elea harilkatu genuen eta laster ohartu ginen biak, «Ezekielen Profeziatik» «Denboraren Orratzak' artinoko garaiak bukatzear zirela eta mende berriei egokitzeko betarik ez geneukala. Gainera, 1993ko urriaren lehenaz geroztik gas huxtukariak Zuberoa zeharkatzen zuen.

Alaitasunak zeraman Zelda, Amikuzeko eta Pettarreko aldaketa politikoak aipatu zituenean: Cher Franzi kontseilu orokorreko ttottoa hamasei botzez urrundu zitzaion eta Mauleko auzapezak ez zuen alegeratzeko aitzakiarik ukan. Cher Franzen kasuan «ontsa mehexiturik» zuela eransten genuen, haraintzinak eraginik 1984ko Seaskaren ekintza burura jiten zitzaigula: orduan Arrueko Joantto gazteluko baratzeetan pik-nikatzen izan ginen jende saldoa haurrekilan. Urte heroikoak ziren haiek eta bazen bazterretan borrokaren halako euforia bat: edozein arrazoinentzat manifestatzera joaten ginen. Orain ere na-

baritzen ahal zen euforia haren parte bat, partikulazki beste lau garagardo eskatzeko unean.

Ikastola, Herri Eskola! deia Baionako karrikatxoetan nolako indarraz oihartzuntzen zen neukan golkoan. Joana, hatsanturik, neure sahetsean galdezka aditu nuelarik:

– Beldurtu naiz! Ez nekien non zinen.

– Hemen nintzen. Ez nuen hitz egiteko gutiziarik.

– Zeldaz mindurik?

– Eta bai –erantzun nion hatsa epel, oskiak segazahiz estalirik eta alkoholez urrinduak zeuzkan zaraitzuarrari.

Nahasten zitzaizkidan iragana, oraina eta balizko geroa burumuina oinazez plegarazi arte. Joanaren eleak gozo atzematen nituen:

– Itoizko koordinakundeko kide batekin aritu naiz. Urtegiaren aurkako gudua ez da erraza naski.

– Ai Itoiz! –suspiratu nuen apalki kantan hasi baino lehen:

Eremuko dunen atzetik dabil
Zulo urdin guziak miatu ezinik

Eta euri zitalari esker
Bizi da...

«Ezekielen Profezia» neukan ikusmiran, nostalgiaz eta egunerokotasun partekatuz hantu aintzira asmatu gisa, eztitasunak bihikatzen zituen orduen zenbatzaile. Amoltsuki begiratu zidan Joanak:

– Ez gara Itoiz beraz mintzo!

– Eiki... –eta gorputz akitu bezain horditua neskaren sorbalda eskainian pausatu nuen, bake eske, ingurumena iparretik hegora purruskatzen ez baligute bezala, gasa eta ura madarikazione ez bailiran, Altzako haltzak zutik oraino eta deus suntsigarririk ez gertatzen.

Zaldikon begimendu nuena berriz etorri zen Joanaren parera:

– Bihar arratsaldeko seietan manifa!

– Bagaituzue.

– Etorri zu ere –erran zidan gizon bizardunak.

Eta arraileriant nintzenez eskaera zozoa egin nuen:

– Itoizen alde?

– Ez; aurka, Amaia! –zuzendu zidan arrunt Joanak, nere axolagabekeria gaitzetsiz.

Irri gutizia neukan, neretzat Itoizko bizitzaileen alde eta urtegiaren promotoreen aurka plantatzen zelako karrika ibilaldi sinestezina.

Entzierroaren tenorearen haiduru ziren ehun milaka jendeen artetik iragan ginen, egunkariak erosteko xedeak azaltzen, gaitero eta txaranga unatuen erditik, argazkiak hartzen zituzten amerikar eta australiarrak trabatu gabe, lurrean lotan ziren gizon eta emazteen gorputz errendituen gainetik, karrikak garbitzen hasiak ziren Iruñeko langileen ur-zirrizta bortitzetarik aldenduz, agurrak banatzen zizkigutenei nagiki ihardetsiz, baratxuriak kordelan lepondoan eta txapel mexikano erraldoiak kaskoan zebiltzen nonbaiteko nekazarien urratsetarik, presarik gabe, amoros, eskutik eskura. Uxueko bertsolaria gurutzatu genuen, kopla bakartia ezpainetan, argitasun urdinak zeru iluna urratzen zuen orduan.

Zortziak ziren. Eguna aharrausika esnatu zen. Herriko Etxearen aitzinean ginauden gu ere tiroa entzun genuelarik, isiltasun zaindua eta zezenen lauazka hots ozena: entzierroa zen, exilio

garaietan Baionako kamarada batek bideoetan grabatzen zidana goizero, ikus nezan zer huts egiten nuen Txinako auzunean kokatuz geroztik. ETBko itxurak irenstean aldiro, zintzurrean korapiloa nabaritzen nuen eta errealitatean entzierroa hunkigarri zitzaidan. Gure herria zen karriketan lasterka, herria eta kemena. Geroxeago berriz eguraldi zilarrak eskaintzen zuen mututasuna hiriaren errege bihurtzen zen.

Iruñeko langileak kihillak ilkitzen ari ziren eta jendeak gosaltzeko barreiatzen. Joana, entzierroaren miraguneetarik urrundua zela ohartu nintzen, Egunkariaren eta Eginen irakurtzeko. Bezperako zezen-lasterrari zihoazkien xehetasunetarik airarazi nion ardura:

– Hila bezala naiz. Zerbait jango nuke.

– Ongi da, goazen Bilbora...

– Bilbora? Orain?

– Bilbo ostatura haurra, ostatura! –oihukatu zuen neskak.

Eta haren urratsetarik Antsoleagan gora mahaiak jadanik kanpoan apailatuak ziren plazatxorantz abiatu nintzen. Ohizko arrautza eta txingar beroak ahoratzen ahal ziren, kafeak hurrupatzen

eta zigarretak biltzen. Aulkia harrapaturik, Joanaren parean plantatu nintzen. Amorosen kezka luzatu nion ahapeka:

– Lo egiteko lekurik baduzu?

– Bai, Gaztelu Enparantzan, jargi publiko xuriño bat...

Bihar zelakoa, egun bilakatua zen engoitik. Etzia ere, damurik gabe, orainaldi etengabean urtu zitekeen. Hogeita hamar urte konplitu ondoko San Ferminak ehun metro karratuetan zeuden hiru ostatutan harat-honataka higatzen genituela azaldu nion Joanari, denboraren murrizketa eta ezpazioaren hertsitzea ohargarri kausituz. Hizketan segitu nuen:

– Uztailaren zazpiak, Euskal Herria osatzen duten hiru komunitateetako familiak ebakitzen ditu. Fenomeno migratorio sozial arraroa da Joana, pixkat Serengeti ordokietako gnou abereek urtero egiten dutenaren antzekoa. Hori dena, San Kristobal mendi lerroen gibeletik iraizten duen goizeko seietako argi-zirrinta magikoaren miresteko...

– Hauxe dun hauxe gure destinu petrala! –kantatu zuen Joanak airoski eta zutitu zen–. Arren bihotza, goazen hemendik!

Nafarroaren bihotzak ginena?

–4–

Mundua txikia zen. Ilusiorik gabekoa. Hirutan hogei metro karratu aski genituen bizirauteko, maitatzeko, gorrotatzeko, lanegiteko edo aspaldiko lagun-minarekin gozatzeko. Amodiozko ohantze galantak ziren Gaztelu Plazako jargi publiko hertsiak eta beso lauen eremua handia bilakatzen bide zen. Lotarik pentsamenduka nindabilala ohartu nintzen, Joanaren hatsa, haize hego epel itxuratuz. Zaraitzuarra aldiz aharrausi ozenka iratzartu zen, goiz egosiari itseska. Mundu txikiaren ametsa azaldu nion:

– Zer ari zara zu mundu txipi ixtorio?

– Ametsa nuen halakoa...

– Utzi debaldezko gauza horiek oro!

Beti bezala, umore gaitzean jeikitzen zen Joana. Interes guti zeukan txikitasun aipatuan, eta kafea arrunt ‘behar’ zuela jakinarazi zidan, ukaraian ordularia hor zeukala segurtatzen zen bitartean.

– Goazeman Txokora.

– Txokolat-esnearen hurrupatzera!

– Justo neska–erran zuenerako, Gaztelu Plazan zehar abiatuak ginen, gure eskale-erromesherresta ttottogiak dolurik gabe abandonatuz.

– Egunkariak ekar itzazu!

– Baietz arren –ihardetsi nion Joana Garalda anderearen manuari, eta terrentan, burua halako kotoizko ingurumen lainotsuan galdurik, Joanaren urratsak segitu nituen.

Txoko ostatuan gure gisako herbailak baziren. Guziek kafe azkarraren ‘beharra’ zeukaten, eta bitxiki, bakarrek oraino, ahots erlastuz, jotaño baten emateko kemena aurkitzen zuten isiltasun errendituan.

Zerbitzaria gutaratu zen.

– Bi kafetxo mesedez! –eskatu zuen Joanak harroki.

Zerbitzariak elkorrarena egin zuen, ez zuela tutik ere entelegatzen ulertaraziz begi niñikak biribilduz. Joanak espantuak sartu zituen, eta ahosabaian gorderik zatxikan gaztelerazko lau perla atera zituen:

– Dos kafezikos por fabor!

Aurpegi zabaleko gizona, airean nola lasterka joan zen kontuar gibelera, –gerrila linguistikoan

garaile sentimenduarekin ote?–, eta zruu-zruu kafe egiteko makina martxan jarri zuen «Mi amoor, amooorcico miooo» xuxurlatzen zuen kantariaren zintari bultzada bat eskainiz. Aski maite nituen San Fermin egunetako goiz zurbailak eta konturatu nintzen edozein soinu xoxolori oso harkor nintzela, ezpainetan, ostatuan aditzen nituen «Mi amooor...» hitzak lohordiaren atarian zegoen Joanari murmuratzeko gutizia errea neukalako.

Joana, agian haiduru, so geratu zitzaidan. Egunkariaren gainaldeko izkinaren plegatzeari ekin zion zaintsu:

– Zeldaz mintza zakizkit.

– Zeldaz?

– Bai...

Ez nekien nondik has. Maitasuna zauri bihurtzen zidan Joanak eta zerbitzariak kafeak ekarri zituenean, goilara mekanikoki isuri ilunean esku batez itzulikatuz eta besteaz sukrea purruskan hedatuz, azalbide nekeari lotu nintzaion:

– Zelda ederra da, ile luze beltzak ditu, orotara lehiatzen den behakoa, mendiak uxkail litzaz-

keen irri bat, eta maite dut, erran nahi dut maite ere nauela.

– Zergatik ez da zurekin etorri Iruñera?

– Lanean ari da aste honetan. Ez zuen nahi nihaur jin nindadin, zer edo zeren beldurra zeukan, eta ni bihotza urraturik tematu naiz. Hobendun sentitzen naiz, hura gabe zurekin izateaz.

– Pasatuko zaizu.

– Eiki –soila ahozkatu nuen, Joanak eztiki begistatzen ninduen artean.

Barne-barne neraman nahaspiloa aditzen zuela iduritu zitzaidan. Mahaian nagiki lerratzen zitzaidan eskua balakatu zidan. Beste behin mundu txikiaren ingurutxo dantzatik kanpo geratu nintzen.

Kontuar sahetseko horman tilingotu telefonoa deika entzun genuen, errealitate latzaren seinalea bailitzan. Urrutizkinaren zintzarrada zizkolatsua hamar bat aldiz jasan genukeen. Nehor ez zitzaion hurbiltzen bake apurra ematearren. Hamahiru. Hamabost. Azkenean, zerbitzariak, nardaturik, baxeren xahatzea abandonatuz, mekanika nazkagarria hartu zuen. Gizonak gero ostatuko tepoa inarrosi zuen:

– Alguien se llama aqui Amaia Ezpeldoi?

Joanari behatu nion. Izozturik. Nork zekien hemendik nindabilela? Zutitzear nindagoen, durduzaturik. Eta kaideratik bermatu nintzenean, zerbitzariak gaixtoki neurtu ninduen, bere denboraren zatirik baliosena ebasten ari banintzaio bezala. Besagia beharriratu nuen.

– Bai?

– Amaia Ezpeldoi?

– Prefosta! Nola dakizu Txokon naizela?

– Axolarik ez du, behar zaitut mintzatu.

– Nor zara?

– Ziudadelako harresietan. Ordu batean. Laster arte!

Zenbait segunduren buruan linea moztu zen, ttu-ttu-ttu saminari lekua zilegituz. Telefonoko gizona euskara ikasi berrian elestatu zitzaidan, hitzak oro ontsa apailaturik, perpaus guziak uholde bakarrean ilkiarazteko maneran. Ikarak katestatu ninduen. Deiaren unean Joana so egon zitzaidan, hura ere urduri. Mahairatu nintzelarik kexatu nintzaion:

– Joana, nori erran duzu Txokon ginela? Ontsa gira orain!

– Ez diot inori deus agertu...

– Bai zera!

Muturtu zen, piskat lehenago hain airos ikusi nuen neska. Egiaz, haserreak, itsusteko partez, begitartea edertzen ziola konturatu nintzen. Zeldarengana iheska hegaldatu zitzaidan izpiritua: maite nuen Zelda, Joana bezainbat edo gehiago naski, eta hautatzeko premiak erdizkatzen nindu en. Erabaki nuen orduan, bakoitza bere aldian, biak... Pentsubidea ebaki zidan Joanak:

– Zer nahi zuen telefonoko horrek?

– Oren batean Ziudadelan izan gaitezen.

– Zu eta ni?

– Untzi berean gabiltza, ez?

Telefono-ukaldiaren erruduntzat neukan Joana, eta ez nekusan aitzakia aski bortitzik bera ere, berak abilki kozinatu saltsan ez sartzeko. Kafeak eta kroizan malgoak ordaindu genituenean, erakusten nuen irri maltzurrak nonbait neska trabatzen zuen. Eguerdi baitzen jadanik, zalu jalgi ginen ostatutik.

Karrikaratu orduko, Txokon leku ongi gerizatuan ginela onartzekoa nuen, bai herots eta bai freskura aldetik. Kanpoko airearen berotasuna

biltzen zen alkohol urrin likitsarekin eta gohaindura kulunkakorra eragiten zigula nolaz ez aitor? Hala ere, gu berdinki, kalean punpe eta jauzika zebiltzanen gisa usinduak ginen, eta lehen gaupasaren herexak genekartzan soinetakoetan fermuki josirik. Baina norberak ez du bere burua ikusten, are gutiago sentitzen.

Agur lainoaz haiatzen genituen etorri berriak: galtza-atorra oraino zuri-zuriak zituzten, gerriko gorriak planta ederrean eta zapatak nixtan. Autoa Behenafarroako etorbideko kantoin batean aparkatua zuten, eta extasia gunera –anaiak lerrakeen eran...– iristen ziren, emeki bezain segurki, esperantzaz beterik. Hemen, besta-giroa ez zen sekula apaltzen, egunero, orduro, jende-uhin gurbilak hurbiltzen zirelako. San Ferminak indar-jale erraldoiak zitezkeen eta horrek egiten zien ohore. Nekadura arrunta baino urrunago eramaten ziren gorputzak, gogoetak eta itxaropenak.

Sarasate pasealekuan barna Ziudadelarantz gindoazenean, Joanak bere ondora bulkatu ninduen, eta Antsoren baten harri-tailuaren maldan, musu luzea eskaini zidan. Laket nituen

haren ezpainak nereetan lerratzen. Oldartzeko astirik ez nuen ukan eta hondarrean utzi nuen destinuaren zoriona nigan isurtzera. Doi-doia oinak lurrari gurinez lotzen zirelako itxura neukan. Ibili ginabiltzan, istantean nonbait jartzen baldin baginen 'izpiritua' huts geratuko zitzaigulako beldurrez. Irus nintzela errepikatzen nuen, baina aldi berean kezkaturik: nork ote nahi nindu en solastatu? Zertarako? Nola bazekien X deituko nuenak San Ferminetan nintzela? Zein joko zeraman Joana Garaldak? Ez zuena honek, alegia deus ez, X zelakoari guzia salatu?

Joanak preseski, musuak elea askatu baliro bezala, Itoiz Koordinakundearen harat-honatak azaltzen zizkidan: hamar urteko borroka, herriak, lurrak eta etxaldeak urak gaindi ez zitzan, etxeak, karrikak eta hilerriak. Kattalin Etxamendi amona aipatzen zidan sutsuki: zazpi mendetan eraiki Toarena baserria itoko zuen urtegiak, Gorraiz eta Lizarraga sendiak betiko desterrura kondenatuz. Nere sentiberatasuna inarrosten zuten Joanaren agerpenek eta gogoratzen nintzen, Eugiko aintziraren ertzetik iragaitean, zenbaitetan, arratsapala jausten zenean, miresten

ahal nituela urperatu etxe eta eliz dorrea, uhargi, zehargi, zohardi. Ahurra tinkatu nion hatsa bahiturik:

– Otoi Joana...

– Baina oro egia duzu gero!

– Baietz... Hara, Ziudadelan gara.

– Urduri iduri duzu.

Ziudadelako harresietara karreatzen ninduen lotsak. Ordulariari behako bat bota eta dardarka Joanari murmuratu nion:

– Gauden hemen haiduru Joana.

– Uste duzu X hori jinen dela?

– Zertako ez? Errana du... –gehitu nuen, nahiz eta gizona, hala baitzen, aski herabeki mintzo nabaritzen zen telefonoan.

Dudarik gabe, keinka larrian zegoen eta ez ziokeen berak antolatu hitzorduari uko eginen. Ziudadelako belardi idorrean etzan nintzen, Joanak altzoa eskaintzen zidala buruaren pausatzeko. Goaitari eman gintzaion nagiki. Neska seaska-kanta amoltsuaren xuxurlatzen hasi zen, eta abestiaren xarmei iheska galtzen nituen indarrak.

«Ai amatxo ez dut hazi nahi / Ai amatxo negua dut zai» marmarikatzen zuen Joanak, klasikoak ongi ezagutzen zituela frogatuz. Orduan, ximixtaren pare, oroitu nintzen Xixterra ostatuaren atetik nola segitu nituen Haitz eta Joana urruntzen; gomita hurbilagatik, pentsatu nuen ez nituela sekula berrikusiko. Ordea, mundua txikia zen, eta gure bizitzan barnako bideetan, bizpalau aldiz gurutzatzeko ahala sortzen zitzaigun. Ahal urriak bekan baina noiztenka eskura nitzazkeelako, zoriontsu nintzen orduan.

Bapatean, Ziudadelako sarrera nagusitik bestalier plantarik ez zeukan adin segurreko gizon bat begiztatu nuen. Hiru zatitako jantziaz beztiturik, iduri zuen ez zuela beroaz axola izpirik. Eskualde orotara beha zetorren. Norbait bilatzen zuela ageri zen. Arbola baten atzean gorde zenean, izuak bildu ninduen: nora zebilen gizona? Zutitu nintzen banpez. Itzal uzkurrarengana abiatzear nindagoen, Joanak bitxiki, hura ere kantatzetik gelditua, galdatu zidalarik:

– Nora zoaz?

– Gizona! Hantxetan dago!

– Ez dut deus sumatzen nik...

Lotsa partekatzen genuen oraingoan. Joanaren kezka dardaratsuak nerea biderkatzen zuen. Gizona bere aterbetik atera zen, eta bisean-bis aurkitu ginen biak luze gabe:

– Zuk nauzu Txokora deitu?

– Bai. Behar gaituzu lagundu!

– Nor: gu?

– Gu? Andrea eta biok. Gure seme bakarrak istripu misteriotsu bat jasan du eta geroztik amnesikoa bilakatua da, larriki kolpatua izateaz gain. Reina Sofia eritetxean dago.

– Reina Sofian? Non da hori?

– Tuteran... Edo nahiago baduzu Tudelan.

– Erriberan.

Joanaren begiak jo nituen. Gizonak ez zuen elearen aiseziarik, baina oso mintzamolde zaindua zerabilkion ezpainetan. Parean neukanaren jatorria ez nezakeen zehatz. eta nerener ‘euskaldun berrien’ kategorian sailkatzea erabaki nuen. Gizonak eskua paltopean sartu zuen eta karta bat jalgiz erran zidan:

– Bihar gaueko zazpietan, parte zaharreko Tabernan.

Errazki ari zen gizona. Tuterako parte zaharra ez nuen piliskarik ere ezagutzen; Oñati, Gazteiz, Bilbo, Donostia, Bermeo, Mundaka edo Ordizia aipatu balu, ongi, baina Tutera? Ez nintzen behin ere Iruñea baino beherago jautsi Nafarroako erresuma erre horretan barna. Gogoaren lasaitzeko gizonak eman karta aztertu nuen. Irakurtzeari ekin nion: Doctor Jason Martinez de Mendavia, Gaztanbide 15, Tudela, Navarra eta telefono zenbakiak. Burua altxatu nuenerako ohartu nintzen gizona desagertu zela, eta ahantzixea neukan Joanaren sahetsean nindagoela.

Historio honek nere San Ferminak eta amodiozko egonaldia andeatuko zizkidalako iduripen gogorra ukan nuen. Tristura latzak hartu ninduen, baina aspaldi zen ez nuela neure alorrean lan egin eta biharamunean Tuteralat bidaiatzea planteatu nuen. Joanari agertu nion xedea. Neskak ez zuen deus ahozkatu. Hargatik, eskua luzatu zidan, festarako deia biribilduz:

– Takoneran leku ainitz bada gozoki bazkariteko!

– Arren bihotza, goazen orduan –ihardetsi nion zintzurra korapilaturik, ustegabetarik harra-

patu nuen Joanagandik urruntzen baininduen Tuteralat abiatzeko erabakiak. Ahuletarik nintzen: ez nekien «ez» erraten eta horregatik madarikatzen nuen destinua.

Hiria zeharkatu genuen. Zuhaitz lerdenen itzalean hedatzen zen ostatu batean kausitu ginen, akituak eta gosaio. Jarririk ere ez ginen funtsean hain gaizki. Hiri-erdiko jendalde zaratatsuetarik urrun, kasik bi-biak bakarrik. Ametsa. Maite nuena eta maite ninduena.

–5–

Autobuseko txoferrak erran zidan bezala, Foruen Plazan nindagoen. Tuteran beraz. Hiri arras ezezagunean arrotz. Tutera. Edo Tudela, nere Iparraldeko lagun minak zioen eran, sepia koloreko udak oroitzean. Honentzat, Tutera izen euskaldundua baino ez zen eta aitortzen zuen barbarismo hotza aditzen zuenero, belarriak larrutuak nabaritzen zituela. Baina ni, zakua eskuan eta Euskaltzaindiaren onomastika erabakiei jarraitzea deliberatua nuenez gero, zinez Tuteran nintzen. Musika kiosko baten inguruan biribilkatzen zen eguerdiko ekiak erre plazaren erdian.

Oren bata zela irakurri nuen, udaletxea zirudien eraikuntzaren atariko ordularian. Ezkerretik, eskuinetik, bazter guzietarik autoak ziztu bizian zetozen, isiltasun une urriak noiztenka bihikatuz. Aire beroaren dudazko ziloetaz baliatzen nintzen buruaren altxatzeko eta ohartzeko plaza karratuaren etxeetako hormetan Erriberako herrien armarriak agertzen zitzaizkidala, eta han teilatu kiskailian, amiamoko edo zikoina habia

bat bazela. Luzaz egon nintzen, ametsetan nola, habiari so, zikoina emeak menturaz, hegal zuribeltzak firfirikan, zelan sotilki umeak mokoz bazkatzen zituen. Behin ere ez nuen amiamokorik miretsi. Zango eta lepo finen dantza eder kausitzen nuen, eta Oxkaxe gaineko saien zirurikak legez, begia preso hartu zidan ikusgarriak. Bizkitartean, amodio-erauntsia jazartzen sentitu nuen nigan eta denbora gelditzen. Bapatean, burzoratu eta hedailo erori baino lehen, sahetsean neukan ostatuan gerizatzea pentsatu nuen.

Itzalean jarri orduko, izpirituaren bahiketa bero ikaragarriaren gain eman nuen. Arratseko zazpietan Jason Gonzalez de Mendaviarekin neukan hitzordua Tabernan, han nonbait Parte Zaharrean. Anartean hurbiltzen ari zitzaidan zerbitzariari gorri bat eskatu nion. Ostatua herotsez betea zen, uluak huxtuka zabiltzan eta tronaduran dilingotu haizegailuak doi-doia freskatzen zuen barneko airea. Joanaren aurpegia jaukitu zitzaidan desiraz hanturik. Stingen moldean, «Teee in Erribera with you» xuxurlatzen hasi nintzen, gizon moskotak ekarri edariaren hurrupa-

tzera nindoala. Alabaina hitzorduraino denbora hutsa ahal bezala erabiltzea baino ez zegokidan. Burumuinaren kraxturuak laxatu nituen ondorioz.

Bezperako gertakariak emekiño arrapasatzeari ekin nion. Itoizko urtegi detsaren aurkako manifestaldian egon ginen Joana eta biok, Paralizacion! eta Irati Bizirik! oihuak ezpainetan, berrehun bat jenderekin batera; ondotik poteo ritualari lotu gintzaion airoski, eta ura genuen harrigarriki aipagai nagusi: zertarako egiten zuten Itoizko aintzira artifiziala? Nafarroaren ureztatzeko? Ba, pentsa! Tarragonako industria kimikoaren eta Costa Brava behere horretako baratzeen eta hotelen hornitzeko. Ur txintik ez zen Irati ibai mistikotik Nafarroan geratuko beraz? Ttanttarik ez. Eta Irunberri-Lumbierko odolezko malkoak nola isuriko ziren hemendik aitzina? Idorte iragarriaren garaiak ziren guretako. Eta Joanak, etsiturik, mojito hormatu bi eskatu zituen.

Foruen Plazako aixolbean, autobusean eta San Ferminetan entzuten zen musika berdina zebilen. Gauaren hasieran Joanak azalduaz gogoratu nintzen:

– Hau bakalau duzu.

– Arrantzaleena?

– Ke ba! Tzunga-tzunga militar-matxista debeagarria!

Orduan, nere jaidurarik txarrena ezin izan nuen ezeztatu: lau, lau, lau, xardina-bakalau abesteari uztartu nintzen, neskaren sohako xifrituaren menpean.

– Otoi, Amaia! Musika horrekin gin-kas edaten dugu.

– Jin-Kas alternatiba?

– Arren Amaia, beti txantxetan! Egin diezaiogun elkarri distentsio keinu bat. Goazen... –murmuratu zuen zaraitzuarrak, (baka) laugarren godaleta lehortzen ari zitzaigularik. Goizean, burutik minez, ur lehiaz, mihia traukan, Joanaren besoetan iratzarri nintzen. Joanaren gorputz epela erhiek xeheki balakatu zuten eta ahanzmenak udalatu eremu larraitzak loreztatu ziren. Dohatsu izan nintzen. Ilundura bakarra, Maulen kasik negarrez abandonaturiko Zeldaren presentzia urruna zen: maite nuen Zelda eta beharrunean egunean egunekoa konplitzen nukeela arrazoinatu nuen. Doluaren piskat arintzeko, Joanaren

titi punta ubel eztietan natxikan gogoa, autobusarekin Iruñetik atera ondoan, Tafalla aldean lur erreak miretsi nituelarik: hau zen Nafarroa, hau zen egarria, hau zen ur eskasa. Hau zena gosea?

Samurtasunaren iduripena neraman larruan eta, aldi berean, nereak ez ziren guneetan galdurik bainintzen, bihotza beldurrez punpeka haserretu zitzaidan. Gaindi ez nezakeen sentimendu bitxi bat jasaten nuen: itsas-usaina nabaritzen zen Noaingo akueduktotik hona, Izarbaran eta Orbaran ibarren arteko bidetik misterioski sartzen eta, itxura guzien arabera, bi mila urte iragan arren, erromatarrek, mauregiek, juduek eta euskaldunek biziarazi lurralde historikoan izerdiaren aztarnak hurbil-hurbil neuzkan, eguzkiaren hats bortitzak zaindurik, errauts, harri eta holtzetan. Denboraren hunkimena urtzen zihoakidan, erregeek hegoaldeko limes zelakoaren defenditzera errazkiago zaldizkatzeko ireki bide zabalean barna; nintzen iparraldeko limesko jende soila arrotz sentitu zen ohiko berdetasunetik kanpo.

Mahaian pausatua zen basoko ardoa agortu zitzaidala ohartu nintzen. Betazalak apaldu ni-

tuen. Izpiritua lurraldea bezain biluz nahi nuen. Beste gorri bat manatu nion zerbitzariari. Mekanikoki ekarri zidan godalet estimatua. Ahosabaia freskatu nuen mahastien jori amoltsuarekilan. Tafallako plazako iturrian irentsi nuen azken urahurtrak bakardadearen zama garraiatzera eraman ninduen. Joanak aitzakia ona harrapatu zuen, egun bederen nerekin ez etortzeko, eta biharamunean Tuterako Plaza Berrian juntatuko ginela hitzeman genion elkarri. Drole zitzaidan halatan, bi urtez, Joanaren faltarik ez pairatzea, eta hor hiru gau-laurden eskuz-esku higaturik, zilo handi baten ertzean nintzela sinestea.

Ostatuko ateaz haraindian pausatu nituen soak. Tuteran nintzen. Erriberan. Zeregin frango edukiko nuen agian, Jason Gonzalez de Mendaviaren xedeei plegatzen hastean. Anartean, Foruen Plaza aztertzeari ekin nion: hormetan irakurtzen nituen hirien izenak memorizatzen saiatu nintzen eta idortearen poesia mailukatzen nuela iduritu zitzaidan. Armarri bakoitza eki-leinuru ziztakorra zen: Kaskante, Murtxante, Zarrakaztelu, Zentroniko, Ablitas, Alesbes, Argedas, Baltierra, Barillas, Buñuel, Fitero, Fontellas, Fus-

tinana, Kabanillas, Kadreita, Kastejon, Korella, Kortes, Melida, Monteagudo, Ribaforada eta Tulebras. Zerbitzariak ogitartekoa eta beste ardotxo bat ekarri zidalarik, herrien izenak neraman karnet txikian etzaten ari nintzen. Tuterako Foruen Plaza berriak bidaia lehorrerako gomitak eskuzabalki luzatzen zituen. Bapatean, itxuraren osatzeko, sahetseko karrika batetarik jalgi zen asto umilak tiratu karroak bildu zidan soa: barazkiz kargatua zen karroa eta gizon xahar zimelduak tinkatzen zizkion astoari uhalak. Bihozkada, nehori zuzendua ez zen irriaz agertu nuen. Jada idorraren maitale edo behintzat konplize bilakatua nintzen. Agian ardo freskoaren eraginez.

Plaza Berria jendez betea imaginatzen nuen: Korrikaren karietara, maiatzaren leheneko ibilaldi bat, zertako ez Aberri Egun bat? Eta iduritu zitzaidan Larrain Dantza populutsu bat ongi baino hobeki har lirola. Bezperan, Itoizen aurkako manifestazionetik landa, milaka bizidunen artean Joanak eta biok eman genuen Larrain sotilera eraman ninduen oroitzapenak. Gaiteroak hasi zirenean atabal joaldiek aske bezain huts utzi unetxoak alegeratzen, Joanak besotik helduz, mol-

datzen ari zen binakako biribilera gidatu nin-duen:

– Egizu nik bezala!

– Nola egin dezaket bestela? –kezkatua hela-razi nion eta ingurutxoari ekin genion.

Azkenean gustu hartu nuen eta aitzinean neukanaren urratsak segitzea baino ez zegoki-dan. Amorezko hurbilera mistikoaren parabola zen Larrain eta, aldi berean, industri-aro borti-tzak desegiten zarraikan jendarteko harreman primitibo bat. Alabaina, larraitz biluzietako indio ibiltariek, Wounded Kneen, Sand Creeken, Ama-zonia ibaiaren inguru malgoetan edo Alice Spring-geko aborigenek manera berdinean dantzatzen zuten, euriaren, ekiaren, osagarriaren eta maita-sunaren deitzeko. Emeki-emeki, kopetan behera izerdia zerigula, gaiteroen soinuak jabaldu ziren eta biribil bikoitza, txalotan mundu modernoaren anonimatoan urtu zen. Joanak musua pausatu zidan lepo-gibelean, eta ikara nabaritzen nuela, UEUko irakasle baten eran Nafarroako gaiteroen berezitasunak azaldu zizkidan. Ume mukizuaren pare behatu nion:

– Badakizu bi gaitero saldo badela leku frangotan. Bat, Tomas Diaz Txino izenekoaren aldekoa, eta bestea Lakuntzaren hegalekoa. Biak aharratzen dira elkar gurutzatzen dutenean karrikan, joka ari dira zenbaitetan. Diote lehen adiskide zirela!

– Ez nekizun.

– Bahai neska, eta orain hitzik edo sorik ez. Iñork ez aharra hori aipatzen. Ahalgegarri bailitzan!

– Euskal Herriko isiltasunaren legea...

– Horixe.

Laket zitzaidan Tuterako Plaza Berria, gogapena harrotzen zidalako, iraganeko momenturik eztienak burura ekarriz. Umore on bulta bat ukan nuen. Edo ezezagunaren izua gorde nahian nindabilan? Zena zela, asea nintzen eta Erriberako ardo arinak kasko zokoa amoltsuki kilikatzen zidan. Zin egin nuen nerener, daigun Tuterako festetan –noiz ziren bada?– plaza honetan Larrain dantzatzea Joanarekin, edozein alderditako gaiteroekin. Bizkitartean, denbora igiarazi behar nuela nolazpait, ordaindu eta ostatutik atera nin-

tzen, Turismo Bulegoa non zegoen zerbitzariari eskatu ondoan.

Karrikako bero astunak bahitu ninduen. Ostatuko aire kondizionatuak ilusioa hazi zidan, baina kanpora orduko izerdia gorputz osoan isurtzen sentitu nuen, besapeak heze neuzkan eta eskuahurrak linkatx. Bero pizuaren oinazea, jadanik autobusean pairatzen nukeen, leihotik mahasti lerroak ikustean. Erregebidean, alkatxofaz, esparragoz eta Lodosako pikilloz hantu kamioiak gurutzatzean, iparruntz debruen ziztuan lehiatzen, freskuraren usteak zirauen. Baina hor, karrikaren erdian, ustea bera urtzen zen.

Pentsatzen nuen orduan, berotasuna herrialdea bezain arrotz zitzaidala. Alabaina, arras bakan azaltzen ziren lur erre hauek gure herriaz eskaini liburu koloretsuetan. Gehienek, Gazteiz-Santa Grazi linea asmatuaren goialde berdea baizik ez zuten solasgai, linearen behekaldea Euskal Herria ez bailitzan. Ordea, izerdi tematsua lantzer edo xirrimirri kuttunarekin ezkontzen zen. Gorputz bakoitzak horma eta sua zekarren. Behialako autobusean eta karrikan harga-

tik, nekez moldatzen nintzen eremu horail, huts eta bero hauei.

Golkoaren barnea miatu nuen, Erriberaz irakurri edo nekiena batzen saiatuz. Deus guti ondorioz. Lanari lotzeko giderretarik bat Xabier Leteren «Nafarroa Aragoa» izango zen neretako, Benito Lertxundiren «Erribera» deiadarrarekin batera. Menturaz, Larragako Joteroen ahaideren bat neure altxor apurrari erants nezakeen. Euskal Herri berde, euritsu, hegotsu eta haritzez estalikoa nintzen. Nion, desertuaren premia ere gurea zela, desertu geografiko zein kulturala. Basamortu desiraz nindagoela, karriketan jenderik ez nekusan. Haboroxienak agian loaldian ziren, edo bulego epeletan lanean, edo igerilekuetan sartuak. Karrika hertsiak nereak baizik ez ziren beraz. Burua altxatzen nuelarik, balkoietan dilindatu xuriketen zaplastakoa hautematen nuen, zeru urdin gaztigakaitz puska bat eta zikoina parea ekiaren desafiatzen.

Turismo Bulegoaren aitzinean aurkitu nintzen aski laster. Gogoa sardeskatu zidan, ortzaizean Argedastik jitean, nola jaukitu zitzaidan Tuterako hiri ona. Itxuratzen nuen erdiaroko hiri soil izai-

teko partez, hiri modernoaren planta zeukan urrunetik, munho apalez inguratua, etxebizitza merke gune batekin, erditsuan eliz dorre askorekin. Autobusa Erromatarren zubiaren gainetik iragan zelarik, harritu nintzen Ebro ibaiaren zeharkatzeaz. Aldi honetan, hunkigarriki, zinez Aturritik Ebrora ibili nintzen. Bidaiako eta goiz partean, Joanarengandik bereizteko zailtasunak abantxu ahantzi nituen. Erromes arrotz eta beldurtia bihurtua nintzen. Joanaren hitzek oihartzun egin zidaten burumuinean:

– Zoaz gure Jerusalemera...

– Zer diozu?

– Bai, hiru jendalderen hiria izan da Tutera: hein batean bakean bizi ziren han juduak, mauregiak eta euskaldunak.

– Aaa... –isilaz hartu nuen Joanaren oharpena.

Egiaren errateko, ez nion kasurik egin, egun bat haren aldamenetik urrun pasatzeko ideiak ez baininduen izpirik ere alaitzen. Jerusalemen nintzen, Jerusalemeko Plaza Berrian, nora jo ez jakinez, intsentsuz usaindu salmoak xuxurlatuz, Auhenen Hormaren bila.

Ordulariari behakoa bota nion: laurak ziren doi-doia eta oraino hiru oren banituen ahitzeko Jason Gonzalez de Mendaviak eman hitzorduraino. Amodio-minez, beroz urraturik, Tuterako Benjaminen gisa, bidaia luzerako prest nindagoen. Galderategi burbuilatsua bilakatua nintzen. Aldi berean negar eta mintza gutizia nuen. Taberna ostatuko zita berantesten zitzaidan. Anartean, Turismo Bulegoan aterbetu nintzen, hiriaren kartaren bezainbat itzal eske.

Orlegiaren dolua nekarren sekulako. Alaxokotzia!

–6–

Behar ere, Keiles parke horaileko tamarindo lilizuen maldako ttottogiaren batetarik, sanpez eta larderiaz iratzarrarazi ninduela polizia munizipalak, bestela ez nintzen sekula Taberna deitu tokian izango, arratsaldeko zazpietan Jason Gonzalez de Mendaviaren haiduru.

Oren alferren segidan, ostatuan sartu bezain laster, ohartu nintzen telebistan «Lehen Musuak» ari zirela eta txunga-txunga gisako musika entzun zitekeela. Baina nere sohakoak ez zuen Jasonen itzalik kausitu, eta halatan kontzientziaren osoki esnatzeko, kontuarrean bermatu nintzen kafea manaturik, ametsetan oraino.

Urrats bakoitzean izerdia gorputzean behera nazkagarriki lerratzen sentitu arren, azkenean maite nuen ezezaguna eta aldi berean deigarria zitzaidan hiri hau. Turismo Bulegoko andereak eman zidan kartañoak ez ninduen anitz laguntzen, bertan monumentoak, elizak, katedralak, komentuak eta palazioak baizik ez baitziren sei-

nalatuak. Arrotzaren moldean beraz, abiatu nintzen itsumandoka, Tuterako karriketan zehar, erdiaro goraipatuko hizkuntzen, ohituren eta fedeen nahasketa baketsua harrapatu asmoz.

Ordea, Foruen Plaza abandonatu nuelarik, Parte Zaharreko ziruditen kaletxoetan, nahasketa baketsuaren aztarnak denborak ehortzi zituela konturatu nintzen. Egunerokotasun dorpea zitzaidan mintzo, eta ‘aurkako linea’ mentalki osatu nuen PSOEren egoitzaren horman odol ttantta irudikatzen zuen tindu gorrizko tatxa begimentzean. Bapatean Donostian, Gazteizen, Bilbon edo Baionan aurkitu nintzen. Theseuren maneran hariari lotu nintzaion eta karrika batek hurrengoa urrats azpira gomitatzen zuela, aitzina nindoan, denbora eta lekuak urtaraziz.

Karrika hertsi ugarietan ekiak indar gutiago zuen. Hiru ostatuz hornitu gurutzategi batera heldu nintzen. Han zegoen Tabernan neukan hitzordua: tenorea jin artean, bisitatzeaz beste egitekorik ez neukan ordea. Izpiritua huts zerabiladan. Joanaz doi-doia oroitzen nintzen, adibidez, oharpen baten ahozkatzeko gutizia nigan jauki-

tzen nabaritzen nuenean, ‘Jerusalem’ honenganako arras harkor sentitzen nintzelako.

Espaloirik gabeko karriketan nindabilan. Bazterretako etxeak estaia bakarrekoak ziren, bakoitza lorez edertu balkoidun, ate eta leiho banarekin. Paretak, gisu koloreko zuri argitsukoak, edo gorrailak, edo urdinarinak, edo berdeak. Zenbaitetan, murruen altxatzeko erabili ziren brikatxo arrosak agerian zeuden, karrikari zahar eta muntto itxura emanez; zenbaitetan ere, beroa zela kausa agian, briken gordetzeko zimenta grisegia ezpalkatzen, errausten eta purruskatzen ari zen. Burua zerura bermatzen nuelarik, ikusten nuen, euri gutiko herrialdearen fama edukiarren, ontsa zaindu burdin-xurizko itaxurak jausten zirela teilatu izkinetarik karrikarantz. Etxe bederaren loiroan, baratze usaintsuak imaginatzen nituen, eta noiztenka egiaren errateko, borta erdi-irekietarik Iturri elekariak asma nitzazkeen. Mediterraneo urrina zerion hiriari.

Karriken dedaloak plaza hertsi batera eraman ninduen. Han, eliza handi baten parean nindagoen. Biribilean zizelkatu sei harrizko lerro, lu-

rretik lurrera txertatuak miretsi nituen. Turismo Bulegoan ukan papera irakurriz agertu zitzaidanez, Tuterako Katedralaren sarreran nintzen. Harriak ipuin bat kondatzen zidan, hain zuzen ere Judizio Jeneralarena. Xeheki baino xehekiago herrokatzen ziren suplizioak, deiadar karroindatuak, min erreak, gorputz mutilatuak eta damuzko barkamen eske ahulak. Eiheralarreko Bernat Etxepareren hitzak jin zitzaizkidan gogora:

Manamendu igortzen du mundu guzietarik
Jende oro bat dakion Iosafaten bildurik,
Ehon ere ehor ere eskapatu gaberik
Zeru eta lur guziak daude ikaraturik.

Lotsaturik bezala nintzen. Ekiak jo arren, hotza neukan hezur-muinetan: arraposki eta menturaz amoroski mailukatu gorputzak dolorez plegatuak ziren, ebakiak, puskatuak, biluziak eta zenbaitek denboraren higamena jasanez, buru edo beso zatia galdurik zeukaten. Errekonkistaren ikurra zen, Amaiurgo Gaztelu Baltzarena, Irunberriko sagu-xederrarena, Gurutzeren azken

oihuarena. Etxepareren koblak labaindu ninduen berriz:

Egundaino ez da izan, ez izanen jagoitik
Iudizio hain handirik ez etare borthitzik;
Sortu eta sortzekoak hilez geroz pizturik
Orok hara behar dute eskusatu gaberik.

Ate monumentalak zapaltzen ninduen. Iraganaren eta orainaren minberatasunak inarrosten zidan golkoa. Mosen Bernaten Eleas orazionez oroitu nahi nuen, salbatu makil gisa, baina Pottaren Galdatzia zelakoaren hitz gezi-gozoak iraulka zabilzkidan barnean: nitarik urrun zegoen Joana eta ihes behar nuen lehenbailehen. Ez nukeen sutan erretzeko gutiziarik, larruan nabaritzen nuen eguzkiaren kiskaildura aski zitzaidan.

Izpiritua huts nahi nuen. Ezustean, igotzen hasi nintzen. Espaloirik gabeko karrikak, patar eta eskaileradun bilakatu ziren. Bazter idorrak kolpatzen zituen ekiak, landare lehor bezain gizenen usainak orotan zabalduz. Gibelera so egin nuelarik, hiria zolan lauz agertu zitzaidan. Zirudienez, hiriko ikustokirik gorenera heldua nin-

tzen. Animaleko ahurrak zeuzkan harri arruntezko tailu erraldoiaren itzalak gerizatzen ninduen. Geroxeago, Tuterako nere lagunei galdegin nielarik tailu-zut hura zer edo nor zen, ihardetsi aitzin irriz karkazailka lehertu ziren:

– Hura? Manazas!

– Baia? Heroi bat?

– Ez, Jesus da. Hala deitzen diogu esku-gaitzak dituelako. Francoren garaian eraiki zuten. Berdina bada Zangozan, Tafallan, eta herri askotan. Denboran, euskaldun-abertzaleek ikurriña jartzen zioten gainean gauez, eta egunez hiriko langileek haserrez handik ateratzen zuten gure izatearen seinalea. Protohistoriako gertakariak dira hauexek. Ez ahal dituzu Antso Azkarraren Gazteluaren hondarrak ikusi?

– Harriak bai!

Pentsamenduka narraikan, lagunekilako solasa ahantzirik bezala. Manazas salbu, gunea eder zitzaidan: mila dorredun hiria, dorre bakoizean amiamoko edo zikoina habia bat, Ebro ibaiaren nagia, Mejanako baratzak, Erromatarren zubia, eta ortzaizean, Turismo Bulegoko dokumentoaren arabera, Bardeak ubel zehaztu nituen. Ego-

naldi labur bat egin nuen, amorosak paseatzeko egoki ziruditan leku lasaian. Iosafateko Sohoan nintzena?

Bizkitartean Tabernan nindagoen. Ibili ondoan pausaturik, aire kondizionatuak amiñi bat freskatzen ninduela, ostatuan, ardoz hanpatu godalet pantzazuak hustu nituen. Etengabe errepikatzen nuen maite nuela hiri arraro hau; menturaz are maiteagoko nukeen, Jason Gonzalez de Mendaviak sortzen zizkidan dudak ezabatuko zitzaizkidalarik.

Jason neukan gogoan eta horra, Iruñeko Ziudadelako harresietan elestatu gizona Tabernan sartzen zela, «Hola!» ozena ahozkatuz. Txapela erantzi zuen eta baratx-baratxa hurbildu zitzaidan:

– Gustatzen zaizu hiria? Bisitatzeko denborarik ukan duzu?

– Bai, nola ez! Misteriotsua zait. Nahi nuke sakonkiago ezagutu.

– Parada badukezu, neure semeari gertatzen zaiona argitzeko xedearekin baldin bazaude beti!

– Zer agitu zako?

– Gorri bat?

Iduri zuen gizonak solasaldia luzatu gei zuela, belarri indiskretoz setiaturik izan bagina bezala. Alde orotara lehiatzen zen haren soa, eta hitza askatu zuen:

– Hemen euskaraz ari direnak derrigorrez euskaldun-berriak dira. Zu euskaldun-zaharra zara ezta?

– Baiki, baina ikasi dugu nolazpait.

– Argi dago... –murmuzikatu zuen isildu baino lehen.

Noiz, bada, lerratuko zen ‘gaiaren bihotzera’? Zein lan mota suertatuko zitzaidan jakitea berantetsia nuen, lanik baldin bazen. Deplauki galdatu nion:

– Nork erran dizu ‘lan’ horretan ari nintzela?

– Begira, lehengusua badugu Frantzian, eta hark galdu bi behorrak aurkitu zenizkion amen batean...

– Baaaii... Oroit naiz: Juanjo Petrikorena, Anauzekoa. Udatiar baten residence secondaireko baratzan atzeman niozkan, honek beregana-tuak zituela, ustez bortuan errebelatuak zirela!

Irria ezpainetan hedatzen zitzaidan, hargatik nerrana kontutan hartu gabe, Jasonek segitu zuen:

– Salatu dit Juanjok, laguntzen ahal gintuzula. Semeak Argedas inguruetan, apirileko gau batez, auto istripu larria jasan zuen, eta geroztik ez da ezertaz jabetzen.

– Amnesikoa da?

– Bai, eta gainera, bilatuarren, autoaren arrastorik ez dugu nehon kausitu, are gutiago istripuaren berririk irakurri egunkarietan; La Voz de La Riberan, adibidez.

– Bitxia da! Normalean, gisa hortako ezbeharrak beti aipatzen dira, egunkarietako azken orrialdeetan baizik ez bada ere... Zuzen zer da nere egitekoa?

– Istripua zerk eragin duen zilatzea... Luze bada, luze. Lasai: apartamendu bat badaukagu Parte Zaharrean eta, inkestak iraungo dueno, zure esku dagoke. Bihar goizean Reina Sofia Ospital Probintzialera joanen gara biok.

– Ados.

– Ondo saristaturen zaitugu.

– Zaitugu?

– Bai, andreak eta biok. Andreak batez ere, oso gaizki baitago azkenaldi honetan: jakin nahi du.

Hara ilunbeak urratu zitzaizkidan. Keinu laino batez, Jasonek basoak berriz betearazi zituen. Esplikatu zidan mediku ofizioa zeukala, hiruzpalau hondar hilabeteotan loak ihes zegiola, Uritzen istripua zela kausa. Niri berdin, istripua –istripurik izan baldin bazen– drolexka neritzon, eta nondik has ez nekiela, ospitalera abiatzea ideia ona zitakeela iduritu zitzaidan.

Ostatuz ostatu eraman ninduen Jasonek, mintzakide bat harrapatu zuelako itxuraz bederen, latzaren zamaz arindurik. Egiaz zama orain neure sorbaldan zegoen. Anartean, poteo xugu-na ahal bezain sotilki ‘pairatzen’ nuen: Muskarian jotak entzunez, Omenaldi ardotik zurrutatu genuen. Herrikon Egin hostokatu, Estrellan Jasonek bere kabineteko sekretaria aurkeztu zidan eta, Tabernara itzultzean, jende-talde harrotsua behatu nuen Nafarroa Oinez goraipatzen:

– Oinezerako baimenak oro dauzkagu!

– Hauxe suertea! Agian ez gara Beran bezala Oinazeztatuko?

– Espero dut ezetz! Milaka etorriko dira gure sustengatzera!

Antolatzaileek zoriontsu eta tematsu ziruditen. Jasonek azaldu zidan xeheki, Tuterako Argia ikastolak hamar urte konplitu zituela, ehun haur bazirela bertan ikasle suhar eta aurten aterbe berriaren eraikitzen hasiak zirela Fontellasen. Kezka zozo batek inarrosi zidan golkoa:

– Eta, zein euskalkitan ari dira hemen?

– Euskara batuaz. Erriberan hazten dira euskara batua ezpainetan ibiliko diren lehen euskaldun-zaharrak –Jasonen elasturia lasaitu zen eta niri bihotza sutu zitzaidan.

Joanarekin iragan gauen ondotik ahantzixea nuen Zeldari deitzeko xedea bermatu zen nigan bortizki.

– Telefonatu behar dut...

– Goazen afaltzera lehendabizi. Ez ahal zara gose?

– Segurki, goseak hila naiz.

– Gero pisura eramango zaitut.

Jasonen atzetik atera nintzen Tabernatik, Erriberako airea fresko izanagatik, nitan berotasun ikaragarria sumatuz. Ardoaren gain jarri

nuen barneko labakia. Zangoak karrika idorretan herrestatzen nituen artean, Larragako joteroen ahaidea bultzaka ari zitzaidan aho sabaian kolpeka, biharamunaren beldurra ezeztatuz:

Zubero ta Nafarroa,
Raimundo Lanas ta Etxahun
Biei kantatzen diegu
Larragako joteroak!

Zeldaren begitartea zerabilkidan gogoan. Zelda hain amoltsua, hain ederra hain... Hitzik aski ez nuen aurkitzen, Maulen laxoki abandonatu nukeen maitalearen kalitateen zerrenda hornitzeko. San Fermin arras bekaitzen gutizia neukala aitor nezakeen, eta gainera han Joana Garalda gurutzatu! Orain, Tuteran, Jasonen gibeletik ibiltzen nintzen, istorioak itzultzerik ez zuelako iduripenaz bustirik. Uritz gazteari gertatua zakutik edo zorotik argituko nuen. Menturaz denbora beharko zen, eta bizia, amodioz erretzean, laburra zitekeen.

Burua nahasirik, Jasonek seinalatu jatetxean kokatu ginen. Gerokoak geroko, bizkitartean Pi-

mientos rellenos eztiak gozatzen ari nintzen. Edanak leizetu sabelaren betetzen. Jason gai guzietaz mintzo zitzaidan, salbu Uritzen istripuaz. Halatan, lurralde honen iraganaren bideak marrazten zizkidan, eta haur nintzenean nola amamaren ipuinei beha, ezpainetara so nengokion.

– Sertoriusen arabera, herri hauek Ager Vasconum zirelako segurtamena zegoen. Orduko hiri handiak Cascantum, Kortes, Argedas eta Muskaria omen ziren. Muskaria hain zuzen, gaurko Tuteraren amasoa zen. Tutera bera mauregiek eraiki zuten eta nonbait idatzia denez, 841ean Amir Ibn Kulaybek gobernatzen zuen. Iruñeko jaure soil zen Antso I Garzezen eta mauregien arteko bataila bat izan zen Bardeetan 914ko uztailaren 7an, eta emeki emeki Banu Quasitarrek Tudela Nafarroako erregeen esku utzi zuten. Hamabigarren mendean erregeen konkista bukatu zen, 1119ko Tuteraren menperatzearekin, eta orduan altxatu zituzten dorre gotikodun katedralak mezkita ohien oinarriak erabiliz...

Jasonen azalpenen haria moztu nuen jakinminez:

– Eta juduak?

– Juduak? Beranduago etorri ziren. Hispainia osotik haizaturik zetozen Nafarroako legea mauregiekin bezala juduekin samurrago zelako. Jendalde bakoitza bere auzoan bizi zen: mauregiak Morerian zeuden, berrehun bat familia, bertzegile, zurgin, zapatari, espartingile, teilero, harakin, okin... Gaurko Herrerias aldean. Han dago zure pisua! Juduak aldiz Tuterako Aljaman zeuden. Poetak baziren, pentsalariak, merkatariak, bidaiatzaileak eta prestamugileak. Judah-Ha-Levi olerkari ospetsua zen eta Benjamin famatua Bagdaderaino ibili zen, 1136 eta 1173 artean. Abolfazon anaiek dirua maileguz prestatzen zuten...

Tutera, xinaurritegi gisa imaginatu nuen, edozein uneetan pizteko gai eta musika orientalez usaintsu. Baina iduripen idilikoa ebakitzen zidaten Jasonen hitzek:

– Alabaina, mauregien eta juduen libertateak garestiak ziren, eta Nafarroako Erregeen gerizak ez zuen iraun. Hamalaugarren mendean Europan zehar zabaldu fobia berdintsuek ito zituzten Tuterako Aljama eta Alkatia. 1373an adibidez

Tuteran sutea egin zuten, krypto-judaismo bekatuan harrapatu judutar emazte batentzat.

Jason mintzo zen ahoak eman ahala eta nik ardoa bezain segurki edaten nion hitz bakoitza. Haraintzineko mauregien eta judu konbertsoen ondorengoak baziren menturaz oraino ere, euskaldunekin batera denak krypto-bizitzara behartuak. Ikusiz Jason elestan segitzeko arras umorean zela, Erriberako sozietatearen osatzeko falta zitzaidan elementuaz galdetu nion:

– Nafartarrak?

– Nafartarrak, manatzen, ‘petxa’ren biltzen eta gerlaren egiten. Nafarroako erreinua bermatu zen hiru mende bekanetan lurralde menperatzen, borrokatzen, seme-alabak abilki ezkontzen, armaden hazteko diru-mailegatzen, Ebrotik Aturrirainoko mugetan gaztelu eraikitzen, eremuak zedarritzen, zaintzen, kutxak ebatsi urrez betetzen, menia dekretatzen eta abian hausten ari izan ziren. Eta zer da gelditzen handios lehia horretarik?

– Nik dakita? Oroitzapena...

– Pentsa! Preso gauzkaten kate herdoilduak Nafarroako armarrian!

– Las Navas de Tolosa batailakoak?

– Alaina! Ikasle ona zara!

– Gaztetan Antso Azkarra pastorala ikusi nuen harriturik...

Jasonen ezpainak hertsi ziren. Nonbaitetik aurdiki azkonak urratu balu bezala isildu xifritu zen. Ardoa zurrutatu nuen, ametsa apurtu bailitzan. Bapatean, historia akabatzeko gisan, gizonari hitza askatu zitzaion:

– Antso Azkarra hain zuzen ere, Tuteran itzali zen 1234ko apirilaren7an, sifilisak xurgaturik, segidarik gabe. Las Navas de Tolosatik landa, Tutera kosmopolita honetan egon zen, Manazas dagoen tokian zegoen gazteluan zentzeko.

Jasoni so geratu nintzaion, pena hitsa bihotzean eta Zelda zein Joanarekin hitz egiteko asmo garratzarekin. Pentsamendua ordea larrutu zitzaidan eta zilotik asmatu nituen Antso Azkarraren gorputza Tuteratik Ibañetako kaperaraino eraman zuten beltzez jantzi hil kohorteko mila besoak. Emazteak plañiderak kantatzen, gaita kabiliarren oihartzun saminak, zintzurrak larrantziz deiadarkatu jotak, irrintziak, populuanonimo eta nahasia, bere erregea bezainbat

arrotzen eskuetara lerratu erresumaren dolutan apaindurik.

Zelda...

–7–

Arraheinki lisatzen nuen jantzi bakarraz apaindu nintzen goiz hartan: Zuberoako Ikastolen zigilua zekarren tee-shirtaz hain zuzen. Mirailan begiratu nuen neure aurpegi azkenean pausatua. Egiaren osoki errateko ordea, ahoa txuko neukan, eta kopetan zerabilzkidan burumuinaren bi hemisferoak, etsai amorratu bailiran, joka. Jasonek prestatu zidan apartamendua handiegia zen nihaurendako, eta kafea edan ondoan, telebista edo irratirik piztu gabe, moleskinezko sofa karioan jarririk egon nintzen, karrikako auto bakanen herotsek isiltasuna inarrosten zutela.

Afaritik landa egin nuen ekintza antzu bakarra neukan gogoan. Zeldari deitzen saiatu nintzen, Tutera jadanik zenbat maite nuen eta hura ere bai ber zoinuan aitortzeko. Baina Maulen ez zuen nehork besagia altxatu eta, ondorioz, tristuraren zamak lehertu ninduen. Etxean sartu orduko, edanaren eta Jason mediku eruditoak –nortasuna ukatzen zitzaien lurretako historialariak, lekuan lekuko notableak zirela onartu

behar, Garazin, Donapaleun eta Tuteran nola ez?– kondatu ipuin harrigarrien oihartzun balantzakariaren jabaltzeko, Euskadi Irratia martxan ezarri nuen. Tenore bekaitz horretan Daniren irria muga hertzianoetan hausten zen hunkigarriki. Bihotz hustua tarrapataka jotzen hasi zitzaidan: behar nuen norbaitekin mintzatu arrunt! Imaginatzen nuen Danik Kontxako hondartza zeukala begimenean eta Erribera itsas usain kilikariak harrotu zuen: Euskadi Irratiara telefonatu nuen. Handik laster Daniren ahotsa aditu nukeen eta jada berantegi zen gibeltzeko:

– Kaixoo! Nondik ari zaraaa?

– ...

– Ez al dezu ezer esan nahi? Lasai, hemen gure artean gaude, zu, ezezagun hori eta ni. Nondik hots egiten diguzu?

– Erriberatik –dudakorraz ihardetsi nion eta irria karkara airos bilakatu zen:

– Egia al daaa? Baina ez zara Erriberakoa! R-ak ahozkatzeko dezun moduak Iparraldekoa zarela ematen du. Zerbait kontatu nahi didazu?

– Baha, deus guti: nihaur naizela ezagutzen ez dudan herrialde batean eta bihar beldurtzen

nauen istorio baten argitzeari lotu behar natzaiola. Detektibe rurala naiz eta telefonoaren beste puntan maite ditudanak ez ditut kausitzen!

Karkara berriz iratzarri zen, barneko kezken alaigarri. Neraman bizitzaz ahalgetzen nintzen. Ardura eta bideak kontradikzionez hanpaturik neuzkan. Daniren algarak ontsatu ninduen eta ausartu nintzen:

– Mezu bat iragan dezaket?

– Bai, noski. Zeinentzat? Irratia entzuten du?

– Uste dut. Zelda izena du; Amaiak maite duela izan diteke mezuaren edukina, eta ez dakiela delako Amaiak noiz itzuliko den etxera, Erriberakoa luze izango dela.

Bapatean ez nuen dudatu: segurtasun osoa neukan Maulen Zeldak mezua erdietsiko zuela. Daniren boza laino bilakatu zen, kasik balakari bezainbat kalakari. Irria askatu zitzaion:

– Musika berezirik eskaini nahi al diozu hain maite dezun Zelda hari? Hemen, irratiko fonotekan Faltzesko saxo jolea den Pedro Iturralderen soinu zatia daukagu. Ondo deritzozu?

– Bai, milesker Dani. Kartsuki behatuko diot.

– Gau on Amaia... –ahozkatu zidan eztiki irratiko lokutoreak, eta segidan uhin hagundunak saxoren magiaz hantu ziren, bakea eta logura hedatuz Erribera idorrean barna. Zeruak bahitu izar bederak, musikaren botereaz amodiotan Zeldarengan ganbarako ilunbeak argitzen zituela itxuratu nuenean, begiak hertsi nituen.

Gaueko solas samurrak neuzkan gogoan, interfonoaren txirrina ozen bilakatu zenean, Jason hitzartu bezala, nere xerka etorria zelako seinale. Arazo sentimentalik bederen ez zegoen orain, Uritz gazteari gertatu istripu bitxiaren ikerketei uztartzeko: izpiritua ordoki neukan. Etxea giltzatu nuen eta, eskaileretan behera, korrika karrikaratu nintzen. Gaiarre kalearen 26. zenbakian bizi nintzela baimendu nuen, isiltasuna lege zuten karmeliten komentuaren sahetsean. Bederatziak eta erdia ziren eta jadanik ekiak lurraldea erretzen zuen. Izerdia jaukitzen nabaritu nuenean, isuri hezeegiaren ahanzteko oroitu nintzen gaueko eleen freskuraz.

Ospitala, Reina Sofia zelakoa, hiritik kanpo zela agertu zidan zuhurki Jasonek, autoan kokatu orduko. Gizonak emeki gidatzen zuen eta irra-

tian musika klasikoa aditzen zen: Chopin edo Listzen piano puska zenez ez nezakeen erran, usatuago bainintzen kitarra elektrikoen jazarraldiak zehaztuz, edozein talderen ezagutzera. Jason ez zen eleant. Halatan, pentsua musikari sokaturik, bidean agertzen ziren monumentu eta elizak izendatzeari ekin nion, Turismo Bulegoko kartaño a baliatuz. Monreal dorrearen atalaia begiztatu nuen eta, abantxu ondotik, hilerria: ospitala ez zitekeen urrun!

Ospitalean sartu ginen eta Jasonen gibeletik eter urrin nazkagarria zeukan igogailuan aterbetu nintzen. Gizona mintzatu zitzaidan:

– Hirugarren pisuan dago Uritz.

– Eri handietan? –xuxurlatu nuen, baina nere galderak ez zuen ihardespenik merezitu.

Erizainak eta medikuak hara-honaka zaluetan lehiatzen ziren, goizetako artak eta segimenduak segurtatzen. Garbitzaileren bat ere gurutzatu genuen. Ate baten aurrean gelditu zen banpez Jason.

– Hemen da.

Hiru joaldi xehe eta borta bulkatu zuen. Uritz. Harritu nintzen, lehen xixtan, gizon hain gaztea-

ren parean aurkitzeaz. Begiak hilik zituen eta alde orotarik abiatzen zitzaizkion hoditxoak, likido uhargiz mukuru. Istripuak latz izan beharko zuen, gorputzeko abar guziz gehienak igeltsoz inguraturik baitzeuzkan. Ahuleziak soilik zilegitzen zion irrifarra, 'arrotza' onartzen zuela erakutsiz, marraztu zuten haren ezpain ubelduek. Jasonek azalpena egin zion ahots apalez:

– Hara, Uritz, hona Amaia Ezpeldoi! Laguntzera hurbildu zaigu: konta iezaiozu dena.

– Ez naiz oroitzen! Zulo beltza daukat buruan! Eta goiz batez gela honetan esnatu naiz. Istripua aipatu didate, baina ez naiz ezertaz oroitzen...

– Arren...

Aitaren otoitza debalde izan zen. Mutikoak, kolpatua ez zuen esku-ahurra biloetan iragan zuen, buru-zokoan preso zeuzkan iduripenen harrotzeko bezala. Ezintasun osoz. Aitari bihurtu nintzaion:

– Zer diote medikuek?

– Istripuaz gogoratzen ez baldin bada, sekula ez dela sendatuko erraten dute. Lagun gaitzazu

mesedez! –deiadarkatu zidan, negar-zorian zegoen aita desesperatuak.

Jasonek, Uritzen istripuari buruzko xehetasunak emateari zergatik uko zegion ulertzen nuen orain: malkoak jaukitzen zitzaizkion aldiro menturaz, eta minaren metafora egokia harrapatzen zuen, deus ez zekienari Erriberako gora-behera nahasiak agertzean. Pentsamendua bildu nuen anartean eta konturatu nintzen Uritzek zeozer errepikatzen zuela:

– Migelin artzainak dena ikusi du –perpaus misteriotsua marmarikatu zuen.

Seriostasun osoz hartzekoak ziren, beren oheetan dolorez etzanik, eriek ahozkatzen zituzten hitzak. Eritasunak alabaina, zirudienez izpirituari, normalean eskas zuen errealitatearen hunkimena ematen zien: batek, adibidez, «hiltzera noazu te!» aitortzean, derrigorrez sinestekoa zen. Bakoitzak bazekien zein heinetan zen. Uritzen kasuan berdin, naski. Kezka-erroa inguraturik, Jasoni eskatu nion:

– Nor da Migelin hori?

Mutikoak murmuzikan zarraikan etengabe, amets gaiztoan igerika, itotzear zegoenaren an-

tzera. Amnesiaren koroka gordinak baztertuz, aitak nere behialako galdeari ihardetsi zion:

– Denbora librea zuenero Bardeetara joaten zen Uritz. Baliteke, Migelin, han gurutzatzen zuen artzainen bat izatea. Ez dit inoiz azalpen gehiagorik egin.

Isiltasuna ez nuen hautsi. Mediku bat eta bi erizain sartu ziren gelan. Ohe aitzineko tenperaturen marrari kasu handiz begiratu zioten, eta saminki gogoratu nuen auzoko emazte ustez berezilariaren sohakoa, amaren ohantzeko paperean. Bihozkada bortitza jasan nuen, eta atseanartu ere, medikuak ganbaratik bidali gintuelarik. Autorainoko urratsak, elerik trukatu gabe eraman genituen Jason eta biok.

Renault 19 erosoan aldiz mihiak sotildu zitzaizkigun. Jasonek nere iritziaren jakin-gutizia zeukan:

– Orduan?

– Ez dakit nondik has. Migelin nor den baneki?

– Argitasunik ezin dizut eman, zorigaitzez. Non nahi duzu uztea?

– Plaza Berrin. Adiskide batekin hitzartua naiz Aragoi ostatuan.

– Tuterakoa?

– Ez.

– Barkatu, ume bati bezala mintzo natzaizu. Badakizu, seme bakarra dugu, eta abokatu izateko ikasten dabil Iruñeko Unibertsitate Publikoan. Istripuaz jabetzen ez baldin bada, bere bizia oztopatua dateke.

– Ahal dudan guzia obratuko dut.

Autotik jautsi nintzen. Jasonek, kotxeko atea hertsi baino lehen, esperantzaz bete «milesker» xumea luzatu zidan. Itzulikatu nintzaion, eskuaz agur konplize baten eskaintzeko. Uztartzen gintuen ‘afera’ berri honek jada aztoratzen ninduen. Tuteralateko autobusean berantetsia nuen Jasonek aurdiki sareen sakonaren ezagutzea. Anartean iduriz debaldezko denbora asko higaturik nintzen eta, orain, hondorik gabeko putzuaren antza kausitzen nionean, «aferaz’ leherturik nindabilan. Urduritasunaren arintzeko eta istorioaren partekatzeko asmoz, Joanak finkatu hitzordu tokira lehiatu nintzen: Aragoi ostatuaren eguterara hain zuzen ere.

Eguzkiak kiskailtzen zuen terrazan, Etxepare mirikuak bere ohaide batetaz moldatu azalpenak kitzikatu zidan gogoa; Joana bezainbat Zelda imaginatzen nuen orduan: «Hau, ditaken emazte ederrenetarik; ile nasai horia, begi urdin zabal ezti, ahoko elhurra bezain xuri, golko jori, esku leun, oin-lepo mehar, larru xuri-gorri, etzuen itxuraz deuseren eskasik! Gogorki argitua bertzalde, eta jendea». Etxepare zenaren xehetasunei zegokion neska, salbu biloak ikatza adina beltz zituela, laster etorri zen Aragoiko aixolbera:

– Zure haiduru nintzen!

– Bihotza! –erran nuen apalik eta bata-bestearengana lerratu ginen.

Gurea baino besarkada luze, sutsu, tinko eta amoretsurik ez bide zen ikusi munduaren zabalean eta bere inguruetan. Plaza Berriko armarriak oro genituen jakile, Joanak ezpainak bahitu zizkidan unean. Ondotik, eguneroko zereginetara presatzen ziren zenbaitek so bitxiak botatzen zizkiguten, doi bat karrikaren erdian basaki musukatzen zirenei edo Txinako auzuneko metro zaratatsuetan «pipa hortzetan zutela» gozatzen

zebiltzenei ofentsaz eta jeloskeriaz bota zitezkeenen erakoak.

Eguerdiko sapa haizetsuak –ziertzoa epela zena udan?– lurrak gogotik kolpatuarren, elkarren ondo-ondoan ttottotu ginen, kafe bana manatu baino lehen. Ordu Txikietan Danirekin solasean zinpurtzen nintzenean barda, erraietarik faltan nabaritzen nuen laztan desiraren ozena iratzartzen sentitzen nukeen. Bizkitartean, Uritzek jasan istripuaren misterioak eskaini nizkion Joana harkorrari. Jasoni egitea ahantzi zitzaidan eskaera bat planteatu zidan zaraitzuarrak:

– Eta nork du ospitalera ekarri?

– Atx gaixoa, ez dakit. Jasonek ez daut erran!

Ontsa atzemana nintzen. Aragoi barnetik terrazara aire kondizionatua zetorkigun. Airearen iturburua aurkitu nahian bezala, ostatuan sartu nintzen, eskaileren maldan zegoen telefonora bihurtuz. Jasonen zenbakiak bihikatu nituen.

– Nola jakin duzue Uritz ospitalizatua zela?

– A! Barkatu, ez dizut esan. Apirilaren 8an dei anonimo batez ikasi genuen Uritz Reina Sofian ingresaturik zela, eta medikuei amoinatuarren, inork ez zigun argitzen ahal, nork eta nola harai-

no garraiatua izan zen. Uritz ez da ezertaz oroitzen.

– Eta zuk zer uste duzu?

– Nik? Semearen zoriona baizik ez dut nahi.

Telefonoaren besagia pausatu nuen kezkati, eta Joanaren sahetsera itzuli nintzen, geriza samur beharrez. Aitortu nion, Migelin artzainaz gain, bazela ospitalera zaurituaren karreatzearen misterio bat. Orduantxe maite nuen neskari aurreratu nion lapatinean lasterka bezala nindabilala, eta hark, axolagabeti, irri erraldoiaz erantzun zidan. Alabaina, ez nintzen detektibe rural apal bat baizik, eta maitale edo kabale galduen aurkitzea zen nere ohiturazko lana. Xerkatzaile ez nintzen garaietan, bulego xahatzen neramazkien egunak, kolegek beren senarren edo haurren balentria paregabeak, ezpain-ximiko abilaz aipatzen bortxaz entzunez, aspertu arte. Lantokiko goizetako solasaldietan, mundu inpudiko bekaitza seme-alaben, gizon-emazte ontsa ezkonduen xehetasunen ardatzean biribilkatzen zen. Milatan nahiago nuen, kafez hanturik, Joanaren aldamenean Herreriasen barna ibiltzea,

bezperan ikusia ere ez nuen harritailu batetaz galdezka:

– Nor zen Jose Maria Iribarren hori, hainbeste ohoreren merezitzeko?

– Idazle eta abokatu bat, Tuteran sortua, Iruñean zendua, *Estampas Tudelanas* obraren egilea.

– Izkribatzale folkloriko bat beraz?

– 1936an Mola jeneralaren sekretarioa izan zena.

Mutu geratu nintzen. Hotzikarak kateztaturik. Molaren tropa odoltsuek Lodosako edo Tausteko ubideak hilotzez ilun utzi zituztela irakurria nuen nonbait: asfixia por inmersion... zioten artxiboek.

Uraren madarikazioa zebilen Nafarroa lehorrean, Bidasoa eta Irati ibaietan gaindi. Esa, Eugi, Itoiz eta Irabia zorigaitz berdinaren alde berak ziren.

–8–

Arratsaldeko zazpietan iratzartu nintzenean, ez nintzen guti harritu Joanaren ohe-partea huts ikusteaz. Ilundura bulta bat jasan nuen: oren asko generamatzan bizitzen ‘mugimendua’ gertatu arteraino eta iraganak laster irensten zuen oldarra. Mihise nahasien purtzilikatzen ari nintzelarik, kasik zainetan, papertxo bat kausitu nuen pleguetan. Joanaren izkirione xehea zen, eta susmatzen nuenaz beste ezer ez zidan argitzen:

«Urtegiaren aurkako bilera dut sarri Iruñean, banoa!».

Urtegiaren iraintzen hasi nintzen, herriak eta ber moldean nere zorion klixkak itotzen zituelako. Habil hoa deabruetan hara!, marmazikatu nuen dutxapean sartzean.

Ur-xirriparen meneko nindagoelarik, betonezko barrakia erraldoiaren gisa itxuratu nintzen, amodioak, adiskide eta laguntasunezko keinuen bortxaz begiratzeko gai, baina bihotzean neraman urtegia desesperatuki idor bara-

tzen zen. Bahe airezua baino ez nintzen, ez nuen deus kontrolatzen, gehiegi durduzatzen eta dudatzen nuelako. Zena zela, Jason Gonzalez de Mendaviak eman ‘misionea’ aitzina eramateko nuela pentsatu nuen soilik. Nondik ez nekienez, ideien bekandatzeko, ostatuetan harrapatzen nituenak galdezkatzea erabaki nuen azkenean. Halatan, amen batean, Tabernan aurkitu nintzen, ETBko pantailan Super-Bateko kideak jostatzen ziren une airosean.

Kontuarrean nintzen ametsetan, ardo gorri bipilez bete baso baten parean, basoarekin desafioka. Bost emazte taldean heltzen begiztatu nituen, pika-beleak bezain elekari, eta gogoa haien hitzen musikan bermatu nuelarik, euskaraz ari zirela konturatu nintzen. Joana iparrerantz abiatuz geroztik –bi ordu eskas menturaz...– mintzatzeko gutiziak inarrosten ninduen. Hostokatzen nuen Egin egunkaria batek irakurri nahi zuelako aitzakiaz baliatu nintzen elearen harilkatzeko:

– Oporretan?

– Ez, gu hemengoak gara, ikastolako andereñoak. Urte bukaerako afaria elkarrekin egiten dugu. Poteoa lehenik ordea!

Ikastolari buruz Joanak eta Jasonek errana errepikatu nien, miresmena ezin gordez: Argiak hamar urte, ehun haur eta mila esperantza... Irakasleak nere ‘arrotz’ plantaz ohartu ziren:

– Eta zu? Iparraldekoa ezta?

– Ageri dea?

– Bai noski: zuberotarra?

– Ez etxit, baina nolazpait han bizi...

Aitormenak larrantzi ninduen. Zeldaren aurpegia jin zitzaidan memoriaren harrotzera eta Zelda zenbat maite nuen onartzekoa nukeen. Aldi berean gogoratu nintzen, zuberotarrez ‘zinpurtzen’ nintzenetan Zeldaren oharpen elibatetaz:

– Heben sortürik behar dizü Xiberotarraren ontsa emaiteko!

– Alabadere! Iseatzen nüzü pürü...

– Ikas ezazü lehentze eta gero mintzatüren gütükezü! –zioen, eta puñala bihotzean zirikan nabaritzen nuen.

Isiltzen nintzen, gaitziturik eta minberaturik. Ulergarri zitzaidan, edonori zauri larria eragin zezakeela bere arbaso propioen mintzoaren desitxuraketak, baina arrazoin aski zena ‘zapaltzailearen’ aditzen erabiltzen hasteko? Irakasleen irri-algarek Tabernara itzularazi ninduten. Datorren Nafarroa Oinez zeukaten ezpainetan eta ikastola berriaren gaiaren inguruan ezin geldituak ziruditen.

– Ikusi beharko zenituzke aurre-planoak!

– Oso, oso ederra eta handia izango da...

Bost emazteen solasak kanpotik bezala behatzen nituen. Aire mehe beroak sudurra xixtatzen zidan eta haizea gogotikago desiratzen nuen. Jonek orduan gomita zabaldu zuen:

– Goazen Beterri peñara, han afalduko dugu!

Irakasleen saldoa segitzen nuen galdegaia ahosabaian ateratzeko prest. Beterrirako bidean, Herrikon egin genuen ‘estazionean’ finkatu nintzen Maria zeritzonari ahapez eskatzeko:

– Migelin artzainaz entzutea baduzu?

– Ez, zorigaitzez ez naiz hemengoa. Baina Beterrin gaur, Erriberako artzain gehienak ezagutzen dituen bat egongo da; badakizu...

– Zer da Beterri? –ausartu nintzen, nere ‘ignorantzia’ lurras utziz. Edurnek, deplauki, Beterri Tuterako peña ospetsuaren izena zela salatu zidan, eta han dantza, gaita, jota eta sukaldaritza taldeak bazirela, bizitza kultural euskaldun minimoaren iraupena segurtatzeko asmoarekin.

Karrikaz karrika ibili ginen eta katedraleko dorreak itzaltzen zuen pasabide hertsi batetako horma anonimoak zeukan ate pizua bulkatu zuen Edurnek.

– Iritsi gara. Gaur kalderete eskainiko omen digute.

– Erriberako espezialitate bat, goxo-goxoa! –erantsi zuen Mariak, Beterriko gela apaindu bezain zabalean kokatu orduko.

Kozina erakargarrien usainek lehertu ninduten. Andereñoekin batera kontuarrera heldu nintzen, eta haiek bezala gin-kas manatu nuen. Migelin artzainaz kezkatuago baldin banintzen ere, Mariak eztiki, kalderetearen alde onak goraipatzen zizkidan:

– Zartagin handi batean, olioa, baratxuriak eta kipulak jartzen dituzte. Gero, pimiento zatiak, untxiki puskak eta lursagarrak urez gaindi-

tzen eta behar den denboraz egosarazten dituzte.

– Honek du horrelako usain samurra?

– Bai, eta jastatuko duzunean esango didazu!

Gin-kasak ardoak baino hobeki freskatzen zidan izpiritua. Aldamenean, Mariak sukaldari trebearen planta zeukala iduritzen zitzaidan unean, guri buruz zetorren gizon zardai, giharretsu eta alai bat agurtu zuen:

– Epa, Periko!

– Kaixo poxpolin! –alegeraz ihardetsi zuen, Erriberako jendeei egokitzen zitzaizkien manera urriak segituz: lur lehorretakoak ziren eta presarik gabekoak ziruditen.

Mariarekin solasean ziharduen bitartean, uste nuen Periko jadanik nonbait gurutzatua nuela, baina hark kasurik ez egitean, engainatzen nintzela pentsatu nuen. Mariak, loeriatik jalgiarazi ninduen:

– Hona Periko! Erriberan ibiltzen diren artzain guziak elekide ditu...

– Bai –onartu zuen Perikok–. Artzain bardeneroen kopurua ez da aspaldian aldatzen eta, naski, ez da hain zaila haien zenbatzea. Ardiak

ehunez haboro dira: abantxu laurrogei mila ardi dabiltza sasoinero Bardeetan.

– Abantxu diozu?

– Baaa, zer dela eta?

– Ez zirea zu Iparraldean egonik?

– Bai...

Bapatean beltz bihurtu zitzaion sohakoa. Beterrin hegaldatzen zen airostasun zaratatsua isiltasun bilakatu bide zen Perikoren kasko zokoan. Banekien, lehenago Baionako karrika jendetsuetan ardura, kasik gauero kausitzen genuen Periko. Ezpainek zimikoa marraztu zioten:

– 1987ko urriaren 3an kanporatu ninduten...

Bizkitartean, sukaldariek Beterri ostatuko mahai handiaren erdian pausatu zuten zelako kalderete bero-beroa, ketan, usaintsu, gose ankerraren jabalgarri. Andereñoen taldea bildu zen eta Perikoren parean aurkitu nintzen. Oroitzapen minartuen zerrendatzeari ekin nion:

– Gerla zikina deklaratu ziguten. Karrikak hustu ziren, bertso makalak, argizirrintako mozkor kantuen oihartzunak eta herriaren geroari buruzko solasaldiak mehartu...

– Etxez-etxe, teilatuetarik indarrez eta legez kontra sartu ziren gure bila, harrapatu gintuzten eta beren kamioietara bortizki aurdiki, Buttes-Aux-Caillesen biltzeko. Haur hotzen negarrak jasankaitz ziren. Gero, fronterara eraman, eta preso urte batez.

Perikoren hitzak hunkigarri zitzaizkidan. Erriberako ardoak lagundu kalderete saltsaren untxi puskañoak bezain beharrezkoak. Gizonaren begietan iragan gogor eta gogor heinean nonbait zoriontsuaren aztarnak dirdiran nabaritzen nituen. Bolborak gogortasun zeiharraren zilarra zuen: ostatuetan itsutuki sartzen ziren tiroka, oinez zebiltzanak lepoan bi balaz azkentzen zituzten edo gauerdietan Victor Hugo kalearen argiak geldo, errefuxiatuak akatzen. Denbora galduak ziren haiek. Noiz jakingo zen egia osoa? Baltasar Garzonek, Kevin Kostnerren antzera, ukanen zuena kemenik aski egia osoraino heltzeko? Perikok anartean mintza-gutizia zuen:

– Torturatu ninduten, eta Olatz kartzelara jin zelarik ene bisitatzera, ez ninduen ezagutu, ubeldurik eta hanturik neukan aurpegia. Urte bat Herreran, Puerton, Albaceten eta Murcian iragan

ondoan, libre geratu nintzen eta Olatzekin hemen plantatu...

– Hemen Tuteran?

– Bai. Eta zu? Zer bilakatzen zara? Zertara zatoz Erriberalat? Oporrez?

Ez nuen nere bizimolde petralaren azaltzeko gogo izpirik, interesik ez zeukalako alde batetik eta bestetik eginbehar zehatza neukalako Erriberan, Tuteran partikulazki. Dutxapean erabaki bideari jarraitzea deliberatu nuen:

– Detektibe rural lanetan nabil eta nahi nuke jakin nor den Migelin artzaina. Non aurki dezaket?

– Artzain bardenero bat da –hasi zen eleak ontsa bereiziz–. Otsagikoa sortzez. Irailero bere hirurogei urteekin bardeetara etortzen da berrehun ardibururen nagusi, Inkatx zakurrarekilan...

– Bardeetan atzemanen dut beraz?

– Ez, orain sasoina bukatua da, eta Otsagin ez baldin bada agian, bere Uxueko arrebaren etxean harrapatzen ahalko duzu. Judu-Burua deitu tontorraren maldako txabolan dagoen

Pakok esanen dizu zuzen non egoten den Migelin garai honetan.

– Aurten Bardeetan zena Migelin?

– Noski erronkariarren artzain-bidea aztalkatu duela. Bospasei aldiz elekatu naiz harekin.

– Orduan, zure ustez, hobe nuke, ezer baino lehen Pakorekin mintzatzea?

– Bai. Inoiz ibili al zara Bardeetan?

– Oraidino ez!

Iraganaren oihal latza bazterturik, Periko ezin isildua zela ohartzen nintzen. Nihauk ere entzumen ahalmena bete-betean neukala sentitzen nuen. Belarriak harrotzera zetozkidan marmarren arabera, hurrengo Nafarroa Oinez zen ardura gehien zeraman gaia. Ardoa hurrupatzen, ogia kalderete saltsan xixtatzen eta lursagarrak sardeskaz erdizkatzen nituen. Joanaren kezketarik eta Zeldaren abandonu sentimendutik urrun nintzen, hain urrun, Uritzek pairatu istripuaren inguruko xenderetan sartzear.

Migelin lokalizatu arren, ez nintzen asko aurreratzen. Iduritzen zitzaidan egunak eta gauak edaten, paseatzen, amodio egiten, jaten, jende behatzen gastatzen nituela. Baina egia erran,

bizia zen horrelakoa, eta ez nintzen detektibe rural soil bat baizik. Pentsamendu ezkorretan ihalauska nindabilanean, Periko hurbildu zitzaidan erranez:

– Bardeetara abiatzeko ez zaitzaket lagunt. Etxean ordea, kartak eta gida-liburuak badauzkat. Kotxerik baduzu hara joateko?

– Ez, mendiko bizikleta bat daukat alokatua, zer gerta ere!

– Ondo dago. Goazen! Olatz pozik izango da zure ikusteaz.

Beterriko giro amoltsutik atera ginen. Maria eta Edurne bihotz-bihotzetik agurtu nituen eta haien deiari pozik erantzun nien:

– Etorriko zara datorren urrian Tuteralat!

– Baiki.

– Nafarroa Oinez oparoa biziko dugu hemen!

Irriak airatzen ziren edonondik. Kaldereteak edo Bodegas Chivitetik ekarri ardoak –ala biek?– ontsa utzi ninduen. Kanpoko haize laztanak bere atzaparretan bildurik bezala nintzen eta gaua izarretan higatzeko gutizia piztu zitzaidan. Tuterako karrikak engoitik nereganatuak nituen eta, Keiles parkea zeharkatuz, Diaz Bravon gaindi

Donibane auzora iritsi ginen. Perikok herenegu-neko lagunak –zenbait desagertuak jagoitik– ai-patzen zituela, bozean nostalgia sumatzen nion eta, aldi berean, historia bururatu zitzaiolako iduripena. Kate luze baten partea zen, eta parte bakoitzari bere txandan zegokion lekukoaren eramatea.

Etxe erraldoietan maldatu plazatxo batean aurkitu ginen. Iluna izan arren, jendeak agertzen zitzaizkigun bazterretan taldeka eleka. Haizea-ren botereaz, leihopeetan idortzen tilingotu arro-pak frista-frista arinetan hautematen nituen. Pe-rikok ezagunak banan-banan helatzen zituen:

– Que pasa?

Solasak laburrak ziren, baina komunitate sentimenduak azkar zirauela ziruditan. Bapa-tean, Perikok haraintzineko xenderak utzi zituen eta urtero Jondoni Joaneren egunaren karietara auzoan moldatzen zen Paloteadoaren harat-ho-natak azaldu zizkidan:

– Plaza hau jendez mukurutzen da. Palotea-doa, antzerkia eta dantza juntatzen dituen ikus-garria da. Piska bat Zuberoako maskarada beza-la. Tauladan agertzen dira herriko handikien ka-

rikaturak, artzain bardenero bat eta Ribaforadako dantzariak. Urtean zehar politika eta kultura mailan gertatuak koblaka zirikatzen dituzte. Oso berezia da. Eta jendea gogotik irriz ari da.

– Euskaraz egiten dute? –galdatu nion Perikori, eta honen ihardespena arruntekoa izan zen:

– Ez, kastellanoz egiten dute, Erriberako kastellano partikular honetan. Badakizu hemen, bazkalorduan haurrei eskatzen zaiela «Quieres chichi?», haragia nahi dutenez, alegia.

Gogoa alegera nuen. Ez zen erraz herrialdearen euskalduntasunaren oinarriaren ukatzea. Eta hori eder zitzaidan. Zeruan ilargi marra fina ageri zen eta kantatzear nindagoen:

Erribera, Erribera,
Zure landen zabalera...

Negurik gabeko Iurraldean nagitasun zozoak gatibatzen ninduen. Segur aski, goiz edo berant, Migelin artzainarekin gurutzatzen ahalko nintzen, eta istorioa bururatu ondoan lasaikiago entzun nezakeen *Hats tristetan mintzo den haren mina, mendeetako lo geldia salatzen.*

–9–

Ordu batak hirian heldu ginen Perikok Olatzekin partekatzen zuen apartamendura. Eskaileretan gora joatean hatsa labur nabaritzen nuen, kalderetearen astuna estomakan neukalako eta zigarretak bata-bestearen ondotik erretzeari uko egin ez niolako. Joanaren bapateko ausentziak ere lehertzen ninduela aitor nezakeen, eta bosgarren estaiara iragaitearekin neure buruari galdetzen nion ea zaraitzuarra ez zenez nitaz trufatzen. Gauza bakar batez seguru nindagoen ordea, Zelda hain urrun izanik, begi-ñiñika bezain beharrezkoa nuela Itoizko urtegiaren aurrako ekintzetan parte har ‘estakuruz’ nitarik aldentzen zen emaztea.

Gogapen antzuak utzi nituen, Perikok etxeko atea zabaltzean, erhia ezpainetan xut-xuta ezarriz erran zidalarik:

– Haurrak lotan daude... –eta Olatz telebistari so ikustearekin, berriz Baiona ttipiko karrika hertsietako argi zurbailak jaukitu zitzaizkidan: zenbat urrats, zenbat ele, zenbat elkartasun,

agian egoerak bortxaz ehaindu elkartasun seinaleak. Olatz pantaila koloretsuaren aurretik zutitu zen. Irriz ari zela ohartu nintzen; irriak alabaina iragan minbera eta orain dudakorra, biak marra berean juntatzen zituen.

– Zeozer edango duzue?

– Bai, ekar ezazu pasa den urtean egin genuen patxaran hartarik. Etxekoa oso goxoa da –zehaztu zuen Perikok, eta amen batean, botilarekin batera hiru baso aurkitu ziren mahai gainean.

Perikok godaletak erditara betez Olatzi azalpenak eman zizkion:

– Amaiak Migelin artzain bardeneroa bilatzen du, eta gaur, Bardeak zer diren nahi du ikasi.

Olatzek orduan bibliotekan hedatzen ziren obra ugariren artetik kartak, gidak eta Las Bardenas Reales izeneko liburu ederra atera zituen. Hainbatenaz Perikori aurpegi kezkatua miretsi nion. Galdera hurbil-hurbila zegoen:

– Zergatik txerkatzen duzu Migelin, funtsean?

– Beno... –hasi nintzen dudan eta bietan konfiantza ukaiten ahal nuela sinetsirik segitu nuen–: duela lau hilabete, hiri honetako gazte

bati Argedasko bidean istripu misteriotsua agitu zaio, eta Uritzen burrasoek deitu naute istripua argi dezadan. Baina egiaren errateko memento-an argirik gabeko ziloan nabil, non ez dudan Migelin artzaina solastatzen.

Dokumentuak zabalik zeuden eta Bardeak harrigarri handi eta ireki iduritu zitzaizkidan. Desesperatzear nindagoela, Perikok Uritz ezagutzen zuela gehitu zuen:

– Uritz? Urtero plantatzen den Bardeetako Martxaren antolatzaileetarik bat da. Intsumisoa ere badela uste dut. Badakizu, ekainean, tiro-poligonoaren aurkako ekintzak egiten direla hemen?

– Egunkarian irakurria baino ez dakit. Jasonek ez zidan salatu bere semea intsumisoa zenik! Orohar ez dit semeaz agerpen berezirik eskaini eta ospitalean ikusi dudanaren arabera, keinka arras txarrean dirudi.

Perikok karta hedatuaren gaineko pundu batean pausatu zuen erhi erakuslea.

– Hortxe da tiro-poligonoa.

– Interesgarria da. Kontuz ibilitzekoa naiz beraz.

– Bai, gune debekatuak badira. Bardeetako tiro-poligonoa famatua da, eremu guziaren ehuneko bost estaltzen dituelako alde batetik, eta bestetik borroka luzea izan delako gune horren lekuz aldatzearen aldarrikatzeko. Kaserna bat bada bertan eta hegazkien airatzeko pista bat. Top-secret diren txostenak badira, Bardeen jabeen juntak berak ezagutzen ez dituenak. Erribera, tiro-poligonoaren zerbitzuan jarria dute. Adibidez: Nafarroako autopistetan hegazki militarrek pausatzeko eskubidea daukate, premia gorria izanez gero. Honen gisako poligonorik ez da Europan zehar «en beneficio tanto de las tripulaciones aereas españolas, como de la industria nacional» eraikia da, diotenez. Estatubatuarrek ere baliatzen dute: arma edo zartagailu geldoekin egiten dituzte probak...

Perikoren hitzak, bargoak gaxura bezala zurrupatzen nituen. Erribera neretzat lur idorraren, bero zarpailaren eta barazki arraroen mendea zen eta orain elez-ele, altzairu urtuaren kirats dorpea usnatzen nion. Perikoren azalpenek ardura zirikatzen zidaten eta nahi nuen derrigorrez

jarrai zezan. Aspaldixkan golkoan neukan galdea egin nion:

– Baina nork eman dio armadari Bardeak okupatzeko haizumena?

– Istorio luzea da Amaia! Poligonoak gatibatzen dituen bi mila hektareak, 1951 arte, landuak eta ardi-alhagiz aberats ziren. Garai hartan, Espainiako armadak tiroka aritzeko zelai bat bilatzen zuen eta, badakizu, sortzez Baltierrakoa zen Zaragozako Aire-Eskualdeko buruzagiak, Jose Daniel La Callek alegia, Bardeak proposatu zituen. Eztabada zenbaiten ondotik, prezio askoren menpe dudarik gabe, hogei urterentzat alokatzea onartu zuen Bardeetako Juntak. 1976an, 'okupatzeko' baimena beste hogei urtez emendatu zuten. 1984an Bardeetako Biltzarraren lehendakari berria Poligonoaren aurka agertu zen, baina alferrik; alokairuaren goititzea baizik ez zuen lortu. 1951ko ekainaren 9an sinatu zen hitzarmena...

– Erran didazu Armada espainiarrak poligonoa 'behar' zuela; nolaz dira orduan amerikarrak Bardeetako zeruetan ibiltzen?

Isiluneak gauaren beratasuna inarrosi zuen. Perikok, ihardetsi aitzin, basoak patxaranez hanpatu zituen. Bizkitartean, biltzen ari nintzen informazio metak eta edan-edanak, biek burzoratzen ninduten. Perikok ahoa zabaldu zuen emekiño:

– Hastapenean, espainolek zituzten bi astez maniobra antolatzen, eta 1960ko hispaniar-amerikar hitzartzetik landa, yankien hegazkinen presentzia ugaldu zen, Bardeak Zaragozako NATOren basearen auzoan zeudelako. Aireko militarren ibilerak peligrosoak dira Erriberako jendeetzat: urtero hegazkin amerikarrek hiruzpalau bonba galtzen dituzte, eta dagoeneko hogeita hamar bat aireko zartatu dira, hogei bat hil eraginez. Militarrek ez dute populazioen seguritatearen axola izpirik.

Egongelaren bitrazko atetik begimen nezakeen iturritik soinu xuxurlariek eta huntz ausarten uhuluek izpiritua altzairuaren zamatik urruntzen laguntzen ninduketen. Perikok eskaini prentsa-artikulu baten irakurtzeari ekin nion, eta poligonoa Erriberako herrientzat zein landderosa zen ohartu nintzen. Hegazkin istripu ugarien ze-

rrendatzea erraz zitzaidan: 1955an Argedasen artzain bat zendu zen Bardeetan kausitu bonba erori baten zartatzearen karietara; 1968an F1OO bat zalapartatu zen Funesen; 1972an bi hil eragin zituen Fiteron Phantom F4 baten suntsiketak; 1974an, hirurehun kiloko bonba lurreratzera utzi zuen aireko batek Kaparroson; 1979an, Sotonerako kanpaleku jendetsuaren gainera lerratu zen beste bonba astun bat Phantom batetarik; urte berean, maniobren segurtasunaren frogatzeko eramaten ziren ariketa militarren garaian Mirage 3 bat zapartatu zen Bardeetan;1981ean, Phantom saldo baten hegaldiak Zangotzako etxe zenbait kaltetu zituen; 1994an F16 bat mila pusketatan barreiatu zen Soratx deitu lekuan, oraino ere landderraren egunerokotasuna probatuz.

Militarren sistemak jendeak mesprezurekin tratatzen zituela onartzen nuen eta militarrek jende xeheengan merezi ere ez zuten errespetua kokarazten zuketen, noizbait gerla bat balitz, estado zapaltzaleen fronterak zainduko zituztelako aitzakiaz baliatuz. Pentsatzen hasiz geroz, sozietateko egiturak oro, eskola eta lan-munduak barne, militarren ereduak kalkatuz munta-

tuak ziren. Talde orotan bazen kapitain ona eta zernahi jasanarazten zuen kaporal bortitza. Talde orotan orduero manupean gestu edo solas absurdoak errepikatzen ziren. Azkenean, armadako armoniaren, homogeneitate baldintzatuaren eta diziplinaren nostalgia kausitzen zen. Progrearen eta lortzekoak ziren helburuen izenean pentsamenduak bakunkeriaren premia zeukan.

Gogapenak gohaindura sortzen zidan eta edanaren erruz, estomaka balantzaka nabaritzen nuen: nazka botatzear nindagoen. Larri nintzen unean, buruhon brumatsuaren harrotzera izen-deitura saila jin zitzaidan: Gladys del Estal... Gladysen heriotzaz oroitzen nintzen, demagun Donostian noizean behin Gladys Parkea bataiatzen zuten Egia auzo peko baratza publikoaren ertzetik pasatzean, baina ez nekien zuzen zein gertakarirekin uztart antinuklear gazte haren herioa. Trenputxartu baino lehen Perikoren boza behar nuen, eta hitz-zedarrien pausatzera ausartu nintzen:

– Poligonoaren kontrako borroka ainitz izan dea?

– Baiki, baina debaldetan. 1970 urteetan zehar guduka bat moldatu zen; aldi berean Bardeetako Juntako herrietako ordezkariek, ekologistek eta ezker-abertzalegoak eraman zutena eta oraindik daramatena, daramaguna hots! 1978an tirogunearen okupazio sinbolikoa egin zen, eta jendeen segurtasuna gerizatzea eskatuz Tutera, Argedas, Kadreita, Baltierra eta Kaskanteko auzapezek agiri amankomun bat argitaratu zuten, poligonoaren desegitea deiadarkatuz, eremuak berreskuratzeko asmoz. Ondoko urteko ekainaren 3an, basaki zapaldua izan zen manifestazio erraldoian, poligonoaren ezeztatzearen alde eta Bergarako Sotoan eraikitzeko xedea zen zentral nuklearraren aurka, Tuterako karriketan galdu zuen bizia Gladys del Estalek...

Hara. Zeruko Argia ohiko argazki nahasiez gogoratzen nintzen. Ordu haietan ere, David Alvarezen hatsa bahitu zuten Lemoizko zentralaren salatzeko ibilaldi batean eta German erahilik izan zen San Ferminetan. Ideiak biribilkatzen zitzaizkidan. Ez nekien hargatik Uritzen istripuarekin jos nezakeen ezer harrapatuko nuenez. Peri-

kok basoak patxaranez are mukurruago paratzen zituen, elearen bidea hertsi gabe:

– ‘Tranzizio urte’ haiek oso denbora gogorrak ziren, baina aurkarien tema ohil ez zezaketen. Ondorioz, 1982-1983ko hauteskunde urteetan zehar, poligonoa lekuz aldatuko zela aipatzeak esperantza muskilak hazi zituen: 1983ko martxoan, tiro-zelaia Europako baserri handienera, Ziudad Realera hain zuzen, eramango zutelako berria zabaldu zen. Ekologisten mesfidantza egiastatuz, azaroaren 30ean Erriberako jendeen poza ilundu zen, Narcis Serraren ahotik jakin zelarik poligonoa ez zela deseginen. Orduan zuen, abenduaren 16an, ETAk armadaren Bardeetako instalazionetan bonba bat jarri... Orain, maniobrak gertatzen direlarik protesta-ekintzak antolatzen dira Iruñeko Gaztelu Plazan, eta urtero ekainaren erditsutan Bardeetako Martxa populutsu eta alegera bermatuz...

– Dena galdua dea?

– Pentsa! Bigarren hitzarmenaren epea 2001. urtean bukatzen da. Ageriko Bardeetako Biltzarrak zer asmo duen, Armada espainiarrak eta NATOk ere bai. Badakizu, yankiek diotela, Euro-

pan duten base-militar erosoena dela Bardeetako hau, eta ainitz erabili zutela Golko Pertsikoko gerlaren denboran, Alemaniatik Kuwaitera zihoatzin hegazkinen pausa-eremu gisa!

– Eta Uritz, istorio horretan?

– Aurkari bat.

Prefosta erantsi nuen nerener. Zer gehiago? Zeruari beha geratu nintzen. Ortze urdin-beltzean izar iheslari bat miretsi nuen, eta desir sekretua arrunt opatu. Gaua zohardi zen. Nere besogainetan mila negar ttantta amorosen moldean, izarrintza kabitzen nabaritzen nuen. Bizkitartean, burua, aireko zapartatuen puska kiskailiz hantzen ari zitzaidan, diruaren, estadoaren lege bakuna errespetarazten zuten kakiz jantzi soldadoz osotu armadaz, musika militar higuingarriz, himno nazional urgulutsuz... Behialako gohaindurak katestatu ninduen: biribilketa sotilean zebilkidan burua. Periko brauki altxatzen ikusi nuen:

– Banoa etzatera. Hor berean egon nahi baduzu lasai, e! Kafe beroa badaukazu sukaldean...

– Ontsa da, milesker. Kartak ikertuko ditut eta Bardeetaz dagoen liburu eder horri begirada bat emango diot.

– Gau on beraz!

Iturri ondoko aulki eztian luzatu nintzen, barneko kulunkak jabaldu beharrez ororen gainetik. Patxarana gozoa zen segurki, baina bakardadea soberaxko harrotzen zuela uste nuen. Hargatik, liburu gotorra belaunetan pausatu nuen eta hostoak astiro inguratzeari ekin nion. Txorien kantu uhargiek goiz-urrakoa iragartzen zidaten. Anartean, nere begiak argazkiz argazki lerratzen ziren, xoraturik bezala. Altzairuaren mendekuak baztertzen saiatuz, ikasi nuen, errautsezko, harrizko eta landare idorrezko lurraldeak bi zati zeuzkala, biak arras desberdinak: Bardea Zuriak iparraldean, gatzaren eta euri zaparraden erruz biluziak; eta Bardea Beltzak hegoaldean, zuhaitz-estalgi gehiagorekilan. Beste guneak Ordokia eta Landazuria deitzen omen ziren. Haraintzinean, Erregearen lurrak ziren eta herriek erabil zitzazketen artzaintza eta laborantzarako. Jabeak, Junta batean biltzen ziren: Erriberako he-

meretzi herriak, Olibako monastegia, Erronkari eta Zaraitzuko ibar osoak.

Begi-ezpalak akitu zitzaizkidan. Loak eramaten ninduen ni ere, eta atseden durduzatuaren erresuman urtu baino lehen, biharamuneko –bertan araiz...– zereginak zerrendatu nituen: Jason eta Uritz mintzatu, Judu-Buruaren maldako txabolan zegokeen Pako aurkitu eta Joanaren bilatzen saiatu. Behako batez, zerrenda handixka zela iduritu zitzaidan eta amor eman nuen.

Ametsak egarria laztu zidan. Alabaina, munduko desertu erraldoietan barna zebilen neure gogo biluzia. Alice Spring hitsetik, Gallupeko basa-etxeetako alkoholez urrindu sukalde pobreetan zehar, Santa-Graziko gerlan hil soldadoen harri-tailuaren maldaraino. Neretzat orotan desjabetzearen ipuin larri berdina zen. Kantamarrak haztamuka segitzen nituen, aspaldian ahantzi irautearen koplak gidari. Alice Springeko ekiak itsutzen ninduen, arroio gorrietako euri desirek tinkatzen eta Erriberan ernatzear zegoen egunaren argitasunak bereganatzen. Deus gabe bizi ziren artzain edo laborarien umezurtza nintzen. Gure amets-garaietako zelaiak ebatsi zizki-

guten, gasodiak, poligono militarrak, zentral nuklearrak, turismo guneak eta meategiak eraikitzearren. Ahalgea sartzen ziguten, ebasketaz ohar ez gintezen, hobendunak haiek zirela oihuka ez genezan. Ase-ezina zen kapitalismoa: ideia bakar eta bakun baten ardatzean biltzen zituen aldekoak bezainbat atzoko kontrakoak; sosa behar zen, hots, guziek gutiziatuko zuten standing baten mantentzeko eta preseski nahikunde hotz horretan oinarritu jendartearen maneiatzeko.

Txori goiztiarren txiotxioek eta Olatzen ahots samurrak basamortuetarik Tuteralat ekarri ninduten.

– Kaferik nahi al duzu?

– Egarri nintzen! Urez egarri behingoz...

–10–

Goiz arrosak iratzartzea ekarri zidalarik, Bardeetaz amiñi bat gehiago banekien. Perikorekin solastatu aitzin, lurralde berezi haren nere ezezagutzak putzuaren hondo asmaezina hunki zezakeen erraz. Egiaren errateko, Olatzek, zazpiak aldera, Nafarroako Gobernuak atera karta erraldoiaren hedaduran lo kausitu ninduen; alabaina, gauaren samurrak balakaturik, Letheren erresumetan barna abiaturik nintzen, eta goizaren lasterrak harrapaturik bezala nindabilan. Larrua, Bardeetako haizeek altxatu errauts horailez estalia sentitzean, akidura-txertoz kemenusten ari nintzen, kafea edan aurretik sumatzen nuen nere zainhiltasuna neurtuz. Baina orohar ongi nintzen: bezperan, Beterriko atarian Perikoren gomita onartu nuen, zaraitzuarraren desagertzeak ez baitzidan gogo handirik ematen Jason Gonzalez de Mendaviaren apartamenduan aterbetzeko. Konpainia beharra neukan, mintzatuz bezain ikasiz.

Kafearen usainak sudur-mazelak kilikatzen zizkidan bitartean, eguneko egitekoak ametsaren zurrunbilotik jalgi nituen: Bardeetara joanen nintzen alafede, Pako artzainaren hatzetarik, Migelin lekuztatzeko asmoz. Menturaz, Reina Sofiara bideratuko nintzen, Uritz hizketatzera eta gero nintzen Bardeetan galtzen saiatuko.

Buruko desordrea pixkat antolatu nuenean, bapatean Zeldaren begitartea jazarri zitzaidan. Agerpenak iraun zuen segundu doietan, Zeldaren amoltsutasunak katestatu ninduen: maite nuen nola amodioaren jastatzeko gauaren erdian deitzen ninduen, eta zein molde erakargarrian ohean biluzirik igurikatzen zuen ilunbearen mendetik heldu zitzaiona, izarrintzaren kidegotik edo euri zaparrada hotzen urrinaz jantzirik. Zeldaren nahia orduan hil ala bizikoa zitzaidan, nihauren biziaren baldintza soila bailitzan.

Hasperen luzea askatu nuen. Olatzek eztiki agurtu ninduen goiz hartan. Xedeak eta Zeldaren premia, biak baztertu nituen eta atzo, herenegun, mendeak zuela, Iparraldera beren haurren bisitatzera zetozen aita, ama, amona eta aitona ugarien begitarte sakonetaz oroitu nintzen.

Autobusak husten ziren Sanandres plazan zortzi orduko elkarretaratzearen zilegitzeko, eta arratsapalean berriz betetzen, lekuak huts utziz. Orain aldiz, salbuespenak salbu, hariak ebakirik ziren, eta behialako giroaren hondarrak Angeluko Carrefour zentro komertzialeko atalen artean baino ez zitekeen usna. Gogoa iraganean igerika zebilkidalarik, neska oihu alegerak ozendu ziren patiorantz:

– Ama! Ama!

Olatzek bi neskatoak bere altzoan hartu zituen eta goratik erran:

– Gosalduko gara hemen bertan. Dutxatu gei baldin baduzu, bainugela libre dago...

– Kaferik gabe deus ez naiz! –ihardetsi nion.

Eta Olatzen urratsetarik sukalderatu nintzen, iturri xuxurlariaren gomendioan Bardeetako mapak, dokumentoak eta Migelin artzainaren lokalizatzeko paperetan etzan ideiak oro abandonatuz. Olatzek eskaini kikerako isuri beltza hurrupatu nuen, salbaturik. Gorputzeko molekulak banan-banan inarrosten nabaritu nituen eta azkenaren aharrausiak egunarekin tematzeko prest aurkitu ninduen. Dutxara joan nintzen.

Urak bururaino eraman zuen kafeak hasi gorputzaren esnatzeko lana. Ohartu nintzen beldur ertzo batek erraiak biribilkatzen zizkidala: bakarrik nindabilan, landderosa izan zitekeen inkesta horretan, bakarrik Joanagandik eta Zeldagandik urrun. Ideien harrotzeko igitzea komeni zitzaidala segurtaturik, idortu eta beztitu nintzen tarrapataka, patioko mahaian jarriak zirenengana lehiatzeko. Han beste kafe are beltzago bat ezpainetan behera lerrarazi nuen.

Berantxago, Olatzek, lasaiki gosaldu ondoan Tutera hiri-erdira autoz lagunduko ninduela proposatu zidan. Baiezko arruntaz erantzun nion, bixtan dena. Ez nuen, urriaren 15a baino lehen, Nafarroa Oinez aztalkatzeko gutizia askorik eta agian gerorako ere indarrak zaintzekoak nituen. Tuterako plazara heltzearekin, Olatz eta haurrak besarkatu nituen, bihotzean ximiko batekin. Sentimental nazkagarria nintzen, mintzatzeko ahala ‘oparitzen’ zidaten solaskideak kausitzen nituen ber. Hargatik, uneko kontzientzia txarra baztertuz eta jadanik ekiaren oldarrak jasaten nituela, karrika izkinako kabina telefonikora zuzendu nintzen.

Jasonek eman txartel batean seinalatua zen taxi-linearen zenbakiak marraztu nituen. Pentsamendu zilarretan galdu nintzen bizkitartean, aireko zaratatsuak, aborigenak, navahoak, ghettoko aurpegiak eta basamortuak nahastekatuz. Linearen beste puntako ahotsak zazpi minutako epea eskaini zidan eta pentsamenduaren plazer bekaitzari lotu nintzaion: arratsaldean Bardeetara abiatuko nintzen Pakoren bila, eta nere bihotzeko desertuaren ispilua edo miraila zatekeen gatzez eta hondarrez moldatu hura. Karrikatik lau tuta larderiazu entzun nituen eta zangoek eman ahala, taxiaren aixolbean kokatu nintzen.

Berotasunak, euriak hegatzetan adina jotzen zuen. Izerdia kopetan behera, besapeetan eta gune-gordeenetan perlatzen sentitzen nuen. Bero iduripena, taxiko aire-kondizionatuak jabaldu zidan:

– Reina Sofiarantz! –apalki nion manatu txoferrari.

Brist-braust, Plaza Berriaren ingurua egin zuen, eta imaginatu nuen Pepe izena ontsa zihoakiola, eguraldia –bazena zerbait errateko ekia nagusi zen aroaz?– eta estadoa edo komunitate

forala inarrosten zituzten eskandalu finantzial-politikoak, doi-doia ulertzen nuen hizkuntzan aipatzen hasi zitzaidalarik. Tuteratik ilkitzean, gaia bigarren mailara jautsi Osasuna taldearen berriez osotu zuen:

– Tienen que ganar, vamos a zirikearlos, que no zikinen la fama de todos los navarros, porque ante to o somos navarros...

– Klaro... –ahulaz ihardetsi nion, bapatean gogoratuz, Erriberan zuela bost mende jende xeheak erabiltzen zuen euskararen hondar zenbait, kastellanoan urtuz salbatu zirela, entzuten nuena lekuko.

Pepek nafar-izatea aztertzeko betarik ez zidan uzten, jarraian Frantziako Itzulian balentriaka zebilen Indurain goresten ari zelakoz. Ospitalaren parera heltzearekin, Osasuna, Indurain eta eguzkia ahantzi zituen, ahozkatzeko:

– Ahora, muski-muski, ya que llegamos...

Klinikako aparkalekuan gelditu zen, eta berrehun pezetako zorra kitatu nion «agur» arinaz despedituz. Burrunbaz desagertu zen taxia ortzaizean. Reina Sofiara bideratu nintzen.

Ospitalean sartzean beti harritzen ninduen garbitasunaren eter usainak. Herioaren usainak agian? Trenputxartzear nindagoen eta, urrats dudakorraz, ongi-etorri bulegoko andere panpoxari Uritzen gelako zenbakia eskatu nion. Deplauki eman zidan arrapostu:

– 205...

– Euskaraz badakizu?

– Pixkoat; zergatik?

– Nahi nuke jakin noiz, nork eta nola ekarririk izan zen Uritz ospital honetara duela lau hilabete, apirilaren 4an hain zuzen.

– Uritz Gonzalez de Mendavia?

– Bai, hura eta bera!

Bulegoko mahaiaren izkina batean zeukan ordenagailuan Uritzen izen-deiturak sakatu zituen, eta txirrina hots zizkolatsua aditu nuen top-secret hitzak pantailan agertzen ziren unean. Andereak eskatu zidan:

– Familiakoa zara?

Ez nekien zer egin. Azkenean, nere naturaren aurka ekitea erabaki nuen, gezur galantaren biribiltzez:

– Bai... Frantziako kusina bat.

– Ezin dizut ezer esan!

Amor eman nuen, tanpis elea marmarikatuz. Axolarik ez neukan, goiz edo berant jakingo nukeen, betebehar zehatzik eta lan planifikaturik gabe niharduen garai hauetan, denbora ez baitzen nere etsaia. Izpiritua, gogoeta sotilaz baketurik, Uritzen gelara igo nintzen, gau batez, ordenagailuaren peko armairuan begiztatuak nituen txostenei behako klandestinoa botako niela zin eginez.

Uritzen ganbaran Jason gurutzatu nuen. Nezkien xehetasun apurrak irakatsi nizkion, semeak aipatzen zion Migelin artzainaren lokalizatzeko nuen ahalmena, behereko emazte gordinari luzatu nion galdera, Perikok tiro-poligonoari buruz eman argitasunak, Bardeetara joateko neukan asmoa.

Sakonki begiratu ninduen:

– Neri ere ez didate txostena ikusten utzi. Pentsa zuri! Nola aurkeztu zara?

– Uritzen Frantziako azkazietarik nintzela erran diet.

Irriz lehertu zen Jason. Uritzek berdinki karkara bat askatu zuen. Mutiko flakoaren ohe kantoi-

nean bermatu nintzen doi bat gaitziturik, ez baitzen irriz zinpurtzeko egoera.

– Oroit zaitez zer gertatu zen gau hartan?

Isiltasunak gelako pareta zurbailak hormatu zituen. Uritzen sohakoan beldurra irakurri nuen. Akidura bat. Mututasuna. Eztikiago berriz, galdea errepikatu nion:

– Otoi, oroitzen baldin bazara sendatua zara Uritz! Gorputzaren artatzea gero, denbora kontua baino ez date...

– Suzko bola bat... Migelin artzainak oro ikusi du...

Begitartea eskuetan kukutu zuen Uritzek. Bigarren elementua ezagutzen nuen eta jada pistaren bat baneukan. Suzko bolarena aldiz, lehentze nukeen entzuten: suzko bola, Argedasko bide zuzenarekin uztartu nuen, eta ximixtaren pare, erabaki nuen erregebide zati hura bederen oinez miatzea, istripu zaharraren hara-honatak zilatzearren. Infernuko auspoen meneko nindabilalarik, erizain lerden eta kexuak kanpo ezarri gintuen Jason eta biok.

Uritzen aitak Tuterara eraman ninduen. Gizagaizoa ilun sumatzen nuen, inkesta ez zelakoz

berak nahi adina aitzinatzen. Justifikatzeko beharrak kiribildu ninduen:

– Ez naiz ofiziozko detektibea: ez daukat adiskiderik poliziategietan, alderantziz, naski. Normalean errazagoak eta sinpleagoak diren aferetan murgiltzen naiz: behi, behor, ardi errebelatu edo ohaide heterodoxak bilatzen, jabe, senar zein emazteen manupean.

– Bai, ulertzen dizut Amaia, baina behintzat egizu ahal duzun guzia!

– Horretan saiatzen naiz.

Autotik jautsi nintzen, kezkaz beterik, Keiles parkearen parean. Baratzean zehar buru-makur nindoalarik, bezperan Beterrin hizketatu Edurne, haur polit eta sotila eskutik zeramala, solastatu nuen:

– Ez dea sekulan euririk hemen?

– Ziertzoaren ondotik bai noiztenka.

– Ziertzoa?

– Bai, haize basa bat, iparretik buhatzen duena.

– Haizi ertzoa beraz!

– Baliteke... –erranez urrundu zen ikastolako andoreñoa, Nafarroa Oinez aipatuaren antolatzeko bilkura batera ikastolara zihoala erantsiz.

Nik anartean, euri xorta epela gogo onez hartuko nuen.

Parke publiko berriko jargia batetan luzatu nintzen. Katedraleko zeinuek hameka joaldiz alegeratu zuten hiria eta pentsuaren biltzen hasi nintzen, Altzaiko apezak erakatsi laxamendu teknikak segituz. Gorputza lasaitu nuen, haragizko ekaiaren izatea bera ahanzteraino, izpiritua hustuz, zeruan errege zegoen suzko bolaz bete artino. Pentsamenduak gainditu ninduen orduan.

Suzko mihiek balakatzen ninduten: Uritzen burumuinetan sartzen entseatu nintzen, baina oihal zuri zabal batek argitasuna itzali zidan. Telepatiako ahalak ahulak zituen nomada bat baizik ez nintzela onartzen nindagoen, mentalki «Joana, bihar Aragoi tabernan, zazpietan» xuxurlatu nuelarik.

Menturaz hobe nuen xendera klasikoetarik ibiltzea, indizeak, sekretuak eta xerkatze-lanak barnatzea, zerbaitetara heltzeko. Ordea, exta-

siatik esnatu nintzelarik, Joanari egin nion deiak harritu ninduen, eta nerener goraki gehitu nuen:

– Ni han haiduru egongo natzain, zer gerta ere!

Jasonek eskaintzen zidan Gaiarre karrikako etxera joan nintzen, ezkaratz-moldeko gela batean aitzineko egunean merke alokatua nuen mendikleta han zegoelako. Orain arteko inkesta guzietan baliagarri izan zaidan tresnari amoltsuki behatu nion. Bizikleta hartu baino lehen, sukaldera igan nintzen, bizkar-zakuan Perikok gomendatu ur eta jatekoak plantatzeko. Alabaina Bardeak lur idorrak ziren, eta kontuz aztalkatzekoak, ni bezalako ‘hiritar’ batentzat. Ehüjarre ez bide zela latzago komentziturik, zakua eskuratu nuen, bizikleta kanpora atera eta ‘partitzeko tenorearen’ zeinukadak nitan joka nabaritu nituen.

Tutera zeharkatu nuen. Ibiltzearekin hazten zen aireak freskatzen eta akuilatzen ninduen. Plaza Berritik Gaztanbide karrikan behera, Iruñeko paseabidera iritsi nintzen eta, handik bazterrak lanetan izan arren, Erromatar Zubiaren sarrera miretsi. Hormetan bizkitartean, atzoko eta egungo herri-borroken herexak irakurtzen ni-

tuen: «Irailak 27 Huelga orokorra», «Bozka HB», beste alderdi politikoen gomitak ere manera berean, bakoitzaren logopean, «Presoak Etxera», «Nuklearrik Ez» eguzki irrifartsu baten azpian eta tindu gorri higatuz idatzi «Desmantelamiento del poligono de tiro».

Maite nuen Euskadiko murruetan, liburu tragiko batean nola, isilarazien eta zapalduen dazibaoen leitzea, oinazearen mila marra zirelako pintaketa gautiarrak, herrialde ttiki baina hain zabal honetako guneak hari uhargiz josten zituztenak. Elkartasun oinarri gordeak hots!

Erriberako hiri nagusia, amorosentzat egokia zela neritzon, zubi gainetik emeki-emeki pasatzean: Txinako auzuneko egunetan, igande arratsaldeetan, axolagabetasunak garaitzen zuenean, hango Zubi-Berri mitikoaren habietan kabitzeko ohitura genuen eta musuen herotsak ibaiaren isuri dudakorrarekin ezkontzen ziren. Zeldari ez nizkion azaldu, orain nereak baino ez eta errealitate minberatik urrunduak ziren oroitzapen horiek. Zeruari so egin nion eta nere itzala bizikletaren aurrean hedatzen ikusiz, ‘minera-

laren garaiak’ bukatuak zirelako segurtasuna eduki nuen.

Lur gaziak antzutu ez duena
Herri honen gogoa, Erribera

–11–

Zaldunen Ejeako bide-juntatik urrunean, Ebro ibaiaren altzoa ageri zen eguzkiaren beroak tapalakaturik bezala. Hiriak eta herriak ortzaizean hedatzen ziren, bizi-hari ahulak marraztuz. Ameriketako osaben sosaz altxatu dorreak –agian aitzineko mauregien otoitzuneen minaret ohiak– ziren eremu ordoki erre hartako punta-gorenak.

Erriberan hurbiltasunaren itxura zeukan urruntasunak, eta alderantziz. Genuen ohizko distantzien hunkimenak arras bereziak ziren gatzaren eta lurraren betiko higamenaren zelaietan.

Erregebide ertzeetan lerratzen ziren, sumendien ahotik nola, Bardea-mihiak, gorri, gorrail, hori eta horail. Ekaiak sutan zirudien: airea hatsartzearren, bizikletan neraman abiadurak doidoia arintzen zituen noizbait magma izan zenaren buhako iraiztuak. Infernuaren zazpigarren zirkuluan nintzen, Danteren konpainian, Uritzen istripua zerk eragin zuen bilatzen, Joana eta Zelda gabe. Ideia horrek tristetzeko partez, lu-

rrertzean Argedas luzatzen miresten nuelarik, are indar gehiagoz aurrera tematzera behartzen ninduen.

Hatsa labur sentitzen nuen. Aspaldi bazen, San Ferminetara etorriz geroztik funtsean, macadam puskak oinez harrotu ez nituela. Urratsaren bezainbat hatsaren samurtasunaren eskasa nabaritzen nuen. Alabaina, ‘etxeko’ mendi eta munho orlegietan barna, ardura euripean, bizpahiru kilometro korritzen nituenean, ongi sentitzen nintzen aski laster, egunean zeharreko aiherkundeak, lehia bekaitzak, bizimin ziztak oro ezabatzen zitzaizkidan. Hargatik, Argedas eskumenean neukalarik, uste nuen ez nuela deuseren premiarik.

Egiaren errateko, ez nekien zuzen zer xerkatzen nuen: Uritzen aitak ‘gobernatzen’ ninduen. Bere semearen memoriaren inarrosteko eta baikorki zeozertara heltzeko xehetasun frango ments nituen. Argedas eskualdean hatz bat kausituko nuelako esperantza banuen, bixtan da, baina agiantza biziki ttikia zen, orain, gertakariaren ondotikako laugarren hilabete honetan. Ordea, buruan neraman galdera ez nuen ihar-

despenik gabe uzten ahal. Halatan, erabakia nuen, behingoz metodikoki aritzea, bidearen bi sahetsen arakatzea, ikusteko, debruen ziruntan bazebiltzen auto-herotsen artean iraganaren hatsartze debekatuaren entzuteko.

Ebro erreka nagi eta zabala ezkerretarik nuen. Noiztenka, uraren azaleko freskurak bereganatzen ninduela ziruditan, kopetan behera, betiletan mila kotera epel, izerdia perlaka lerratzen zitzaidanean. Idorrean landu baratze eta irris elgeetan galtzen nintzen. Hemen omen irrisa xuria edo beltza sortzen zen, eta ni irris-jale amorratuetarik nintzen, partikulazki hainbeste urte Txinako auzunean higatu ondoan. Anartean, hegietarik ur xuhurraren usain lehorra zetorkidan eta haize zoroak airarazten zituen errautsak zintzurrean kokatzen zitzaizkidan. Eztulka hasten nintzenean, ttilikaño bat edaten nuen bizkarreko zakuko botilatik.

Traturrentzat asmatu ipularretik nindabilan, eta Olatzekilako bezperako hitzetaz gogoratu nintzen. Harridura agertu nion emazteari:

– Erriberan, laborariei pentsatu dute bidearen egitean! Ez da horrelakorik oizu gure eskualdeetan!

– Amaia! –txokatua ahozkatuz moztu ninduen Olatzek, irriz karkazailka lehertuz eta segituz–: Begira Amaia, traktoreentzat dela idatzia da noski, baina gerla-hegazkinen pausatzeko pista bat da hori!

Egiatan, une horretan oso inoxentea sentitu nuen neure burua, eta Bardeetako tiro-poligonoa hurbil izatean, bai ageri zen, Argedasko bidea aireportu erosoa zela armadako arduradunentzat.

Olatzek erantsi zidan:

– Nafarroako autopistek ere beharrean helburu berdina daukate.

Zeru geldoaren urdintasun ankerrak bildu zidan izpiritua, eta bizikleta bulkatzen nuen arau eskaera eroak nahasi ninduen: abiadura handian zebiltzan beribilek sekulan lurreratzear zegoen hegazkin militar bat kuskatuko balute zer? Uritzek aipatu suzko bola hura phantom bat izan balitz?

Mutiko gaixoa ez zen zorigaitzez ezertaz oroitzen, eta nik ez nuen pilik balio sekretu militarra-

ren zigilupean jarriak ziren aferetan. «Banu, Balego Ta Balitz» xuxurlatzen nuen, militarrak ez nituela asko maite gainera erantsiz.

Ortzetik sua zarion Erriberari. Suaren inguruko hitzak zirela medio, sutu, erre, kiskaili edo ikaztu elementuak bilatzekoak nituela onartzen nuen ondorioz: bide ertzeko belar, harri, zuhaixka, erro, xingila, ondo, hosto, buztin-mokor eta gaineratikoetan, suaren markak hots. Seinaleak. Ez beste munduko altxorrik. Aitzinatzea zedarrituko zidan zerbait. Ate bat. Leihotxoa gutienez.

Argedaserainoko azken kilometroetan oinez nindabilan. Zeozer bitxi harrapatzen nuelarik gelditzen nintzen, bizikleta nagiki aurdikiz; lurra eta belar idorrak eskuz orraztatzen nituen, erredura errauska. Hastapeneko meta susmagarrietan ardura, Bardeetan motoz edo 4x4ez ibiltzen zirenek botatu aluminiozko Coca-Cola kaixatxo zangopilatuak, pik-nik hondarkinak, zein zigarreta erdi-suntsituak kausitzen nituen. Orohar, Ama Naturak urteen botereaz baizik irensten ahal ez zituen perrexakeriak.Horrela joan zen nerea, Argedas hiriaren sargiaraino; han, itzulikatu nin-

tzen, eta aldi hartan, Ebro eskubian neukan, Tuterarantz isurten.

Uzta oraindik mehea izan arren, ez nintzen desesperatzen. Basamortuko Zuhurren eleak zerabilzkidan gogoan dantzan, eta ez baldin banuen ezer atzemaiten Tuterarako bide-sahetsean, Migelin artzainak nolazpait argituko nindukeen.

Espero nuen Migelin ez zatekeela Agata Abadearen idurikoa, honek hogeita hamasei hilabetez ahoan harri bat atxiki baitzuen, isiltzen ikasteko. Kanpoko bero erraldoiak izpiritua moteltzen zidan eta kontestutik atera solasek burua kilikatzen zidaten: Poemen abadearen ateraldiak freskura amiñi bat zekarkidan. Poemen kideekin hizketan ari zen eta zion abadeek zenbait gaietarik urrun egon behar zutela, libertatea jastatzearren. Dizipulu izerditsuak galdetu zion: «Zein dira bada?». Zaharrak ahoan bilorik gabe ihardetsi zion: «Bizimodu erraza eta debaldezko ohorea partikulazki». Serapion zelakoaren metaforak ere harrotu zidan gogoa: «Norbaitek toki batean bizi nahi baldin badu, tokiko egoeraren ho-

betzeko xede barik, arbol eiharraren pare, lurrak leku hartan bizitzea ukatuko dio».

Zilarrezko aditzek labaintzen ninduten, eguzkiaren eraso jarraikiak bezainbat. Ez nuen aurreratzeko atzakiarik harrapatzen eta zuhurritz arraroak nahastekatzea zen orduko nere egitekoa. Pentsamendua errealitatera ekarri zidan Ebro ertzetik pasatzen zen trenaren herots hantuak. Harritu nintzen, alabaina Serapion eta ermita sibaritoen konpainian autoen zaratak ahantzixeak neuzkalako. Basamortuz beterik nindabilan.

Zeruan ekia eguerditan zegoen. Traturrentzat egokitua zen ipularrean, irris elge ureztatuen parean hain zuxen, asto batekin zebilen laborari konkortua gurutzatu nuen. Tuterako Plaza Berriko hura bera? Zena zela, aurpegia beltzaran eta ximur zeukan, eskuak zainart eta gorputzez zabala zen. Karroan, kuiaz, alkatxofaz eta esparragoz mukurutu mimenezko sareak zeramatzan. Zigarreta lodixka bat zeukan ezpainetan tilingo. Agurtu ninduen:

– Hola!

Agurra nolahala itzuli nion. Astoaren traka-traka urriak urruntzean, gizonarekin ez gehiago mintzatu izanaz damutu nintzen. Begiz segitu nuen eskipaia berezia ttitta ilun bilakatzen eta tristura latzak kateastaturik, erran nuen nerener:

– Hara, Europako Ekonomi Elkarteko teknokratek ahurraz errastatuko dutenetarik bat...

Bihotzean doluaren antzeko zerbait hazi zitzaidan. Militarrak, poliziak, teknokratak bixtakoa zenez ainizten ziren eta gisa horretako nekazariak desagertzen. Errentabilitatearen kuotetara heltzea erdiesten ez zutelako. Hariaren hertsitik ni ere konturatzen nintzen, goiz zapalgarrian efikazitatea etsai neukala. Jason Gonzalez de Mendaviak, menturaz, hobe zuen beste norbaiten kontratatzea.

Mundua mugaren bi aldeetan itzaltzen zihoala niolarik, oinaz kuskatu nuen arte-erro batetarik airatu zen errauts beltzak banpez geldiarazi ninduen. Bilatzen nuen seinalea, atea, leihotxoa ote zen? Arte xumea lurretik atera nuen eta eguzkitara begira geratu nintzaion: erredura ez zen naturala, suaren eragina nabaritzen nion, eta suak egurra nola suntsitzen zuen banekien.

Etxean, neguko argi zirrinta karroindatuetan suaren piztea tokatzen zitzaidan noiztenka: labean, Euskaldunon Egunkariaren orrialde batek eta xirminduek osotu ohantzean buxkak metatzen nituen, egur eskailak gero, eta sutzen nuen guzia alegeraki, surik ez zegoen garaiei ebatsi unearen sentsazioarekin. Arte umeak erredura berdina pairatua zuen.

Kukubilkatu nintzen erroak jagoitik kanpoan zeuzkan zuhaixkaren ingurumenean: belar idorrak hazi ziren baina doi-doia ikaztu lurra gordetzen zuten. Harri mokor gottor baten gainean jarririk, bizkarreko zakutik gunearen karta ilki nuen. Lekuari izena eman nion: Rincon del Salado edo, nere hizkuntzan, Gatzagia.

Xendera batetarik abiatu nintzen laster, ubide geldoaren urrina usnatuz, erredura noraino hedatzen zen mirazkatzeko. Halatan ohartu nintzen, eremu zabal batean bazirela suaren musuen aztarnak, ihi punta eta banbutze amilduetan adibidez. Barneratago, metal zati kiskailiak bildu nituen, dirdiran, nixtan, leun, denboraren higadurak ausikiak. Eskuratu puskak zakuan

sartu nituen, zer gerta ere, agian indize baliosak zirelako.

Ebro hegiraino jarraiki nuen, belarretan huxtuka, sugeen beldurrez. Ikara hotza sentitzen nuen larru-gainean. Lotsa gatik aitzina nindoan eta erreka agorra zeharkatu nuen, oihal zati bat harrapatu ondoan. Bergarako sotoan, buztinean kokatu oin-hatzak irakurri nituen. Iduri zuen, eta idorteak horretan laguntzen ninduen frango, norbait ibili zela xahatzen, aztarnen ezabatzen, ikatzak eta odolak juntaturik sortzen zuen ekai arraroaren gordetzen.

Bozkarioz egin nuen erregebiderainoko aldea. Ideiak buruan elkar joka ari zitzaizkidan eta burbuilaren jabaltzeko, oroitu nintzen, Bergarako Sotoan izan zela zentral nuklear baten plantatzeko detsa, Ebro ibai hegian justo. 1979ko maiatzaren 19an, Tutera, Argedas, Baltierra, Kadreita eta Kaskanteko auzapezek testu amankomuna agerrarazi zuten. Perikok bezperan erakutsi agiriaren zatia neukan kasko-zokoan baltsan: «Nos pronunciamos para la paralización del proyecto de central nuclear en el Soto de Vergara» zioten lehen partean, ausartziaz be-

zala segituz: «Pedimos la desaparición del polígono de tiro de las Bardenas y el aprovechamiento de sus posibilidades agrícolas». Zentrala ez zen eraiki eta tiro poligonoak berean zirauen.

Bakardadeak zoriona areagotzen zidan. Urrats bakoitzak mundua biribilketa zoroan bultzatzen zidala onartzen nuen. Egoera horren maitalea nintzela nola uka? Puskilak bizkar-zakuan, Argedasko bidera hurbildu nintzen, Erribera Queensland zelakoaren parekoa zela imaginatuz: indigenen lehien aurka ari ziren han eta hemen berdinki, militar guneak, zentral nuklearrak, airekoen lurreratzeko egiturak, gasodukto-ak, aintzirak eraikiz, jendeetaz kasurik egin gabe. Aurkariak kalitzen zituzten denetan, edo bortxaz isilarazten, publikoaren begietan desbaliostatzen, borroka zuzenen muinak xurgatuz. Zenbaitek kondatzen zuten, Australia barnealdeko bushak zilatzen zituzten autobideetan kabale –kanguru, walabi, emeu edo nandu– bezainbat aborigenar lehertzen zituztela, gauez gau Midnight Oil taldearen soinuak entzunez zebiltzan kamioi gidariek.

Amets Arotik jiten zitzaidan laguntza eskertzekoa nuen, belar baten tinian ttantta gorriska bat ikusi nuelako, sohakoa apaltzean: odola, odol xorta idortua. Norena zen? Sakelako mokanesaren pleguetan erreposki kabitu nuen agian indizerik emankorrena zatekeen ‘gauza’. Segur nintzen istripuaren lekua harrapatua nuela. Hemendik goiti istripua zerk eragin zuen zehaztea neukan helburutzat. Migelin behar-beharrezkoa nukeen.

Iduritu zitzaidan bapatean bide-sahetseko uzta hobe nuela hor berean uztea. Alde batetik, arratsaldean Bardeetan zehar bidaiatzearren egokiago zen, arin ibiltzea; eta bestetik, seguritate aitzakiak kausitu ninduen aspaldiko partez. Orduan, erregebide bazterreko lur harroan zilo ttikia egin nuen eta ‘gauza’ denak han ehortzi nituen, biharamunean xerka etorriko nintzelako xedearekin. Oroitarri gisa, behialako arte-xume errea berriz landatu nuen. Mokanesean neukan belar-odol-ttantta ordea sakelan atxiki nuen.

Jason Gonzalez de Mendaviari bihar emanen nizkion indizeak oro, eta bereziki odol-ttantta,

medikua zenez gero ahal bezain laster azter zezantzat.

Gogoeta baikorretan nindabilan artean, haize beroen eremutik ateratzean eta VTTa lurretik altxatzen ari nintzelarik, Nissan Patrol bat gelditu zen nere parean. Barrutik guardia zibilak zirela sumatzen nuen lau gizon jautsi ziren punpean eta armak eskuan inguratu ninduten:

– Alto! Que haze tu aqui?

– No konprendo...

Saldoaren nagusia zirudiena hurbildu zitzaidan. Papotik lotuz inarrosi ninduen:

– Todo dizen ezo! Dame tu bolsa!

Bizkarrean zintzilikan neraman zakua luzatu nien. Agiantzen nuen hargatik, ‘indizeen’ ehorzten ez nindutela kukuskatu. Karta bat, ogitarteko bi eta hiru pinta ur: ez zuten besterik atzeman zakuan. Batek armaz gogorki bultzatu ninduen:

– A onde vah?

– No konprendo!

– Pueh... No te quedah en eze zitio: tah prohibido...

– Bale –ihardetsi nielarik, zenbaiten begiak biribildu ziren.

Armek eguzkitan eskaintzen zuten dirdira mehatxagarriaz oroituz, bizikletaren gainean jarri nintzen, ikaran, dardarka, zakua sorbaldan. Argedaserantz hartu nuen, han baitzuen erregebideak Bardeetarako xendera mandrunaztatua juntatzen.

Zango-sagarrak dildilka ari zitzaizkidan. Nissan Patrolak pasatu ninduen handik laster eta ezin niron esplika zergatik agertu ziren guardia zibil haiek nere 'bizitzan'. Bazekitena zer bilatzen nuen? Nonbaitetik jakin behar zuten alabaina? Batez ere indar errepresiboen partetik ez nuen menturaren ahalmenean sinesten. Edo euskaldun askoren moldean amiñi bat paranoikoa nintzen. Historiak gintuen paranoiko bihurtu: hein batean geriza bat zen.

Beldur inkontrolatuaren antzekoa sentitzen nuen buruaren zokoan. Anartean eguzkia sartalderantz zihoan, zerua urdinago eta garbiago utziz. Errautsaren erresuman nintzen.

Ortzean, zirurikan, kezka izpirik gabe, zikoinak edo amiamokoak miretsi nituen. Hegaztien miresmenak, beti bezala, lasaitasun apurraz sosegatu zidan bihotza.

–12–

Bardeetarako bidea hartu nuelarik, errautsa zarion mendi-bizikletari, bihotz-zarrasta bat jasan nuen xume-xumea –ttume-ttumea gure eskualdean erraten zen moldean–: ingurune idorra lehen begiradan berean maite nuela onartzen hasi nintzen, Su Ta Garren kontzertutik landa kanpora Zeldaz amoros tipil ilkitzean bezala. Erriberan eta Tuteran neramatzan egunetan, amodioren estirek oroitza zurkaizten zidaten. Sekretu ahalgegarria bailitzan, iragana ikertzeari ekin aurretik, Banko Zentralaren aitzineko telefono kabinatik deitu nuen Zelda. Behingoz etxean kausitu nuen.

– Zelda, azkenean...

– Zure lizentziamentü gütüna jin düzü atzo!

– Ez düzüa berri hobeagorik? Nola zira? Zer ari zira?

– Txingalet! Bospasei egünez ez ditazüt telefonatzen eta orai, oro jakin nahi!

– Eta-bai... Hanitx maite zütüt...

– Hara! Bestea! Behar zütüta sinetsi?

– Zerentako ez?

Isilunea hedatu zen. Zeldaren ahotsa leunagoa bilakatu zen eta lanean segitzen zuela kondatu zidan, asteburuetan bakarrik festakari abiatzen zela –egia zena?–, lizentziamentü letra berak sinatu zuela nere firma ziminokatuz, Pasteur karrikan ireki berri zen euskal-girgil magasin batean izugarri ederra zen Lamina erosi zuela, salamangeko armairu gainean ezarteko. Arras ontsa antolatzen zela ihardetsi nion.

– Zonbat pakatü düzü Lamin hura?

– Aski kario bai, bena zinez polit düzü.

– Ehemmmm...

– Aurten Lamina paketa saltzen omen dizüe. Üdatiarrak errabiatürik dütüzü gisala. Heben gainti eginik direlakoz mentüraz.

– Tipikal bask produkt.

– Tzai fite, badit gaüza frango zuri salatzeko!

– Jorran euntsiko gütüzü ordüan orano ere! –erantsi nion irri gogoz, eta entzuteak plazer eman zidan algara handi batez agurtu ninduen Zeldak.

Ez nuen urruneko neskaren izpiritua Joana Garaldaren presentziaz –hobe, ausentziaz– na-

hasi, are gutiago arduratzen ninduen Uritz mutiko gaixoaren istripuaz. Geroko solasak segurtatzekoak ziren halatan.

Gorago azaldu nuen bihotz-zarrastaren oinarriak ikus nezakeen ingurumenak eragiten zidan baiki, baina hondar asteotan gurutzatzen ez nituen jendeen mentsa hobendun zela neritzon berdinki. Sentimenduen hutsune erraldoia betetzen zidaten Bardeetako itxura neretzat ezezagunek. Zeldarekilako hitzak buruan harilkatzean, errealitatean eskas neukan freskura piskana-piskanaka bermatzen nabaritzen nuen.

Airea epeltzen ari zela ohartzen nintzen ondorioz. Garagarrez, ogiz eta irrisez landatu zelai horailen ertzetik nindabilan. Haur-denborako usainak ekartzen zizkidan haize arinak, etxeko elgeak oro galburuz estaliak zirenekoak, ogia igitaiekin mozten, ezpalkatzen eta gero selauruan edo soiluan bihikatzen zutenekoak, izerdia errautsarekin biltzen zeneko usain eta urrin altxagarri denak.

Eta hor, Bardeetan, Pako zelakoaren ondotik, kasko-zokoan zerabilzkidan, eguna lanean emanik, idiak uztarrietarik solteturik pausa-galdez

marrakan, ezkaratzeko mahai zabalaren luzadan, orain mundutik itzaliak zirenen ahots, kantu, arraileriak, gorpuzkerak eta izakerak, amak adelatu oilo-salda deliziusaren hurrupatzen. Nafarroako basamortuan argi zegoen naufrago kolektibo urragarriaren lekuko soila izan nintzela. Horregatik agian arrunt sortu zen Barde-hegien eta neure bihotz-sahetsaren arteko junta, betikoa bailitzan.

Begiek urrun jartzen zituzten miresmenaren zedarriak: urtegi erdi-agortuak agertzen zitzaizkidan eta zezen saldoak alhan edo hausnarrean zenbatzen nituen. Bapatean, oilo-saldaren eztiak zilegiturik bezala, erregebidea xendera hertsi eta hausdun bihurtu zitzaidan. Antenaren gisako metalezko haga xuri-gorri bat begimendu nuen ortzaizean, munho geometriko higatuaren maldan. Bizkar zakuan neraman mapari behako bat bota nion eta toki hari zihoakion izena irakurri nuen: «Polígono de Tiro». Taupadak basatu zitzaizkidan eta Argedasko bidean guardia zibilek larderiatzean nola, beldurra golkoan hazi zitzaidan.

Ordea, ekai neurotropeak irensten nituela imaginatu nuen, lotsaren zein angustia orokorraren ezabatzeko, ezeztatzeko, Afrikako Ugandako Akolistar gudari bilaizen antzera, Alizia Lakwena sorginaren sukaltarau bereziari esker. Honek ahuntz odola, olioa eta droga natural purruska bat nahasiz edari gozoa kozinatzen zuen, Errebeldia eramaten zutenei gero eskaintzeko, minik senti ez zezatentzat. Ahuntz odolik ez neukan eskumenean, bideko errauts ausarki naski eta pentsamenduaren indarraz emeki-emeki izua airatzen zitzaidala onartu nuen. Justo Poligonora heltzeko debekua idatzia zen tokian nindagoen orduan.

Hortik, Bardeak itsusten zituen OTANeko ‘kanpamendua’ hobeki azter nezakeen: aipatu munho geometrikoaren maldan etxe zuraila zegoen eta hagaren itzalean beste eraikuntza bat. Bizkitartean eguzkiak balakatzen zituen aterbe eta kontrol-dorreek egokiak ziruditen altzairuzko eta hari-sintetikoz osotu hegazkinentzat. Debekua errespetatu nuen, zer gerta ere, eta bizikleta iparrerantz bultzatu.

Bardeak beren handitasun argitsuenean jaukitu zitzaizkidan. Hedadura erreak zapaldu ninduen eta buztin pikor bilakatzen sentitu nintzen. Zerua, urdintasun ikaragarriarekin eta lurraren gorrailarekin ezkontzen zen, alegeraki, gauaren etorrera ahuspez ospatzeko bezala. Xendera, erroitzen artetik nagitzen zihoan, idortasunaren menpeko. Erroitzen ohantze umiletan, berde-ilunez jantzi landareak bereiz nitzakeen: arte ttikiak, sarasak, sabinak eta ezkai-ondoak. Zirrizta batez ihes zebiltzan suge eta untxiak harrotu zituen bizikletaren hurbiltze herotsak. Bardeak huts amestuak nituen, eta hara non, bizi xehea harrapatzen nuen, lurraseko hatsa, errauts lehorren eta sekula gelditzen ez zen higadura urriaren mendean.

Baratu nintzen. Arratsapal kiskailia usnatu nuen. Mila usain biribilkatzen ziren unean, mapa-ren arabera, Erroitzandi edo Sakanandi gunea sahesten ari nintzela baimendu nuen, gaua osoki jazarri baino lehen Zarrakaztelura heltzeko xedearekin. Lur eta harrizko tutur luxe batek gatibatu zidan behakoa, galanta, graziosa, librea eta askea ematen zuen tuturra «harri zabal batez

estalia» zen. Tuturraren holtzetan behera, ur erauntsiek urtean behin edo berritan zilatzen zituzten arroilak ikusten ahal nituen, larru-azalean zahartzeak urratzen zituen zimurduren gisa.

Artizar garaizak eta ilargi-marra zehargiak bete zuten ortzea. Gauaren agurraren haiduru zeuden kabaleek bideak zeharkatzen zituzten, larraitzen pozgarri. Saras, tamarindo, ezkai eta arte ñañoen urrinak nahasten zirenean, erresiñola kantan entzun nuen, urraken, huntzen eta pika-beleen hegaka ausartek zerua udalatzen zuten bitartean. Ilunabarrean, ehun bizi-nahikundez aberasten ziren Bardeak, kabale eta hats-iturri bakoitzak bere eguneko aixolbeak abandonatzen zituen momentuan hain zuzen. Ez nintzen gehiago bakarrik. Munduarekilako loturaren sentimenduak botzik utzi ninduen, eta kuskandela baten harri mazelako lerrakoak zoramena baizik ez zidan eragin.

Tiro poligonoa inguratzen zuen eremuaren hegietan «Prohibido - Zona Militar - Bombas» irakurtzen nuen, baina bidean aurrera nindoan. Urrunean, hondar eki leinuru eslaiak, artzain batena zitekeen txabola bat argiztatu zidan. Berant

nintzen eta ordu hartakoz banekien, ez nintzela sekula Zarrakaztelura helduko. Gaua, erroitz edo pentoka urriko holtz baten maldan iragaitekoa nukeen. Hargatik txabola gertu neukan.

Bardeetan bitxi zitzaidan hurbiltasunaren eta urruntasunaren arteko jokoa. Nere herrialdean, urrun zena ardura mendiaren bestaldean kokatzen zen eta hurbila zenbait urratsetan doi-doia. Hemen aldiz, edozein lautada engainagarria suertatzen zen: kilometro batetan zirudiena, errealitatean bospaseietan zegoen. Hatsarrean galdurik nindabilan, baina distantzien ñabardurei ohitu nintzen, eta gero ‘etxen’ bezala, are etxeanago, haize epelduak ardi-marraken oihartzuna ekarri zidalarik.

Migelin artzaina atzemanen nuen, eta Migelin bera ez baldin bazen, Pako, Perikoren erranak egiaztatzen baziren behintzat. Arratsaldean barna bildu elementuen ondotik, gaur beste bat neretuko nuen. Inkesta luzea eta monotonoa zen, baina aitzinatzen nintzen, espantu ainitzen erresuma debekatua ukan arren.

Piskerra berdinki tutur bat zen. Tutur zabalago bat. Han, hartu nuen oraino iparrerago zihoan

xendera, eta aspaldian begiztatua nuen txabolaren parera heldu nintzen. Ardi urrin bero eta bortitzak inarrosi ninduen. Inguruan ez nuen ordea ardirik zenbatu. Txakur zaunka ahula hauteman nuen. Argi bat piztu zen eta olhatik adineko gizon zarpaila jalgi zitzaidan, kezkaz kordelaturik:

– Ze nau zu?

Ez nion lehen xixtan ihardespenik eman. So geratu nintzaion. Boneta gurintsua buruan zeukan, galtzak zilo eta handiegi, atorraren mihiak kanpoan eta gerrikoa ‘artzain amerikanoek’ Nevadako larraitzetan lanean ibilirik, Ezterenzubira edo Lekunberrira itzuli aurretik Las Vegasko aireportuan erosten zituzten haietarikoa zen. Gizona, Pako agian?, mirazkatzen nuen artean, Migelin zelakoaz galdetu behar niola oroitu nintzen:

– Hemen gaindi dea Migelin artzaina?

– Zer nahi dakozu?

– Harekin mintzatu, soilik.

– Etzu hamen. Nik udara Bardenastan igaroten zit, bena hua Uxuen zu orai.

– Uxuen?

Harri mokor baten antzera nindabilan, leku batetik bestera, eta gizona zakurrari hupaka ari zitzaiola, Uxue are iparrago zela onetsi nuen kartari begiratuz. Anartean, Perikoren errana baiestea lortzen nuen, gehiagorik ez ordea. Gizonak, nere ezinegonaz oharturik botz leunagoz, kafearen hartzera, txabolaren aterbera gomitatu nindu en.

Berogailua piztu zuen eta kazola higatuan zegoen isuri beltza epelarazi. Txabolaren egurrezko hormetan argazkiak ikusten nituen: Pako zegoen Bardeak baino latzagoak ziren larraitzetan argazkitan katibaturik. Mojaveko desertua itxuratu nuen, Tahoe aintziraren ezpain biribilak eta Nevadako, Koloradoko nahiz Arizonako basamortu damugabeak. Herots metaliko elkorrak Amerikak mahairatzea debekatu zidan. Gauaren isila nahasia zen. Zer ote zen azantz xixtukari hura? Kikera zaharkitua ahoratzean Pakori eskatu nion:

– Zer da zarata hori?

Pakok ahal bezain lasaiki ihardetsi zidan, airekoak, aireko amerikanoak zirela; Bardeetako ilunabarrak ihalauskatzen zebiltzala noiztenka. Segitu nuen hizketan:

– Uste nuen ez zutela gauaz hegaldatzeko eskubiderik?

– Nahi doena eiten zoe armadakoek. Agitzen zoe baten baten lehertzea, bena...

Gogoratu nintzen, ikatz-kafea desgostuz hurrupatzen nuenean, molde beran, Berrogaine-Lahuntzen zalapartatu zen Mirage zelakoaz. Bildozetik, Lanbarren gaindi airekoa begiz jarraitu zutenek suzko bola baten zirrizta ikusi zutela erran zuten, eta Laborantxa eskolara joateko bidearen zolako juntan izartu zelarik, banbako handi baten ozena hauteman zutela. Zenbaitetan ere, arratsaldeetan, aireko militarren hots zizkolatsuak karrikako autoenei gehitzen zitzaizkien. Halatan, eta biderkaturik, imaginatzen nuen Bardeetako eta Erriberako egunerokotasun landderrez betea.

«Suzko bola» zela erran zutena?

Uritzek ere gauza bera errepikatzen zuen Tuterako ospitaleko bere gelan, jasaten zuen amnesiko egoeraren zimizta-une bakarretan. Agian suzko bolak zuen erre, nik istripuaren lekutzat jotzen nuen eremua. Behar nuen ildo hori zilatu eta nolazpait erein. Izpiritua josi nuen: gaua zen

orain, zeruaren urdintasun sakonak baimendu arren ez nintzen luzarako ibiltzeko gai lurralde ezezagun eta mehatxuz hantu honetan. Bihar, Uritzen aitarekin egotekoa nintzen derrigorrez; Uxueratzeko autoa mailegatuko nion, edo menturaz Aragoi tabernako eguteran harrapatuko nukeen Joanarena har nezakeen.

Pako eskertu eta agurtu nuen. Bizikleta lurretik altxaturik bideari lotu nintzaion, argizahagiak itzalak meharragotzen zituen tenorean. Hiru oren laurdenen buruan, Bardeetako xenderahilen sahetseko maldetan lo egitea erabaki nuen, alde batetik oso akiturik nintzelako eta bestetik Judu tutur eta Kornialto deitzen ziren lekuak ahalik iparren zirelako neretzat. Ortzaiz zilarrean harri xut erraldoia agertu zitzaidan, eta behin Perikok azaldu harri-tailua zela sumatu nuen: 1992an eraikia izan zen Bardeetako artzainen omenez, Erriberaren partez.

Maria Cristina Aznarez Urzainqui Burgin sortu ama-familiakoak idatzi eta Iruñean argitaratu Romanceroetarik bat neukan gogoan, jota moldean abesteko gai:

Por los montes de Melluga
Y el alto de las Coronas
Los pastores roncaleses
Pasan hacia las Bardenas.

Aznarez Urzainqui andereak bere aitari eskaini zion pretensiorik gabeko olerki bilduma hitz amoltsu hauekin: «Dedicado a mi padre, prototipo del pastor roncalés y bardenero, caminante de cañadas, bardenas y puertos». Larrainetik Bardeetara urratzen zen bide-kide bihurtua ninduen Uritzen istripu zentzugabeak.

Gelditu nintzen. Holtz baten magalean, amalurraren umeontzian bezala kukubilkaturik, ahamen bat jan nuen eta gero, gaueko ohantzea apailatu, ilargi argitan. Harriskak metatu nituen, lurretik hamar bat zentimetroko goratasunarekin, sugeen kontrako harresi moldean. Eta barne gerizatu hartan lo-zakua hedatu nuen.

Aire epelak aurpegia ferekatzen zidan. Eskuak biloetan pasatzen nituelarik, errautsa lohitzar bilakatzear nabaritzen nuen. Zikina nintzena? Ala lurraren puska ezindu haietarik?

Bizkitartean, gauaren erdiko oihartzunak biderkatzen zituen argizeitu zilarrak, amodiozko solasetan zebiltzen huntzak eta kahakak hainbat non zeruko izarrak zenbatzen hasi nintzenean, oso primitibo sentitu nuen neure burua.

Bakartasuna aldi honetan ugaritasun zoroa zen. Azkenean, hustasun mineralean ez nuen zinez deuseren beharrik. Bazen aspaldi ez nuela kanpoan lo egin, eta zoriona, maitasunaren iduriko zorion eroa nitan hedatu zen, amaren oilosalda gozoaren maneran. Zelda eta Joana ni bezain irus espero nituen.

Ohantze nerearen minean, artzain eta kanta bideak biltzen ziren, altxor.

–13–

Zeru izartsuari begira geratu nintzen. Behialako zorionaren ziztak mendratzen zizkidan, egiaren errateko, gaua bakarrik eta kanpoan iragaitearen beldurraren zimiztak. Egunaren bildumaren egiten saiatzen nintzen: Pako gizagaixoak Perikok Migelini buruz salatua baino ez zidan errepikatu, eta derrigorrez Uxuera joan behar nuen. Biharamuneko traholak zerrendatu nituen, eta bereziki gogoan hartu nuen Argedasko bide hegian kausitu ‘belarrari eratxeki’ zitzaion odol ttantta idorra. Jason Gonzalez de Mendaviari emanen nion, azter zezantzat, norena, noizkoa eta nolakoa zen jakitearren. Aldi berean, guardia zibilen galdezketatik salbatu nituen gaineratiko elementu ehorzi haien neretzeko asmoa ere baneukan.

Bizkitartean, eta Uritzen istripuaren gaia amiñi bat baztertuz, ortzearen biribiltasun urdinsakon ilunak bereganatzen ninduen bekaizki, hainbat non izarrekin begi-kliskaz jostetan hasi

bainintzen. Apailatua nuen ohantzean luzatu nintzen.

Mila oroitzapen jin zitzaizkidan buruhonaren kilikatzera: ttikitan, adibidez, amaren hitzei jarraituz, uste nuen izarrak lurrean zendu jendeen arimaren argi dirdiratsuak zirela, eta orduan pentsatzen nuen zeru beltza bezain leku egokiagorik ez zegoela, herioak hazi gabetasun larraitzaren gerizatzeko. Oraindik halako zerbaitetan neukan fedea, iduritzen baitzitzaidan heriotza memoria biluziaren iturburua zela. Aterbe mineralaren ‘bluiak’ kiribilkatzen ninduen eta aspaldiko izarretaraino heltzeko xedeak ez nindukeen sekulan abandonatzen. Bardeetan ibiltzen hasiz geroztik, ontsa ohartzen nintzen, zeru eta lur puska baten premia baizik ez genuela, soa, mihia eta oin-parea erantsiz. Hortik harateko guzia debaldezkoa zen.

Ametsaren bideak, Erronkariko artzainen xendera ebakitzen zuen gunean nindagoen. Golkoa bete zidaten Perikorekilako solasek eta Tuterako patio epelean irakurri liburuetako zati usaintsuek. Perikori galdatu nion zein moldez ziren Pirineo mendietako ardidunak, Bardeetara

aziendekin hurbiltzeko eskubidedun. Periko ezin isildua zen:

– Bardeak errege-zelaiak ziren lehenago, baina emeki-emeki, Nafarroako jabeek zabaldu dretxoen arabera, eskaini zerbitzuen trukean, Erriberako hemeretzi herriek eta Olivako monastegiak erabil zitzazketen. Zaraitzu eta Erronkariko haranek eskubidea gerletan eman laguntzagatik erdietsi zuten: Erronkarik 882an Antso Gartziaren manuz eta Zaraitzuk 1504ean, Joanes eta Katalina Nafarroako erregeen baimenez.

Zeruko izarren bidea bezain zaharragoa zen ildotik zetorren beraz Migelin Otsagitik Bardeetara, hirurehun ardirekin, oro marraka, oihu, zalaparta airos, haize hegoaren kidegoan. San Migeletan –irailaren 29an– abiatzen ziren zazpi egunen bidaiarako eta ekain hondarra arte egoten errautsaren erresuman. Alharoan, hirurogeita hamar mila ardi, axuri eta atzar kontatzen ziren Bardeetako eremuetan.

Otsagitik Zarrakaztelu artinoko ibilaldi mantsoa itxura nezakeen, Orhi edo Belagoaren maldako larreetan hasirik, Koroak portuan barna, Iesa, Xabier eta Zangotzan behera, Zarrakazte-

luko lepotik Bardeetan sartzeko. Neguan zukeen Uritzek Migelin gurutzatzen Piskerra edo Landazuria aldeetan. Hainbatez Gonzalez de Mendavia medikuaren semearen istripu bitxiaren lekuko Migelin izatea ahalezkoa zen. Zein heinetan ikusi zuen ‘zerbait’ Migelinek?

Uritzen planta latzak ez zidan gehiegi nahasi artzain-bideetaz neraman gogoetatze erromantikoa. Imaginatu nuen Nafarroako ekialdeko ertzea bidaiariz, artzainez, gerlariz mukuru: ilada etengabeak, sinesmenen edo sosaren izenean. Alabaina, artzain-bideak ez ziren Bardeen mugetan gelditzen. Bardeak berak xendera ugariz udalatuak ziren: Erronkarikoenak Bardea xuriak eta beltzak juntatzen zituen, Aragoiko Tauste herriaren bihotzeraino. Argazkitan behin miretsia nuen Tausteko XIII. mendeko dorre mudejar arros-iranjak bildu zidan pentsamendua. Hasperen batez, ordaindu bakean ziharduten mauregien, juduen eta euskaldunen Erribera hura egiaztatu zitzaidan. Artzainak zirena jendalde desberdin horien guzien lokarriak?

Erribera zen alhagia erraldoian sahets bideak ere aurkitzen ziren, mugimendua are biziagoa

antolatuz. Ziertzo mendietako erretxenderak Zaldunen Ejeara eramaiten zituen artzainak, Korella eta Zentronikotik pasatuz, Tuteran gaindi, Santa Margaritaren lepotik Ejea berdean itotzeko. Taustetik bestalde, hegotik iparrera zihoan bidea Andia bortukateraino zihoan, Fustiñana eta Kabanillasen arteko larre horailetan gora, Kaparroson barna, Larragarantz han bihurtuz, itsasaldera. Xendera xumeagoak ere baziren, baina denak bide-sare nagusietan nonbait eta nolazpait txertatzen ziren.

Ordea, Perikoren arabera, laborariek gero eta murriztenago zituzten artzain ibiltarien bideen inguruko ordokiak, lurra lantzearren, ogiz, irrisaz eta garagarrez ereiteko. Kañadak ere egoera oso txarrean ziren eta interes guti zen bide horien memoria –baratxuri urrinekoa ote?– zaintzeko. Tiro Poligonoaren presentziak eremua hertsatzen zuen noski, eta artzain bardeneroak urrituz joan ziren. Adinak konkortuak agertzen zitzaizkigun gaurkoan ortzaizean, errautsa altxatuz, huxtuka, zakurrari ahots hautsiz manatzen, ardi saldo ttikien gibeletik, denboraren abiaduran aitzinatzen. Migelin, Pako eta gaineratikoak Kain

eta Abelen arteko borrokaren betiko jakileak ziren, koralez koral zihardutenak, eta azken hatsa ematean, ortzeko izar dirdiratsu bilakatuko zirenak.

Artzain-bideak Jota-bideak ere bazirela iduritu zitzaidan. Olatzek irakatsia xuxurlatu nuen, neure kastellano dudakorra baliatuz:

Ya ha llegado Santa Cruz
Pastores a la montaña
A comer migas con magra
Y dormir en buena cama
Ya ha llegado San Miguel
Pastores a la Bardena
A beber agua de balsa
Y dormir a la serena.

Kantatzeak on egin zidan. Ni ere gau-serenaren gozatzen ari nintzen. Burua joare ozentsuz eta ardi-marrakaz hantua neukan. Migelinen itxura bildu nuen: bizkarrean dilindan larruzko zakua zeraman, akuilua eskuetan, gatz poltsatxoa gerrian eta zapela kaskoan. Gatzaren usainak tiriatu ahuntza zebilen alde orotara lehiaka

artaldearen aurrean, gidari gisa. Pentsua urratu zitzaidan: azkenean nihaur nintzen artzaina, ardiak Beletara lagundu ondoan, xehela zerratzean, ardien urratsean urrunago bidearen segitzeko gutizia bermatzen zitzaidalarik. Haurtzaroko ofizio hura ainitz maite nuela aitortzeko gai nintzen Bardeen erdi-erdian.

Zirri-zarra sotil bat entzun nuen bapatean, eta bihotza punpeka jauzi zitzaidan. Pentsuaren urrakoa sarraski handi bihurtzen ari zen: ohantzetik altxatu nintzen, izuak hormaturik. Lurreko errautsetan marra arinak begiztatu nituen: sugea zena? Tutur mihien maldako sasiak igitu zirela iduritu zitzaidan. Handik laster, urrats astun baten herotsak loa ukatu zidan: ametsaren bidetik behin betikoz ateratua nintzen, tragediaren zurrunbiloan behera lerratzeko ote?

Goizeko ordu biak zirela ikusi nuen besondoko ordularian, gero eta nabarmenkiago hurbiltzen ari ziren urratsekin batera, eztul idorren oihartzunak hauteman nituelarik. Ez nekien non gorde. Ilargiaren argitan, mututasunak plegaturik, arropa ilunez apaindu emazte xaharra zehaztu nuen. Zintzurra berriro karrakatu zuen. Neure

ohantzetik hurran, sua piztu zuen ezkai erro lehorrekin. Suaren gainean urez –nondik zeukan ura hark?– bete katilua pausatu zuen eta errauts zilarra bota zion. Nitarik bizpahiru metrotara zeuden sua eta anderea. Bi eztulkada txukoz hausten zuen inguruaren isiltasuna. Ttiki-ttiki egin nintzen, harrien itzalean lotsa ezeztatzen edo behintzat arrazionalizatzen saiatuz. Izpiritua alerta gorrian neukan.

Anderea zutitu zen eta behialako joria kaiku umil herdoildura isuri zuen. Hastamuka neregana bideratu zen, eta amaren sabelean nola –baina garai hartaz oroimen finkorik ez nuen– umeki invisiblez aldatzeko asmoz, kuxkurtu nintzen. Ordea, andereak, huntzen eta gau-ainaren gisa, iluneko bista zeukan eta, justo, bihotza haragitzen zihoakidan unean harrapatu ninduen:

– Oizo, eazo, onzo...

ADN bakarti eta galdu soil egin arren, izotz geratu nintzen. Anderearen botz larrutuak minberatu ninduen. Buruhonaren berrosatzeko prest nituen lau zelulak kolpeka sentitzen nituen. Emaztearen eztul saminek inarrosten ninduten. Jarraitu zuen hizketan:

– Honzo zauretako...

Katilua esku-ahurretan jarri zidan. Edaria bero-beroa zen. Argia izan baldin bazen, kea ikusiko nion, deika. Nahigabetarik, ez nuen alabaina deus kontrolatzen, ezpainak untziaren hegietan itzatu nituen, eta hasi nintzen ur eztiaren hurrupatzen. Arrunt bake handi baten eragina sumatu nuen, bakea, lasaitasuna, arintasuna, giharre, haragi, zain, hezur, muin bakoitzean, azazkal puntetaraino hedatzen. Andereari beha egon nintzaion:

– Nor zara?

– Tzan zie... –manatu zidan andereak amultsuki, eta bertan, lurretik airatu nintzen.

Besoen ordez hegal xuri-beltzak neuzkan eta txori-burua nuela onartzekoa nuen. Gauez gau, mendez mende banindoan hegaka, deiadarka, kantaka, eta urrunetik aditu nituen hil-auhenen heiagoretara abiatu nintzen. Mantalet eta kapeletez jantzi ehun bat jende agertu zitzaizkidan, urrezko hilkutxa baten gibeletik iparrerantz joaki, arras urriki. Otoitzek eta abesti hitsek, zakur hamikatuen zaunkak estaltzen zituzten. Noizetik noizera «Antso gaure rege» hitzak be-

reizten nituen eta dolamenezko hilada, Tuteratik Orreagara zihoala baieztatu nuen nerener.

Ez nekien zenbat iraun zuen gau-txori bihurtu nintzen uneak. Zena zela, iratzartu nintzenean, anderea ohantze sahetsean neukan, isil, ama, haur sukartsuaren ondoan bezala, begitartea ximel eta hauts. Eztul bikoz xahatu zuen zintzurra. Mintzatzear zegoen arren, neure galdera errepikatu nion:

– Nor zara?

– Zuriñe nozu. Nafarrako Regina antzia.

– Zuriñe? Baina uste nuen Villoslada Bianako idazle erromantikoaren asmakintza baino ez zinela!

– Zan nozu ba, lurrik bageko regina. Man drozut earia, ta kusiozu iagana. Altxazo burue!

Akitua hila nintzen. Besoak gogortuak nituen, gorputza arranpaz malgorturik eta, egiaz, neke zitzaidan txori izatetik berriro jende bilakatzea. Zuriñe mintzo zen, sekula entzuna ez nuen euskalki batean. Anderearen eleei idortasunaren gazia usnatzen nien, buztin errauts lehorraren usaina, bakardadearena, bostehun urteko solilokio erraldoiaren dorpea:

– Hitz ohek gaure zotzun. Xin nozu zoreana naure bihotz-minen arintzrat.

– Zuriñe... –ahozkatu nuen etendurik.

Anderea eder kausitu nuen, bere bilozione zilar eta begi berdeekin. Larruazala Bardeen idurikoa zuen: dena arroila, tutur eta pentoka amildu. Negar-gutizia piztu zitzaidan eta ñiñikak bustitzear nituela, Zuriñek elestan segitzen zuen:

– Peraltako kontik Peñaflor gazteloan atxiki noizu. Orai harri ahiek hauts tzo ta Abardenetan nrauzo, hratonka bilki, daus bage, isil ta hil, txirripaz noait atzamango dodan aitzinat xoateko. Regina nintze. Gaure farruskak orreartin gaur, atzo aldiz...

– Antso Azkarraren ehortz-herroka ikusi dut txori nintzenean...

– Ba. Bakizo, Nafarroako regeak ilki zien gerla ta gerla, zirriki-zarraka, larratzak ta mendiardatzak bretu naiz. Osabietan gora, belaitz eta gesaltan barna geo oro gal, muski-muski oro gal.

– Zuriñe otoi!

– Len bertzeik zon hamen: zuhaitz ta hur bazon ausarki gazte nintze denbran; geo arbolak

motz zozten ta basabortu xin zen! Haizi ertzoan buako ahiek...

– Ziertzoa?

– Baki, beti gerla. Ran doizud. Santxikorrota hil zon. Ta tirokai totzu oraie. Zautu bazonu ordunkoa...

Ordukoa preseski, Zuriñek aipatzen zituen garaietan ikaragarria asma nezakeen. Bizitza pilpira hori! Bardeetan biltzen omen ziren legeari ihes zebilzkionak oro, desertoreak, bandidoak, ameslariak eta otoizlariak. Santxikorrota gaiztagile ospetsuenetarik bat zela salatu zidan Zuriñek, ahotsa amodioz hanpaturik, Bereterretxen herio latzaren urteetan, Tuteralde osoa meneko zatxikana. Krudela eta odoltsua zen Santxikorrota. Santxo Rota berez... ihardokitzen saiatzen zitzaizkionekin, eta gozoa besteekin.

Hogeita hamar jendezko saldoa zaldiz bazebilen, ohointzak, bahiketak, suntsiketak eta sarraskiak egiteko. 1452an, Joanes II.ak berrehun soldadoz muntatu armada eraiki zuen Santxikorrotaren harrapatzeko. Bardeetarako espedizionearen karietara, Antsok bere burua setiatua sentitu zuenean, puñal batez erdizkatu zuen

bihotza. Haren gorpukina Tuteran erakutsia izan zen ondoko egunetan.

Zuriñe Santxikorrotaz amiñi bat maitemindurik zegoela sumatu nuen. Emazteak hatsa luzatu zuen. Irri higatu batez erran zidan:

– Kusigo zo, arraxein dra gaure denbrak; zaure ta naure hitz ohek dausren lur baltzeik elkren beitra...

Argia ikastolako haurren oihu eta algarak nituen gogoan, Santxikorrotaren bihotz sangreatua, Nafarroako Erregeek handitasunaren izenean eraman gerlak, gaurkoan jasaten genuen bortxa, justiziaz eta dignitatez euskaldun bizitzeko bakerako esperantz gutirekilako egoera, eta Uritzen istripua. Zeru arrosari beha gelditu nintzen, zikoina goiztiarren hegaldi deliziusak miretsiz. Zuriñeren ukondoa tinkatu nuen:

– Eta Uritz gaixoaren errekontrua Argedasko bidean?

– Emon zot indar ahren argitzeko –xuxurlatu zuen eta nere sahetsetik desagertu zen.

Kate hots mingarriak eta orroa latza entzun nituen. Noaingo batailako sei mila mihi traukatuak ziren orroa horretan biltzen. 1521ean, Nafa-

rroa guzi-guzia, Donapaleutik Erriberalat, armada gaztelarraren kontra oldartu zen eta ekainaren hogeita hamarrean, Nafartarrek amor eman zuten Noainen.

Zinez indar kilikagarria zebilkidan zainetan, Zuriñeri esker. Anderearen azken mantrak abestu nituen, goizaren kolore samurrak Maulera garraiatu nindutelarik:

– Zaure ta naure hitz ohek daustik...

Seiak ziren. Eguerdiko Tuteran behar nuen. Amoros nintzen. Aborigena. Basamortu horailen alaba:

– Daustik...

–14–

Joanak, Uxuera autoz joatea eskaini zidalarik, duda izpirik gabe, baietz ozentsuz ihardetsi nion. Bardeetako buztin errauts gorria neukan larruari lotua, eta europar arrunt baino, gorputzak gudadantzetarako tindatzen zituzten tribu-kideetarik bat nintzen. Autoaren laguntzari esker, denbora pixkat nuen dutxa hotz, fresko eta garbigarriaren hartzeko. Bizkar-zakuan giltzapetu eta Argedasko bidean bezperan bildu ‘perrexakeriak’ ere nolazpait behar nituen Jason Gonzalez de Mendaviari erakutsi, eta partikulazki, munta handia ukan zezakeen ‘belarreko odol ttantta’ hura. Eguerdi pasatuxea zen eta asti guti nuen guziaren plantan obratzeko.

Alabaina Joana Garalda zaraitzuarraren Aragoi ostatuko eguteran kausitzeak harritu ninduen. Neska, pentsamenduaren indarraz deitua nuen eta hor zegoen, nere aitzinean, isil, irriz, egunkariak besapean. Ordea, aitor nezakeen eran, harridura, behialako beldurra bezain errazki ‘gestionatzen’ nuen. Zoriontsu nintzen. Barne-

kemenaz dudan nindagoen, baina orain konfiantza apurra bermatzen zen nigan.

Joanak eztiki besarkatu ninduen eta segidan bi kafe beltz manatu zizkion hurbildu zitzaigun zerbitzariari. Galderak ihalauska ezpainetaratzen zitzaizkion:

– Nola zara, maitea?

– Maitea?

– Iparraldeko horiek ez duzue inoiz ezer ulertuko...

– Bai, prefosta! –onartu nuen Joanaren oharpen misteriotsua.

Eta «prefosta» ahozkatzearekin, mintzoaren hegalek Zuberoalat eroan ninduten bekaizki: urritu zen ezpazioa, geldotu denbora, eta Zeldaren sahetsean aurkitu nintzen, euripe amultsuan, Mauleko karriketan, Gema lantegiaren alde deitu zen manifestaldian, iragan apirilaren zazpian hain zuzen. Apirilaren zazpia? Egun horretan zuten burrasoek jakin Uritz trenpu txarrean Reina Sofia ospitalean zegoela. Anartean, gu, han, biloetarik oinetara urez tzipildurik, ostatu baten epel tepoan kokatu ginen solasean.

– Debaldezko ele paketa erraiten dizügü üsüxean. Ez gütüzü, kasko-zokoak zurratzen deizküen griñetaz bekan baizik ari.

– Zer derasazu Zelda?

– Hitz bedera oldar-bide düzü, sekulan ez lotüra-tresna.

Oroitzen nintzen Zeldak zioena Egiarik hotzena zela. Hotza, solasak berak punpean Aragoiko terrazara bulkatu ninduen bitartean. Bero astoa zen Erriberan, ziztakorra, izerditsua, zoroa eta are bortitzagoa lekuaren gainean egotean. Denbora berriz hasi zen bihikatzen, Joana durduzatuaren sohakoaren menpe:

– Zer gertatzen zaizu?

– Zuriñe... Nafarroako erreginak erresuma galdu du.

– Baiki. Eta aurreratu zara Uritzen istripuari buruzko inkesta hartan.

– Uxuera goazen! Dena ikertzeko dago oraino –erantsi nuen, lur falta eta hitzen erabilpen zozola, fatalitatearen ispiluak bailitzan juntatzen nituenean.

Uritzen memoriaren gisa, oihal mentala xehekatu ziguten eta nekez genituen zati firlinga-

tuak josten. Zerbaitetara heltzen baldin baginen noizbait, norberak bere ego azkarraren ahanzmenaz izango zen. Eta hortarako «norberekeriak' aipatzekoak ziren derrigorrez. Ahoa ireki nuen:

– Ahanzturak memoria zurkaizten du.

– Amaia! Bardeetako gauak ez dizu onik asko egin!

Uritzen neurona zaurituak nituen gogoan, eta harentzat neramazkien urratsen itxurazko ezintasuna. Gizon gazte zainart, lerden eta bizitori batek apirila ebakirik ukan zuen, arrazoin bitxiak zirela medio. Ni, mortuz-mortu edo etxez-etxe nindabilan, herrialde pairatu osoak kolpatzen ninduela. Funtsean, Joanaren parean, Landazuriako errautsa ments nuen jadanik, hango bakardade minerala, hango elkartasun sentimendua, Zuriñeren eztul idorraren oihartzuna.

Kafea mututasunak harilkaturik edan nuen. Joanak, jasaten nuen bulta traketsa utzi zuen iragaitera eta mahaian pausatu egunkariak ireki zituen, nere alegeratzeko maneran:

– Ines Intxaustik ere Zuriñe gurutzatu duela ematen du. «Zin dagit» didatz. Blues sakona dauka egungo zutabean...

– Erakuts –eta Joanari Egunkaria eskuetarik ebatsi nion basaki.

Irakurtzeari ekin nion: «Hemendik aurrera beraz, on eta zintzo izango naiz, oker eta gaizto jokatzea askoz ere seduzitzaileagoa iruditzen zaidan arren». Eta hurrunago berriz: «Zutabe bateko krisia barkatu beharko didazue». Herri zabal honetan, Euskadi edo Euskal Herria deitzen dugunean, erasialdiz erasialdika murrizten zen libertatea. Joana ttattit beha neukan:

– Eta?

– Ez nuke nahi Ines Intxausti bere idazlanetan «on eta zintzo» ibil dadin. On eta zintzoek preseski askatasuna bahitzen digutelako. Beraiek jarraitzen ez dituzten ereduak hedatzen dabiltza eta guk dugu beti plegatu behar.

– Lasai, Amaia, haserrea pasatuko zaio.

– Eiki, baina haserrea, ahosabaia hantzen duen kalzioa da: mintzatzea debekatzen diguna.

– Goazen Uxuera!

– Jason ikustekoa dut.

Keinurik ez zuen gehitu Joanak eta bizikletaz abiatu nintzen Herrerias aldera, zarraitzuarra autoz gibeletik zetorkidala. Hiriko idor usainak gatibatu ninduen, eta Bardeen nostalgia hazi zitzaidan. Zuriñeren konpainian higatu gauak itxuraldatu ninduen eta hitzez bezainbat lurrez desjabetua zen herriarenganako amodioaz lehertzeko gai nintzen.

Gaiarreko apartamenduan bospasei minutuz gorputzeko errautsa oro uretan ito nuen. Karrikaratu orduko Gaztanbiderantz lehiatu ginen. Jasonen mediku-gabinetean sartzean, gizon adinduari begiak ñir-ñir atera zitzaizkion:

– Zerbait aurkitu duzu?

– Ez dakit... –eta zakuan neramazkien ‘indizeak’ (metal puskak, belar eta arte ondotxo erreak...) mahaian barreiatu nituen, heinbat harro.

Haren soa berotik, epelean zehar, izotzera lerratu zen. Mokanes pirtzilikatutik belar ustez odolez zalapartatua ilki nion.

– Odol ttantta hau analisatzen ahal duzu?

– Bai. Non harrapatua da? Bardeetan?

– Ez, Argedasko bide bazterrean; istripua agitu zen tokian iduriz. Gatzegi deritzon lekuan hain zuzen.

– Analisiaren ondorioak gaurko ukanen dituzu –azaldu zidan medikuak fermuki–. Eta badakizu, atzo bi telefono dei arraro erdietsi ditut, mehatxu eta laidozkoak. Kontuz orain!

– Kontuz?

– Bai, mehatxuak eta laidoak zuretako ziren...

Balizko elurrak erraietan urtu zitzaizkidan, landder edo peligro berriak kilikatzen ninduen, erran nahi baitzuen bide egokitik ari nintzela ikertzen. Beldurra ere nabaritzen nuen, baina ez zen Bardeetan haragia inarrosi zidanaren parekoa. Beldur mota honek herio-bidea seinalatzen zuen bi hizkuntzetan, Bayrou-ren gomendio sotilen ildotik. Kanpoan autoan haiduru zegoen Joana. Kontsultatik ateratzean, aurpegian neraman kolore zurbailaz ohartu zen neska:

– Zer duzu?

– Ez zaitela enekin egon: biek biziaren galtzeko arriskua dugu!

– Bizian elkarrekin... Heriotzean berdin! –xuxurlatu zidan Joanak.

Ihardespen axolag:abetiak arras erromantiko kausitu ninduen. Neska, preseski hilaren jargian plantatu nintzenean, otoizka ari zitzaidan, anpletzeko eta anpletzeko, eta haren hitzek are gehiago lotsarazten ninduten. Autoko zarpail-kaxatik spray paralisatzalea jalgi zuen, segurtasun derrigorrezkoaren froga gisa.

– Eta orain Uxuera!

Akiduraren akiduraz, euri ametsez, Tuteratik autobidean sartu bezain laster, loak hartu ninduen. Banpez iratzarri nintzen, betziloak torratuz, hiri ezezagun batetako plazan. Izuak eragin eskakizuna luzatu nion Joanari:

– Non gara hemen?

– Tafallan. Zerozer edango dugu ez?

– Gosaio errea naiz. Ahamen bat jan niro nik.

– Nahi duzun bezala, Amaia.

Tuteran nola, ekiak ezintzen eta denbora berean harrotzen zituen karrika isil eta lehorretan zehar abiatu ginen, Joanak izendatu zuen taberna baterantz. Zidakoz ibaiak ardura agorrik hiria trebeskatzen zuen, horko zortziehun eta hogei euskaldun eta ia-euskaldunen oinak ferekatuz. Entziklopediek aipatzen zituzten. Tafalla, Garazi-

rekin birazkatua zen eta tafallar zenbait Baigorriko Nafarroaren Egunean gurutza genezazkeen puskilaz eta haurrez zamaturik, kontuarretan berme hargatik. Joanak elea soltetu zuen:

– Bada Tafallan ikastola handi bat.

– Baina ez dugu haren bisitatzeko astirik, ez? Goazen jatera, eta kitto!

– OK –azpimarratu zuen Joanak nere oharpen ikaratia.

Azoka ostatuan kokatu ginenean, zaraitzuarrak xerrak patatekin manatu zituen biendako eta, ardoa hautatzeko orduan, nik Omenaldi eskatu nuen airoski. Langileak bazkaritan ziren jatetxean ginauden: uluak ogi mokorretan jautzika zebiltzan eta tronaduratik zintzilik zegoen airegailuak ez zuen barnea ainitz freskatzen.

Sorotan Beleren musika entzuten zen, Erriberako berotasun zapalgarria, Irlandako euri zaparradak zekarzkien flautaren bidez baretuz. «Oinez zelai berdeetan, itsaso bazterrean» kanta minberaren lehen hitzak mentalki errepikatzen nituen, hitzen edukina, aldi berean Joanari, Zeldari eta Euskal Herri osoari zuzenduz: «Ni ohartzen naiz, zu maite zaitudala» abestu nuen

ahuspez, harremanen azterketari ekinez. Joanaren kasuan banekien, haria inkestaren bukaerarekin ahituko zela, hurrengo ‘topaketa’ mistikoan arrapizteko. Zelda, alderantziz, kaskotzar bultengatik, nere aldean egongo zen, biek amodioaren ardura zaintzen genuen bitartean. Sorotan Beleren soinuan gaita zeltikoa ozentsu bilakatu zenean, Su Ta Gar saldoaren kitarra haserretuak ahaide samurrari txertatu nizkion, ihardokitzearen balada bekaitza nitan osotuz.

– Amaren besoetan... Irabazi arte! –ahozkatu nuen Omenaldia basoan jazartzen zitzaidalarik.

Joanak zehaztu zidan Erribera hau Jotaren lurraldea zela. Ihardokitzearen balada bekaitza beraz jota zela onartu genuen, irriz urratu aitzin. Karkarak jabaldu zirenean, zerbitzari hertsiak kafeak ekarri zizkigun. «Uxue» izena ihes zihoakidan:

– Uxuen aterabidea atzematen banu?

– Banu, balego ta balitz: errez lizateke! Eta gero?

– Be, Erribera honetan egoiten gara amoros, bakarti, huts eta lurritz.

– Zeinen ameslaria zaren, Amaia.

Egiaren errateko, ordaindu eta Azokatik jalgi ginenean, ekiak berriz erasotu gintuen. Joana erromantikoa zen eta ni ameslaria; horregatik agian, elkarren behar-gorria aitortu gabe, unean uneka bata bestearekin ginabiltzan, eguzkiak kiskailtzen. Zena zela, Joanaren presentziak nere barneko kezkak arintzen zituen, mehatxu eta laido guzien gainetik iraupenaren ahalmentzeko. Neure moldean maite nuen Joana.

Tafallatik Zangotzako norabideari uztartu gintzaizkion. Bide ertzetan esparrago edo frantses-porru baratzeak eta mahastiak miretsi genituen, ingurumen lehorretik salbatuak bezala. Laster atalaia baten gisa, munho horailaren puntan pausatu Unxeko herriaren itzalak harrapatu gintuen. Uxuerako junta kausitu genuen fite. Bihurgunez bihurgune, zortzi bat kilometroz ibili ondoan, begimendu genuen Uxueko eliz dorrea, tontor garailearen azalean dirdiran. Jauretxearen aurrean gelditu ginen azkenean.

Erribera, larruko zilo oroetarik usaintsu airatzen zen Uxueko plaza hartan. Joana, ostatura xehetasun eske abian zen. Artean, ni elizaren maldara lehiatu nintzen. Migelin artzainaz gain,

hor bizi omen zen hainbestetan San Ferminetan La Calle eta Zaldiko Maldiko tabernen arteko gune ‘pribilegiatuan’ gurutzatzen genuen, hitza eta lurra bateratzen zituen «Uxueko bertsolaria». Atean jo nuen, baina ez zidan inork erantzun. Orduan, beroak zaplastaturik, Andramari elizaren aterbean sartu nintzen, atariko harrian zizelkatu «Azken Jujamenduko» irudiak miretsiz. Berriro, Tuteran nola, Mosen Bernaten bertsoen oihartzunak aztoratu ninduen.

Su eta garren erditik, pentsamendu arrazionala beste behin plegatu zitzaidan, eta haztamuka, elizaren sahetsetik, gibeletik patio eguzkitura joan nintzen. Han, bilaire zilarra haizeak balakatzen ziola, Zuriñe erregina kausitu nuen, irri xehea ezpainetan, eztul idorka. Zainetarik galdatu nion:

– Zer ari zara hemen zu?

– Muski-muski zore geriza nozu...

– Badut zure beharra!

– Bakizot ba –Zuriñek ahozkatu zuenean, plainidera auhentsu eta mingarri baten xuxurla hotza entzun nuen, elizaren patiotik ikus zitekeen behereko lautadatik altxatzen.

Behialakoan segitu hilkutxaren karreatzaileen ilada ilunak eremu horaila nahasi zuen, dolamenezko kantuek zeru urdinaren menpe zeudenak oro inarrosten zituztela.

Urrats deliberatuek moztu zidaten agerpena, eta patioaren jalgian Joana deika hauteman nuelarik, burua Zuriñerengana itzulikatu nuen, anderea desagertu zela ohartzeko. Tristurak gainditu ninduen.

Joana lasterka hurbildu zitzaidan:

– Amaia?

– Zuriñe, Nafarroako Erregina, Uxuen dugu!

– Baia? Arren, etorri nerekin; Migelin herritik kanpoko txabola batean bizi da. Zato...

Mekanikoki zutitu nintzen, Joanaren hatzetarik abiatzeko.

–15–

Uxueko Andramaria elizako erdiaroko horma azkarren itzalpe freskotik ilki nintzelarik, Zuriñe erregina deserrituarekin solastatu ondoan, lozakar batean bezala nindagoen, denborak eta lekuak elkarren baitan urtuak izan bailiran. Halatan, neke zitzaidan Joanaren haiari zuzenki ihardestea. Begiak, elizaren zutoinondo zizelkatuetan lerratzen uzten nituen, harrizko mahats molkoak jastatzearren. Beti harrigarri zen, orainaren zurrunbilora nola jautz egiten zuen iraganak.

Ekitoltzean ginelarik berriz, oroitu nintzen entziklopedian behin irakurririk Uxue, Uxua ere izan zitekeela, eta hiriska, eguzkiaren kilika madarikattuak zaintzen zuela, Mikel Laboaren kitarra soinuak bihikatu «Uxua udan» melodiak nostalgiaz eta geldotasunez bete ninduen. Joana, aitzinean bazihoan lerden, eta nik, atzetik, historia bipiltzen nuen nerener: Napoleon higuingarriaren garaian, armada frantsesek Uxue xehekatu zuten; bazena soldadoen artean Baigorriko edo Garaziko gizon iletsuetarik? Galdera agortu zuen

beroaren ziztadak, eta pentsuaren debaldeak baztertuz, xumeki, Joanaren urratsean finkatu nituen nereak.

Herri tapalakatutik kanpo bizi zen beraz Migelin artzain bardeneroa, Galipentzuko norabidean, oilategi baten ertzetik pasatuz, ostatuko emazteak Joanari eman xehetasunen arabera. Metal arinezko aterbean, lumakiak kikirri-kakarra airosetan hautematen ziren, poalla ugari metatuen pixa urrin hezeak airearen idorra bulkatzen zuela. Joanaren parera haupatu nintzen.

– Hau zinezko oilategia!

– Baa, euskal herriko ‘oilategi literarioen’ antzekoa.

– Justo! ‘Oilategi literarioak’ kirats berdina baldin badu, ez da estonagarri, delako gizon handi hura friuntan agertzea, noiztenka!

– Zuk esan! Bada bai gure literaturan oilanda gazte moko fier soberaxko, oilarrak bakean lo egin dezan!

Zeru urdinegiari so geratu gintzaizkion, irriz, ñiñikak zurbail eta larruak ikaran. Denbora erreal bihurtu zitzaidan ondorioz, eta Migelinena zatekeen borda erdi-hautsira heltzen ari ginen.

Ongi-etorri gisa, zakurrak bi zaunka erlastu eskaini zizkigun. Harriz eta Erriberako lokatzez altxatua zen txabola. Hegatza aldiz kañaberaz ehaindua zen, eta teila arrosez estalia. Inguruz inguru, sumur lodiek sustengatzen zuten aixolbea. Ordea, ageri zen, bazela aspaldi jabeak ez zuela etxea konpondu: bazter orotan poxuluan ziren harri eroriak, haize ertzoak lerrarazi erraustsak eta hautsak; oinarri zenbait jadanik dudan zeuden. Zakurra isilduxea zegoen. Barnetik, leihoak hertsirik izanagatik, irratian pasatzen zen zangobaloi partidu baten oihartzunak aireratzen ziren. Besterik ez zen entzuten.

Txabolaren sargiara hurbildu ginen. Marraka bat hauteman genuen. Lotsak harturik, elkarretaratu ginen. Zer zitekeen bada? Etxearen gibelaldera zuhurki bideratu ginenean, pazoin bati loturik ahuntz mehakoila ikusi genuen, lasaiki, sabina hostoak martzilikatzen ari zena. Ahuntza, begiak biribildurik beha egon zitzaigun, eske bezala. Gogotik iragan zitzaizkidan Bardeeri buruzko liburu ia guzietan azaltzen ziren artzain eta ardi-saldo oparoen argazkiak: haietan gehienetan, bizpahiru ahuntz zenbatzen ziren, ardien gi-

datzale eta gau-apalean biltzale. Artaldeak, udaberrian lorios itxuratu nituen, Bardeetan loratzen ziren mila lili edo zuhaixka motaren jaten, harahonaka, jautzika, unerik zoriontsuena bedatsea bailitzan. Bardeak primaderan tipus-tapasean kasik urik gabe orlegitzen ziren, berdearen ehun doinuak haizearen huxtuak iratzarririk.

Migelinen txabolaren atzetik, Uxueko eliza ortzaizaren jabe miretsi nuen eta udak min egin zidan. Joanaren eskua nerean tinkatu nuen: izerdiak nahastekatu ziren, biak ‘montañesak’ ginen alabaina, eta zail baino zailago zitzaigun Erriberako bero dorpeari ohitzea.

Buru-keinu batez elkar ulerturik, Migelinen bortarantz itzuli ginen. Egur erre urratuan hiru kolpetxo ozenarazi genituen. Erhi sotil batek irratia apaldu zuen, eta duntzetan atea ozendu zenean, animaleko gizon zardai iduriz flako batek sarrera luzatu zigun:

– Aurrera –erran zuen Migelinek.

Ezpain trinkoek farre bat marraztu nahi zuten, baina kezka ezezagunak irrirainoko bidea debekatzen zien. Ilunbean kausitu ginelarik, gizonak durduzaka galdegin zigun:

– Zertara zatozte?

– Migelin artzaina zara?

– Bai...

– Aspaldian zure bila gaituzu –aitortu nion–, apirilaren lauko gauaz oroituko zarelakoan.

– Jar zizte hor berean!

Piñu usaintsuzko mahaia erakutsi zigun. Gainean, desordenuan, Diario de Noticias bat zegoen, gaizki tolesturik, eta haren ondoan, bezperako entzierroaz argitaratu zuten eranskin berezia: amerikano gazte bat larriki zauritua izan omen zen: odoletan, hesteak airean ageri zen egunkariaren azalean. Desgostuak erraiak bultzatu zizkidan eta ahur ikaratiaz, eranskina izkina batera aurdiki nuen. Gohaindura gainditzearren, begiak gero, neguko gau karroindatuetako sutegi hondarretara lehiatu nituen: ezpal ikaztuak, kedarra sahetsetan, eta gerrena plat! Su abandonatuaren altzoan kostillak, pantzetak, txistorrak eta baratxuriak kiskailtzeko burdinazko tresnak dilindan zeuden, ordu egokian erabiltzekotan. Kanpoko beroa ez balitz, bake hotzaren itxura ematen zuen Migelinen sukaldeak. Migelinek presesski, isiltasuna ebaki zuen:

– Zerbait edanen duzue? Ardaue? Ure?

– Ardo xorta bat bai –ihardetsi nion, freskurak jada gorputza beretzen zidala ohartzean, Joanaren besogainean pausatzen ari zen oilo-larrua kontutan hartuz.

Golkoaren trabatzera jin zitzaidan ‘oilategiaren’ metafora uxatu nuen, eta Migelinek basoak ardoz betetzen zituen artean, artzainarentzat neukan eskaera zuzena errepikatu nion:

– Apirilaren lauko gauaz oroitzen zirea?

Gizona mutu egon zen. Basoen kristalak eta botilaren tutunak elkar joka zegiten kuska-musika uhargia baizik ez zen aditzen. Desesperatzen ari nintzen, banekielako ez nuela gizonaren mintzatzera bortxatzeko ahalmenik. Joanaren aurpegian laguntza zerbait bilatzen saiatzu nintzen, baina debaldetan, neskak ‘gaiaren bihotzetik’ oso urrun zirudielako, Itoizko balizko uretan itorik bezala.

Hitz-eskasiak iraun zuen. Indar guziak bildurik, artzain adinduaren ahotsa bapatean argi altxatu zen:

– Bai, gau hartaz ontsa oroit naiz. Argedas gain haietan nintzen ardi saldoarekin. Ilargia

gora zen orduan zeru zoruan. Erriberako argizagia, mauregiek utzi daukuten irudia badakizue! Eta...

– Eta?

– Argedastik Tuterarako bide puska rekta hartan auto bat entzun dut, ziztu bizian zetorrena Tutera aldetik. Gune horretan, autoak abiadura handian ibiltzen dira: zenbaitek ehunta larrogei baino gehiago egiten dute, eta ez da harrigarri...

– Zer?

– Harrigarria zen kotxea ezagutu nuelakoan: ardura Bardeetan erromatarren eta historia zaharreko aztarnak ikertzen dabilan Uritz Gonzalezena zen. Uste dut, hark ere, neure ardiak ezagutu zituela eta azkenean nintzen patar zolan gelditzeko asmoz autoaren abiadura baraxten hasi zen. Orduan...

– Istripua?

– Nola dakizue hori zuek?

– Segi...

– Nonbaitik heldu zen suzko bola bat lerratu zen larraitzean, autoa mila zatitan hautsiz eta

errez. Zurezko bihurtu nintzen. Xalori manatu nion artaldearen zaintzea.

– Nor da Xalo?

– Nere txakur maitagarria, eskerrak nerekin dudala, xahartzen ari naiz orain. Beraz, ardiak Xalorekin utzirik, erabaki nuen biderantz abiatzea, laguntzarik edo behar baldin bazen istripuaren lekuan. Malda apurrean behera jautsi nintzen, gaua izanez erreposki, eta hondarrean, ez naiz lehen bezain zainarta, istripuaren unera hurbildu nintzelarik, ez nuen deus berezirik ikusi.

– Ez zira nehorekin hortaz mintzatu? –galdetu nion, Migelinek azalpena bururatu zuenean.

Ixtant batez artzainaren txabola hitzuts bilakatu zen. Gizonak ordea aski laster solasa askatu zuen:

– Ezetz! Nola nahi duzu? Pentsatu dut geroztik amets gaizto bat egin nuela, nekatua eta zaharkitua nintzelako, eta ez diot inori ezer aipatu. Doi-doia bitxi kausitu dut, Bardeetako Erronkariarren kañadan zehar Uritzen ez gurutzatzea, baina gazte lanpetua ere zen, ixtudioak, irakaskuntza. Egunkarietan bestalde ez dut deus irakurri horri buruz. Gero ardiak Zaraitzura eraman

dizkidate eta ni hona jin naiz udaren iragaitera. Uritzi zerbait agitu al zaio?

Migelini egia zor nion. Eleak ongi ahozkatuz, azalpen zehatzean urtu nintzen:

– Bai, Tuterako ospitalean da, apirilaren lauaz geroztik, memoria oso galdurik. Istripuaz ez da den-mendrenik oroitzen. Suzko bolaz bai haatik.

– Gizagaixoa! Arrokagainetik jaitsi naiz eta han bidean, ez dut fitsik atzeman. Alta, ez naiz ertzoa!

– Ez, bixtan dena.

Erriberri inguruko mahastietako ardo kantariz bete basoa ezpainetaratu zuen Migelinek. Zintzurrezurra igika nabaritu nion. Hurrapa ozentsu baten ondotik, hitza soltetu zitzaion:

– Nola jakin duzue lekuko nintzela? –kezkatu zen artzaina.

Erran nion, ahal bezainbat lasaitzearren, Uritzek zuela bere eri-ohantzean «Migelin artzainak dena ikusi du» etengabe errepikatzen.

Gutien ustean, gizonaren aurpegia alegeratu zen:

– Orduan, nitaz ohartu da. Bazekien gauaz Argedas aldera hurbiltzen nintzela.

– Zer zen suzko bola hura? –galdetu nuen hondarrean, aspaldian golkoan traban neuzkan aditzak erabiliz.

Buruko bilo urri zurituak harrotu zituen Migelinek. Hasperenka higatu zen, durduza nagusi:

– Ez nekike! Ez dut herots bitxirik hauteman, salbu kolpe izugarri hura eta gero, jautsi naizelarik... Funtsean, pozik nago Uritz bizirik delako. Gazte jatorra da. Intsumiso horietarik hots! Gure Errepublika suntsitu zuten, indar barbaroaren menpe amor eman genuen, eta gazte hauek hila iduri zuen ezko-argia berpizten digute. Mola generalaren armadakoek bost artzain lagun torturatu zituzten eta Lodosako kanalaren ur nahasietan ito. Nik Frantziara ihes egin nuen doi-doietarik!

– Frantziara?

– Bai, San Juan Piedepor eskualdean eraman nituen berrogei urte exilioan.

Hunkigarri zitzaidan Migelinen aitorra. Ordea, hunkigarritasunaren mugak nigan, haserre bekaitzarenak jotzear zituen: alabaina, nola onart nezakeen Garazi kuttuna Frantzia hutsa izatea Hegoaldeko baten buruan? Ahantzixea nuen Joa-

nak begi-klixka batez ez kexatzeko deia egin zidan. Solasaldi eztian jarraitu nuen ondorioz:

– Hortako duzu beraz gure kasik euskara molde bera!

– Ezterenzubi gain haietan artzain nintzen. Errozaten.

– Zu orduan...!

– Emaztea Orbaizetakoa nuen. Hura minbiziak ebatsi zautanean Otsagira itzuli nintzen. Han arras arrotz nintzela oharturik, artzain lanetan segitzea deliberatu nuen Bardeetan, udapartea Uxuen iraganez.

Hitzak banan-banan ahitu ziren. Hiruek basoan zetzan ardo maltsoari ekin genion. Perikok eta Migelinek, mende erdi hurran baten artekarekin, ixtorio berdina kontatzen ziguten. Beste mende erdi hurran bat iraun behar zuena herri zauritu honen bakardadeak? Zein zen Gerla Zibilaren, Exilioaren, Intsumisioaren eta Uritzen istripuarekilako lotura? Eskaerak ihalauska zebilzkidan gogoaren zokoan.

Konprenitzekoa zen naski, Migelinen diskrezionea Argedasko errekontruari zegokionez. Ez nuen halarik ere ulertzen zergatik ez zion artzai-

nak deus erran Uritzen aitari. Agian mutikoaren aita ez zuen elaire, medikuak eta artzainak elkar ongi-joaiten ez ziren mundu zehatz batean erro-tzen ginelakoan. Artzainak eta notableak, Palo-teadoan baizik ez ziren juntatzen, urtean behin, Tuterako San Juan auzoko jaietan.

Joanaren behako samurra jo nuen, apirilaren lauko gauean suzko bolak Uritzen autoa kuskatu eta kiskaili zuen eran. Migelinen eleak beren hei-nean baikorki hartu nituen. Jadanik nekiena baino ez zuten indartzen. Zerbaitetara heltzeko-tan, oinarri sendoetarik bederen abiatuko nin-tzen. Artzainaren txabolako leihotik, kanpoan, eguzkia beherantz zihoala ohartu nintzen. Zarai-tzuarraren sohakoan Tuteraldera bideratzeko xedea irakurri nuen. Gizonaren begietara lerratu ziren instantean nereak. Migelinek ahots apalez eskatu zidan:

– Poliziak zizte?

– Ez. Detektibe rurala naiz, eta hau –Joana erakutsiz– neure laguntzailea. Uritzen aitak kon-tratatu nau ixtorio dorpe honen zilatzeko.

– Istripua agitu da, zinez?

– Bai Migelin, eta ustez, zorri-zaku galantean sartu dugu esku-ahurra. Laster erreko gara.

Karkaza adindu batek inarrosi zuen Migelin bizkar konkortua. Despedidako seinalea eman zidan Joanak. Agurtzerakoan artzainak gomita luzatu zigun:

– Beste behin etorri bazkariterat!

– Bai, jauna!

– Eskukaldia beharrean, badakizue orain non nagoen! Egia jakin nahi dut nik ere!

Joanaren karroan kokatu ginelarik, txabolako atean, gizon zardai flako baten itxura gatibatu nuen izpirituan. Berrogeita hamar urteko historia ankerraren urrakoak agerian zeuzkan Migelinek gorputzaren itzalune guzietan. Bortxazko isiltasunaren mendekaritzat zeuzkan hark Uritz bezalako gazteak, haria eten ez zelako marka.

Autoan aterbetu orduko, kantan hasi nintzen, Joanaren belarriak larrutuz:

Aunque soy de la Ribera
De Navarra tan querida,
He sido siempre y seré
Hija fiel de Euskal Herrial

Loak gatibatu aitzin, entzun nuen Joana erraten, abesten nuen jota hau Arrufat ‘Txakoli’rena zela, jende-aurrean bere baritono botzez eskaintzen zituenak, txaloak gordean merezituz. Nafarroan ez ziren –eta ez dira– denak erreketeen aldekoak.

Migelin, adibidez.

–16–

Lurra jadanik ilunak bereganatua zuen, lohorditik iratzarri nintzenean. Joanak eztiki gidatzen zuen eta pausatu ahal izan nintzen lasaiki. Banuen segur beharra: bezperako zeruen altzairu urdin koloreek eta eremu hutsen idor-usainek bildua ninduten, izpiritua bekaizki gatibatzeraino. Begiak zerraturik eraman denboran euri zaparrada hotzak imaginatu nituen eta itsas ertze mugagabeak hiri batetik bestera hedatzen.

Lantzer samurren nahikundeak salbatzen ninduela errepikatzen nuelarik nerener, Joanak abiadura urritu zuen justo-justoa Arguedas idatzirik zeraman bide-seinalearen parean. Behin hola, denbora-pasa, hostokatu nuen entziklopedia mardulean, hiriari buruz irakurria jin zitzaidan gogora. Ospea herriari, inguruz inguru zeuzkan harkaitz biluzietan, aitzinako jendeek aterbe gisa, berentzat edo uztaberrientzat egokitu hartziloetarik zetorkion. Zaraitzuarra osoki bipil zegoen eta ‘survival operation’ zelakoaren kudeatzeari ekiten zion, nere ordez:

– Goazeman Ongarrira. Han auhalduko gara biok maitea!

– Tenorea dugu bai. Zer da Ongarri hori?

– Ongarri, Argedasko euskaldunen eta euskaldun-nahien biltokia da. Goazen orain, gaua gainean dugu!

Oroitu nintzen XII-XIII. mendeetan galdu zela euskara leku hauetan. Irri gutizia neukan, konturatzean, katea herdoilak irentsiagatik ez zela sekula puskaka hausten: mintzoaren oihartzuna desagertzen zen tokietan gogoa bermatzen zen, nekezia ainitzen erdi-minetan, baina bermatzen zen, memoriaren harrogarri, betidanik euskaradun izan ziren guneetan bezain edo baino sotilago. Memoria? Hitzak kasko-zokoa inarrosi zidan: inkestarako oldarkunde berdina desiratzen nuen. Arrats honetan, itxuraz, Uritzen amnesia ahantziko nuen, zerbait finkotara helezina eta Ongarri biltxokoan zainak lasaituko zitzaizkidalako esperantza neukan.

Joanak autoa plaza biribil batean aparkatu zuen. Jautsi ginenean, neskak segurtasun atsolutozko musu bat eskaini zidan eta ixtant batez zoriona –ala beldurra?– hedatu zen nigan. Soak

alde orotara barreiatzen nituen gero: Argedasko etxe horailak eta karrikak, Bardeetako larrazkeneko edo udaberriko haize ertzoak airarazten zuen errautsaz estaliak bezala ziren, eta azken egunetan nola, sentitzen nuen nihaurek ere, larruaren irekiduretan pausatzen zitzaizkidala basamortuko lur-pikorrak. Ortzean ageri zen, erre gintuen eguzkia sartzen, gorri, sutan, zirkulu perfekto. Gaua zohardi eta urdin-latz zatekeen. Laupabost zikoina xuri-beltz, ahamenka, ziruri-kan zebiltzan gunearen abandonu sentimendua izarrartean alegeratzeko asmoz. Bide nagusian iragaiten ziren auto zenbaiten herotsak baizik ez zuen ilunabarraren isiltasuna apurtzen.

Karrikako bake iduripenetik, Ongarri jendetsuan kokatu ginelarik harriturik egon nintzen, eta ez bakarrik gerrian Joanaren esku-ahurra beroki balakari nabaritzen nuelako. Alabaina, zurezko kontuarrean biltzen ziren durduzaz eta kemenez euskaraz edatekoaren manatzen saiatzen zirenak, gizon eta emazteak; haurrak lasterka hara-honaka jautzika ibiltzen ziren, oihu eta kantaka. Zintatik, Potato taldearen reagge airosa entzun zitekeen: «En Vitoria-Gazteiz donde

hacen la ley, capital artificial de un pais singular...», barnean zegoen alaitasunari uztartzen. Joanak gauza seriosetara lerratzeko ordua zela jujatu zuen:

– Zer hartzen duzu?

– Ardo bat. Hemen Erriberan ohartu naiz, biziki ona zela.

– Gorria ala beltza?

– Gorria. Omenalditik edo Kaskanteko Malon de Etxaidetik.

– Ezagule fina –marmazikatu zuen eta ostatuan zerbitzu-txandan zenari manua luzatu zion.

Haiduru egon ginen, musikaren hariari josirik elkarri beha. Joanaren begietan dilindatu nuen biharraren esperantza zilarra, sabela amodioaren deiaren labanak larrutzen zidan bitartean. Hasperen bat askatu nuen, eta neskaren besoartera ez erortzeko, Zeldaz kezkatu nintzen: basa baten antzera irauten nuen, larrua lur purruska lehorrez horniturik, herririk herri ninderamaten harremanen zapping erraldoian zinpurtzen. Argi baino argiago agertu zitzaidan orduan, Uritzen memoria osatu ondoan, nere Zeldarenganako

lehien zerrenda oinarrietan sendotzekoa nuela. Baina gai bakoitza bere aldian.

Zinikoa bilakatzen nintzen berriro eta nere kezka txilintxau geratu zen, Joanak ardo-godaleta buru-kolpe deigarriz ezpainetarazi zidanean. Hurrupa freskoa irentsi bezain zalu, mundutiar indigena sentitu nintzen, ez nuen ondorioz inoren beharrik. Ongarriko bideo-pantailan Negu Gorriak-en Herrera de la Manchako kontzertuaren erakusten hasi ziren, eta segidan, Gaztelako lautada desolatuen abendu hondarreko hotza hezurretan sartu zitzaidan, defentsa-pertsonalerako eraiki murrailak oro deseginez: «Hemen izango bazinaaa...» errepikatu nuen taula gainean nehon ez zegokeen kantariarekin batera. Joana, jasaten nuen trenputxarraz konturatu zen, dudari arte izpirik gabe erran baitzuen:

– Hara Kepa! Bardeetako espezialista, Itoiz koordinakundeko partaidea! Presentatzen zaituztet.

– Alo...

Kepa zelakoarengana eraman ninduen Joanak. Aurkezpenak alegeraki egin zituen neskak eta hiruak triki-trauka solasari lotu gintzaion.

Kepak omen ontsa ezagutzen zuen Uritz eta bazekien Ospitalean zela momentu honetan: elea arduratzen gintuen ildora plegatu genuen.

Uritz eta Kepa, biak ibiltzen ziren Bardeetan hedatu aztarna prehistoriko eta erromanoen ondotik. Lurralde gazi apaletako loreak eta abereak ikergai zituzten, besteak beste. Kepak aitortu zigun baita ere, militarrek arrestatu artean libro, Uritzen moldean intsumisioari emanik zela. Egunak zenbatuak zituen eta aipatzen zizkigun Iruñeko kartzelan jadanik giltzapetuak ziren bere borroka-kideak.

Kepak ardo-bolada bat gehiago eskatu zuen. Burumuina malgotzen zidan ardoak eta Kepak kontatzen zigunaren limarrik galtzeko xederik ez nuen. Mutikoak bitxi kausitzen zuen Uritzek pairatu istripua, eta urratsa doi-doia eskas zen, atentatua jasan zuela pentsatzera heltzeko, Keparen arabera. Ideia ederra eta xinplea zen.

Baina nork nahi zuen Uritz bizigabetu? Kepak hipotesia zenbait aitzinatu zituen: armadak?, polizia sekretuak? Nehork ez zuen begi onez ikusten ipar eta hegoaldea hunkitzen zuen intsumisio oldarrak Erribera bere zezan. Iturri ofizialei

zegokienez, Erriberan ez zen euskaldunik eta gaineratiko herrialdeetako praktika politiko guziak Erriberan zutabe ez zitezen, sistemak oztopo gaitzak jartzen zituen:

– Hiltzeraino? –ahozkatu nuen Keparen haria moztuz.

Zergatik ez segurtiaz arrabildu zuen zelako haria orratzaren zilora. Ofizialki Erriberan denak espainolak ziren, edo izpiritu zabaltasun zerbait adierazteko moduan, judu-mauregi-espainol. Euskalduntasunak ez zuen beraz neholako biderik hemen. Keparen hitzak hautematean, gogoratu nintzen Paueko erdi-aroko historia irakasle baten Nafarroari buruzko agerpenetaz: juduak, arabeak eta kastellanoak zituen arbeleratzen, eta umore onean zelarik, mihi motelez, nafartarrei leku izpia zilegitzen zien. Haren iduri zientifikoki ez zen sekula euskaldunik egon Nafarroan. Ideologia baten eramaile izan ez balitz agian, erakasleak XVI. mendeko Joan de Aminduzeren euskarazko olerkia irakatsiko zigun. Baina Historia Ofizialean ideologia zen nagusi, eta hala bereizten gintuzten, bata-bestetik arrozten, eta menderen mendeetan gureak ez ziren hizkun-

tzetan eraiki behar genituen elkartasunerako zubiak, Ebro gaineko Antso Azkarrarenaren antzekoa, burdina biluzizkoak.

Ahalgea ezabaturik, Joanaren bilairea amultsuki musukatuz, gorri bolada bat gehiago mana –eta ordain– zezan gomendatu nion. Beha geratu zitzaidan:

– Mozkorra zirate.

– Justo. Arraila. Horditua. Etendua. Baketua.

– Ederra zara... –xuxurlatu zidan Joanak, eta neskaren gezurrak maite nituen, Uritzi zer agitu zitzaion ezin zilatuz nindabilan une honetan.

Hiru baso xumeak arradatu zituen anartean kontuar gibeleko gizonak, eta ikusi nuelarik zaraitzuarrak mila pezetako billetea ateratzen zuela, salbatua nintzela kontsideratu nuen. Uritzekin bilatzen zituen aztarna prehistorikoetara bideratua genuen Kepa:

– Kortesko atalaian bi mila hilkutxa aurkitu ziren eta hemen berean, Kastejon eta arkeologoek Argedasen atzeman zituzten brontzegaraiko lehen akanpamendu galantak. Badakizue Trasimeno italiako Onbriako guduan Hannibal gudaburu punikoak vascones zenbait eraman zituela

Caius Flaminius kontsul erromatarraren saldoen suntsitzen laguntzeko? Jesukristo sortu baino lehenagoko 217. urtean pasatu zen bataila hura. Erriberak oso harreman onak zeuzkan Kartagoko botereekilan. Gero, erromatarrak etorri ziren eta Sertoriusen denboran hau guzia ager vasconum deitzen zen. Lurraldeari Muskaria deitzen zioten tokiko biztanleek.

– Muskaria Tutera zaharra zela uste nuen! –galdetu nion isilezina zen Kepari.

Leku frangok deitura hori zeukala ihardetsi zidan, eta orduan pentsatzekoa zela herrialdea ere horrela izendatzea iraganaldi urrun batean. Erantsi zuen:

– Egia da erromatarren menpean Tudela villae soila zela, eta ondoko urtesailetan Erriberako hiri nagusia bihurtu zen. Afalduko gara ezta?

Keparen orainaldira tipustapasean erortzea bitxi suertatu zitzaidan. Ardoaren dirdirak liluraturik, Erriberan lehenago zebiltzen armadak bata bestearen ondotik ibiltzen asmatu nituen: puniko larru-beltzak, erromatar urgulutsuak, Amrus Ibn Yussufen Tudela hiriaren garaitzailearenak, gaiteroak iragarle, Gaztelako erregearenak Nafa-

rroa zitzifrikatu zutelarik, Blokus Kontinentalaren segurtatzeko Napoleonen frantses armadak eta, azkenik, Mola generalaren gizon odoltsuak. Gerla beti gerla, eta gaurko gerilla bukagabea: Nafarroa, eta orozbat Euskal Herria, betidanik bere nortasunaren zaintzeko gudukatu beharrean izan zen.

Ni ere orainaldiratu nintzen emeki-emeki, eta baliatuz Joana, alaitasun keinu handiak marraztuz jende talde batekin elestan ari zela, Kepari eskatu nion:

– Aireko bat zartatu dea, Erriberan, apirilaren 4 hartan?

– Ez dut ezer jakin. Ez dakit nola esplika Uritzen istripua!

– Ez nauzu asko laguntzen.

– Ahal dudana dagit. Afaltzera! Migak apailatu dizkigute!

– Migak?

Erakusten nuen ezjakinkeriak nahasi zuen Kepa. Joana, tarrapataka jin zitzaidan zehaztapen zenbaitekin, Keparen lasaigarri. Neskaren arabera, Bardeetara artzainak eta ardiak trumilka zetozenean gisala, bizimolde xuhur baten

eredua osatu zuten eta ohizko nomadei eskumenean zeuzkaten apurrekin afariak kozinatzea laket zitzaien. Ogi-mamia xehekaturik, txorizoa, margarina, pantzeta, oliba olioa, tipula, baratxurua eta gatza biribilkatzen zituzten zartagin batean. Mahats molkoak bihikatzen ziren ekia txabolan sartzen zela, ardilanak bukaturik, ase ederren egiteko lehiarekin. Joana, artzain ADN katearen eramailea bera, ezin ebakia zen gaiari zegokiola. Ausartu nintzaion:

– Eta ona da?

– Bai noski. Gaurregun migak supermerkatuetan eros ditzakezu. Argedasko Floristan harategikoek aurradelaturik. Biziki onak dituzu. Zure artzain-nostalgiak katestatzen zaituelarik, hozkailua ideki eta «Migas Floristan - Tipo Bardeneras - Calentar y Servir». Adiskideak adiskidetzen dira migekin, ardo ezti batekin bezala.

– Dakust.

Mahai luzean jarri ginen. Ongarri biltxokoko sukaldetik zartain handi batean, ketan, dir-dir, miga horailak ekarri zizkiguten, sutondoan txistorrak erretzen ari zirela. Usainak hartu orduko, gosea nabaritu nuen eta ingurukoen maneran

hasi nintzen atseginez jaten. Gozoa zen. Bortitza zen. Lurralde minbera eta ainitzetan zauritu honen parekoa ahosabaian.

Biltoki hertsi tepoan herotsa goihenean zegoela, sukaldetik bere amaren gibeletik, hiruzpalau urteko neskato ttipi, bixi, sotil eta bihurri bat kantan hurbiltzen miretsi nuen. Ile beltx laburrek aurpegi biribila alaitzen zuten. Begiak ere ikatzaren idurikoak zituen. Nere sahetsean beldurrik gabe ttottotu zen. Ezpainak bihurdikatuz galdatu zidan:

– Nor zaraa?

– Amaia ni... Eta zu?

– Zuriñe.

Esku xeheak arropa urdinaren pleguan biribilkatzen zituen. Irriz karkazailka ari zen oihuka «Hau Amaia da! Hau Amaia da!». Neskatoko beltzaranaz maitemintzen ari nintzen arraro zitzaidan arren handiekin erdaraz eta umeekin euskaraz solastatzea. Euforia uholdeak zeharkatu nindu en. Ardoaren eraginez agian! Bardeetako gauetan eta Uxuen gurutzatu Zuriñe Nafarroako erreginaz oroitu nintzen. Haurra altzoan jarri zi-

tzaidan eta lurrik gabeko erreginaren historioaren kontatzeari ekin nion:

– Duela bost mende, Peñaflor gazteluan bakardadez erotu zen Zuriñe printzesa. Mosen Pierres Peraltako kondestableak han zerratu zuen, infidel izan zitzaiolako. Gaixo Zuriñe.

Zuriñe gaurkoak ez zituen nere agerpenak segitu, eta bereari balitz bezala, kanta baten entzunaraztea proposatu zidan. Boz ahulez, ostatuko harrabotsean altxatu zen Euskal Herri osoko ikastoletan ibiltzen ziren haur guziek ikasten zuten lehen abestia:

Pinto, Pinto gure txakurra da,
Pinto bere izena du
Txuri-beltza da ta ez du ausikitzen
Begi bat ixten du jostatu nahi badu...

Txaloka lehertu nintzaion. Matelan pott bat pausatu nion. Jota zaharra eskainiko bailuen, eskuttoak gerrian plantatu zituen, lan ontsa egina irudikatuz. Gero, airoski amarengana joan zen eta honek etxeratzeko tenorea gertu zegoela

ulertarazi zion. Ama-alabak Ongarriko zaratatik desagertu ziren.

Joanaren ondora abiatu nintzen. Trenpu gaitzean zegoen, migaz ase ondoan. Belarrira erran nion:

– Goazen Tuterara.

– Zertara? Ez gara ongi hemen?

– Baiki, baina amodio-minez niagozu.

– Mozkorra zara. Eta Zelda?

– Gerokoak gero. Arren, neska, goazeman.

Zaraitzuarrak, egin nuen bezalaxe funtsean, ardo hondarra azken ttanttaraino hurrupatu zuen eta bere lagunak, Kepa barne, oparoki agurtu zituen. Zur eta lur nindagoen, nere borondateak ez baitzuen inoiz horrelako ondorio presaturik erdietsi. Zoriona zena nitan hedatzen, Erribera hotzikaratuan nola?

–17–

Tuterako hilerriaren parean utzi genuen Joanaren autoa. Amodio-minak kilikatu arren, belduurrak bihikaturik ginauden, Argedasko Ongarri batzokian ongi auhaldurik, handik atera ginenean, irriz, kantuz eta musuka, karrika izkinatik neskalagunaren garraiogailuaren ateak ireki nahian bi itzal maskaratu zehaztu genituelako. Halatan, Jasonek jaso mehatxuzko telefono-deiak egiaztatzen ziren eta, Keparen erranak gogoratuz, lotsak bere atzaparretan gatibatzen gintuen.

Nor zebilen gure ondotik? Uritzen istripuaren ikerketa, kaparrostozko sasiaren antzekoa zen: gertakariaren ziztek larrua sardeskatuko eta urratuko ziguten. Halarik ere, inkonzientziaren temak bultzaturik, aitzina segitzea erabaki genuen.

Hamar minutako zibersexoa ‘egin’ genuen Gaiarre karrikako gure aixolbean. Maitasunaren ideia haragiaren aberetasun ildoetan zitzikatu zuten balaka, milika eta ausiki presatuek. Ez ginen betetasunera heldu –denborarik ez zegoen

interraktibotasun osoaren obratzeko naski–, baina gorputzak baretu ziren eta izpirituak arindu. Amodio eskasak laket zitzaizkidala errepikatzen nion Joanari, erle sotilaren gisa liliaren errauts bustiak hurrupatzen ari zen bitartean. Bedats zimiztek gauaren astuna argitu zuten eta argi hura bera neukan golkoan jostari Tuterako hilerri usaintsutik bidea ospitaleraino oinez jarraiki genuelarik.

Kilometro huts bat bazen doi-doia eta ez gintuen halatan distantzia apurrak aperientziarik durduzatzen. Non finito kutsuko larruketak ausartzia zerbait ernarazten zuen gure baitan. Botz apalez, zuela hamar bat urteko Iparraldeko karriketako itzalen zereginak aipatzen nizkion Joanari, izuaren izuaz: orduan ederki ordaindu eta gobernuetarik kudeatu hiltzaileek, deplauki, gaztigurik gabe, errefuxiatuak Baionan, Donibane Lohitzunen, Garazin, Mendikotan, Miarritzen, Hendaian edo Bidarrain erahiltzen zituzten. Garai haietan ez zegoen gerizarik inorentzat, gauaz eta egunaz, bala galduak bil zitezkeelako. Tuterako eletrika zentralatxoaren gunean, ‘beldurra’ tripan ihalauska ginabiltzala orduan ager-

tu nion. Lasaitasuna itxuratu nahiko zukeen ahotsaz Joanak erantzun zidan:

– Baina Kevin Kostner jujea ari da afera horren ikertzen!

– Noraino?

Noraino? Arraposturik ez zen eskaera xinple horrentzat. Isilik, ospitala inguratzen zuten sasien maldara iritsiak ginen. Hortik arras ontsa ageri zen ospitaleko sarrera nagusian barrandan zebilen zaindaria. Biluztasunaren instante magikoetan, plantako gizona aldendu orduko, bezperan sekretaria zarmantak zerabilen ordenadorearen mirazkatzeko eta behar genituen paperen ebasteko xedea finkatua genuen. Xede landderosa zen bixtan dena, baina zerbait jakitea komeni zitzaigun, ez bainuen nik, adibidez, Uritzen istripuaren nondik-norakoen bideratzen bizi guziaren pasatzeko gutiziarik. Zuberoan, Zelda haiduru neukan. Hala uste nuen bederen.

Haize hotz eztiaren firfirak idorraren hurbila ekartzen zigun. Eguna eguzkipean kiskailtzen higatua genuen, eta aireak, ahur samurrek nola, azaleko erredurak jabaltzen zizkigun. Beldurraren zigilurik ez balitzan, zoriontsuak izanen

ginen menturaz. Zoriontsuak, behin Haranbeltzeko oihan ilunaren aterbean iragan gau luze eta ozentsuan bezala, lurpean hara-honaka zizareak ibiltzen entzuten genituelarik, edo desiraz hantu huntz eta kahaken arramantzak punpean bihotzak jazarrarazten zituelarik edo... Lotsaren gainetik, orobat amodioa zen nigan pizten, behialako argiaren zutabe.

Joanaren sorbaldan pausatu nuen eskua:

– Errazu, ez gara hain gaizki hemen...

– Bai, herioaren auzunean.

– Alabainan... –erantsi nion, eleustasunera itzuli baino lehen.

Joana zuzen zegoen ordea, goaita aspergarrian zeozer aurkitzeko premia genuen baikorki bizirauteko. Bapatean, Joanaren xuxurlak isilunea hautsi zuen:

– Badakizu, Keparekin ainitz elestatu naiz.

– Ikusi dut, bai; nihaur abandonatu nauzu, ardoz bete godaletaren kide.

– Gaixoa... Kepak kontatu dit, Bardeen eremu zabalak zein moldetan erabiltzen zituzten turistek, filmegileek eta militarrek. Zinemaren zerbitzuko, berrikitan Bardeak Texasko Sonora bilaka-

razi dituzte. Iggy Pop aktoretzat daukan «Atolladero» lana hemen errodatu dute. Baina, filmatzen zutenean, euria egin zuen eta lokaztu zen lurralde lehorra. Kepak zionez, autobus urdin hura Bardea heze horailetan zehar ibiltzen segitzea harrigarria zen. Paradoxala nonbait.

– Albaniako Konkista ere ez zena Bardeetan filmatu?

– Noski. Poligonotik ezker hartzen duzu, Villazapata txabolaren paretik, Gurutzeta lekuraino. Han egin zuten Albania. Egin-en irakurri nuen, egunero Bardeetan maniobratzen ari ziren espainol armadako airekoen azantzarekin konpondu behar izan zutela filmegileek.

– Begoña del Teso bezala mintzo zara, eta horregatik maite zaitut.

– Xoxola!

– Nik amodiozko ixtorio zardaia, pikarraia, doloretsua filma niro Bardeetan. Exilioa. Miseria sentimentala. Amnesia. Bakardadea. Itsas-ezponda urrunekilako komunikazioa. Langarraren eta ekiaren arteko solasaldia.

– Wim Wendersek egin du hori jadanik, guti gora-behera...

– Ez dakit nor den.

– Exakin puska –samurra ahozkatu zuen neskak eta imaginatu nuen kamera besagainean, Joanaren urratsak pelikula malgoetan bahitzen nituela: Poligonoaren kontrako ekaineroko martxan, gero Itoizen hariei zintzilikaturik, bezperan Leitzaranen, ondotik presoen aldeko eginkizunetan, HBren mitin erraldoietan eta, azkenik, Nafarroa Oinezen. Herri zapalduaren eta euskaldun arruntaren egitekoak zuhurki kunplitzen. Bihotza zartatzear neukan.

Ospital inguruko zuhaitzetan herots bat entzun nuen, eta zeru sakonean agertu zen autoargi zurailen dirdirak izua harrotu zidan:

– Hor dira! Utz dezagun zinema, jin gaitezen berriz errelitatera.

– Akort. Nortzuk hor dira?

– Hiltzaleak –erran nuen, sortu berria zen mututasuna nahasi gabe.

Gogora jaukitu zitzaidan aspaldiko GAL denboretan nolako ziztu bizian auto ezezagunak gibeletik zetozkigun, faroak indartsu, eta pasatzen gintuztelarik, arroilan sartzear gu, uste genuen tirokada batean untxien edo urxoen gisa akaba-

tuko gintuztela. Horrelakoak bietan gertatu zitzaizkigun, eta Baionako karriken ezagutza urria ederki baliatzen genuen. Joana, ahoa zabalik gelditu zen. Haren destrenpuaren trankilizatzeko aitortu nion:

– Ez zen deus. Garratzagoak iragaiten ziren orduan. Beldurra genuen gidatzaile. Ez dut sekula hori inori aipatu.

– Ertzoak zineten!

– Pentsatzen genuen guk, ez genuela arriskurik, baina karrikek amor eman zutenean, etxean egoiten hasi ginen.

– Hiltzaileak agian atzetik dauzkagu eta zu hor lotsaren atitxatzen! Baduzua burutik! Isil zaite otoi!

Joanak manatua egin nuen. Nihauren inseguritate sentimenduaren jabaltzeko, gisa horretako egiazko ixtorioen mihiperatzeko ohitura neukan. Aldi honetan Joanak zuen jasaten neure hitzen oldar dardaratsua. Sasiaren mediterraneoko landareen usainak baketu ninduen. Elerik ez zitzaidan ezpainetaratzen. Bapatean, Joanak erhia luzatu zuen, ospitaleko atea erakutsiz:

– Soizu, ez da inor bortan!

– Goazen beraz –oihukatu nuen, eta ustez Joana ondotik neukala, junpean abiatu nintzen, konkorturik, aurreko egunetan leku horretan zegoen sekretaria-anderearen bulegorantz.

Ehun metroko lasterketaren buruan, behagelako beroak harritzen ninduela, armairuetako tiretak irekitzen ari nintzen, eta azkenik, txostenak gerizatzen zituena kausitu nuen. Gonzalez de Mendaviarena aski fite harrapatzeko suertea ukan nuela erran nezakeen. Begirada bat bota nion: Top Secret idatzia zeukan azalean.

Txostena eskuetan tinkirik, ospitaleko atera heldu nintzen. Inguruari so bat eman nion, eta ohartu nintzen Joana, sasien gordagian geratu zela. Pentsatzeko astirik gabe, korrika behar nuela oroitu nintzen, beldurrak bestela tokian kurutzefikatuko ninduelako. Eskaileretan behera, urrats bat, urrats bi eraman nituen: izuaren eraginez zangoak erabiltzen genituen kariak zerrendatu nituen. Ibili dabilen herria ez da nehoiz suntsituko, errepikatzen nuen, barneko indarren zuzpertzeko. Airatzea desir nuen. Baina ez nintzen txoria eta lurra zen nere berma-puntu bekaitza. Non zegoen Joana? Gordagiarako ehun

metroak ezinago iraunkor iduritu zitzaizkidan. Oihu egin nuen:

– Joana?

Erantzunik ez zidan haize meheak ekarri. Nora eskapatu zen zaraitzuarra? Konfiantzazko kidea. Maitea. Itsutuki jarraitzen nuena. Maite nuena. Maite. Maite. Maite. Bihotzaren taupadek amodio aitormena mailukatzen zidaten. Bertan jakingo genuen zer agitu zitzaion Uritzi... eta Joanaren hatzik ez zegoen nehon.

Hastamuka txostena zabaldu nuen eta gorriz Top Secret idazkia zeraman hostoa hartu nuen, galtzetako sakelaren batean purtzilikatzeko, inkase. Orduan, ospitaleko sargia nagusitik mercedes handi baten argi goibelek nere aitzinamendua moztu zuten banpez. Deiadarra hedatu nuen berriz:

– Joana?

Galdurik nintzen. Zeharkako bidean sartzekoa nintzela gogoratu nuen. Baina ideiaren pratikan obratzeko betarik ez nuen ukan, autotik tarrapataka jautsi bi gizon azkarrek lurrera aurdiki nindutelako. Aurpegiarekin harri koxkorren labana jastatu nuen. Hilotzaren pare, hedailo erori

nintzen. Gizonetarik batek eskuan fermuki neraman txostena ebatsi zidan, besteak ostikoka errendarazten ninduen artean. Txostenduna ere kolpeka hasi zitzaidan eta negar-korroka elkorrez herioaren haiduru egon nintzen. Min nuen plazerrarentzat edo plazer lehiarentzat moldatua zen gorputz guzian. Ahotik odola zaridala nabaritzen nuen, xirripa gorrail, bero eta karatsa. Erraiak zartatzen, lehertzen, purruskatzen eta hausten sentitu nituen. Bukaera zen.

Entzun nuen hondar herotsa, autoaren motorrarena izan zen. Pairamenean barnako bidaiari uztartu nintzaion, flako eta goguts. Ginarreak malgor neuzkan, hezurrak apurtuak, eta Joana nora mila deabru eskapatua zen ez nekien. Jakin baldin banuen ere, ez nintzen gehiago gai haren sahetsera joateko. Azkenean, minaren kontzientziak abandonatu ninduen, eta nere arima goihenaren meneko utzi nuen.

Mila aldiz, euskal literaturaren urrezko orrialdeetan erakutsi xenderetan lerratzera ausartu nintzen. Minaren kontzientziak bake sentipen alegera bati lekukoa eman zion. Ustegabean ongi eta sendo nintzen. Bataila handiaren ondo-

tik armistizioa sinatzean, etsaiarekin akomatzen zenean bezala. Oinazearekin batera, larru eta botere nahikundeak desagertu ziren nitarik: zer nintzen? Jendea oraino ala gaiaz hustu izate airakorra? Pentsamendua baizik ez zebilkidan alhan.

Eskutartera «Ongui hilçeco bidearen» zilarrezko hostoak kabitzera jin zitzaizkidan. Katalogo baten gisakoak ziren, eta hautu asko eskaintzen zidaten. Lehena, neukan adinaz ohartuz arrunt baztertu nuen: ez nintzen linboetarako on; bigarrena ere ez zen egokia: paradisuko eremuak –Josafateko Sohoak– ez ziren neretako naski, bekatoros higatu nuelako bizitza labur osoa; hirugarrenaren aukera ez zen oraino nere gostukoa: infernuan kalitzeko ez nuen inor hil eta ez nituen eskolagunen senargaiak bide zuzenetik sekula aldendu –gehienetan alderantziz izan zelako, egiaren oihukatzea zilegi bekit–. Zeruko ateak, eternitaterantz ideki arteko geltokian egotea erabaki nuen: purgatorioan halatan, betikotasunari ohitzeko astia neukan eta ez nintzatekeen etxetik sobera urrun, alabaina Oihanartetik Purgatoriora lau kilometro eskas baizik ez zirelako.

Banbako bat hauteman nuen, tronpeta hotsezko deiadar ozenez inguraturik. Zorion muskila finkatu zitzaidan bihotzean, musika asko maite nuelako, kobrezko tresnena baino kitarra eletrikoena laketago ukan arren. Bizar fin batekilako gizon mehe bat agertu zitzaidan, hedoiez jantzirik. Emazte politik ez nuen ikusten eta tristetu nintzen, zerua gizonen erresuma zela onartzean. Gizon zardaiaren irriñoak izpiritua lasaitu zidan. Zilarrezko hostoak marmolezko ttottogia hotzean pausatu nituen, gizonaren prestuki agurtzeko. Lurrean ongi-ikasia izateko hezia ninduten neure aitetama gaixoek, eta komeni zitzaidan lurrean nola zeruan ere haien gomendioei moldatzea.

Gizon mehe etertsuaren bizarra haize arinak harrotzen zuen. Amultsuki begira gelditu zitzaidan, konpasionez, urrikiz eta pietatez. Gizonaren eskuinaldean beste lau baziren, armada amerikanoaz biltzen ziren filmeetan nola papoan beren izena zekartenak. Joanes zeritzona buruzagia zirudienaren gerrian behera musuka lerratu zen, zankartean mugimendua geldoaraziz eta

oinetara plegatu zitzaion apalik bezain errespetuz murmuratuz:

– Ni ez naiz zure txülülaren jotzeko gai...

Hitzen zentzu erotikoek harritu ninduten, eta iduritzen zitzaidan ele horiek berak nonbait behatuak nituela, uraren, gatzaren eta intsentsuaren usainaz apaindurik. Abantxu «Naizen neskato umil hau...» salmoaren ahoak eman ahala abesteari ekin nion. Bezpera jendetsuetako salmo airosaren ordez, eta nihaur trßaukatuz erran nuen:

– Jesus!

Gizonak besotik zalu hartu ninduen eta lau apostoluez bizkarturik, haren hatzetarik arraiki abiatu nintzen.

–18–

Zerurateko neure xenderan Jesus! oihukatu nuelarik –uda hartan modan zen oihutu hitza erabili behar nuena?–, Joanaren aurpegi maitekorra agertu zitzaidan. Zaraitzuarraren begiek beldur hotza erakusten zidaten, ni aldiz heinbat lasai nintzen bitartean: alabaina, purgatorioko behagelan ama, amama eta sendiko emazte guziak eleketa gurutzatu nituen, amultsuki neri so, ongi-etorri hunkigarrika. Egiaren errateko sohakoa malkoz busti zitzaidan ama agurtu nuenean, eta haren altzora jauzi egiteko gutizia ezabatu nuen nigan, hatsanga, negarrez hipaka lehertu nintzelarik azkenean: ama, ama, ama!

Ingurua aztertu nuen bihotza jabaldu orduko, eta purgatorioko atean amamarekin mintzatu nintzen:

– Non dira attatta eta gaineratiko etxeko gizon zenduak?

– Paradisuan, haurra.Gu hemen, emazteak bekatorosagoak girelakoan.

Irri zabal eztiaz edertu zen amamaren begitarte zimeldua. Umetan ezagutu nion bilaire zilarrak ere airostasunean parte hartzen zuen. Plazer nuen berriz amarekin izateaz eta egoera baikorra zen. Iduritzen zitzaidan hainbeste gutietsia zen ‘apezen euskal literaturak’ betiereko zorionaren segurtasuna garraiatzen zuela. Denbora berean harritzen ninduen neukan pentsamendu hiper-konformistak, lurrean nintzenean, gohainduraz irentsi nituelako ‘atzoko eta egungo euskal literaturako’ orrialdeak, sotanaz edo pied-de-poule jantziaz apaindu idazleen eskutik izkribatuak izanagatik.

Joanaren ezpain-marra ezkeltuz, nioen ez nintzela oso normala. Balaka leunak nabaritzen nituen kopetan. Bapatean, freskura jaukitu zitzaidan. Okre koloreko eremu huts eta beroak: lautada etertsuak ahantzi nituen eta Mauleko lantzerpean nindabilan Zeldaren sahetsean. Jende-harreman trinkoetan urturik.

Oroitzapenak –edo errealitatea zen?– behialako negar gogoa piztu zidan eta zintzur zokotik oihartzunik gabeko deia luzatu nuen. Goiza gris altxatzen zen, arbelezko hegatzak dir-dir araziz

eta Zeldaren gorputz biluzia neukan aldamenean. Apirilaren laua zen. Udaberria indarrez zetorren, berde, berde, berde, berdetasunean berme. Zeldak, lanera joan aitzin kanpoko euriz usaindu musua eskaintzen zidan, elkarrekin kafearen hartzera gomitatuz. Eta nik... Eta nik... «Bakean ütz nezazü» ihardesten nion nagiki. Zeldaren samurtasunak desira pizten zidan. Jeikiko nintzen bai aski garaiz, bulego xahatzera abiatzeko eta kolegek asteburuak zuriketa latsen eta lisatzen iragan zituztela espantuka entzuteko.

Oihan Beltzetan pagoak, haritzak, gaztainondoak, gerezitze-basak, lizarrak ipar haize motzarekin jostatzen asmatzen nituen. Auzoko gizon edo emazteak ehorztean, uhar bortitzen meneko, mundua –neure mundu bekaitza, prefosta!– suntsitzen zihoalako sentimenduak ninderaman. Liliak, «A mon papy chéri» eleak zeramazkiten marmolezko plakak, Herria astekariko nekrologiak munduaren lekukorik gabeko desagerketaren alde berdinak ziren. Alta bizitzaren garaipena aldiro fermuki altxatzen zen hilerri zilatu berrietako lokatzetan.

Bizkitartean, asteburuak arropa garbitzen, errauts kentzen eta jateko adelatzen gastatzen genituen denek. Lanean, nagusi tiranikoen manuen kunplitzen, laidoak jasaten, ego azkarren erranak gainditzen eta bidegabeko erasialdeen ondotik malkotan:

– Berrogei urte ditut eta oraino sensiblea naiz...

Herioa esplikatzen jakingo bagenu den-mendreneko haur mukizuari, salbatuak ginatekeen eta bizitzea amiñi bat hobekiago eramango genuke. Baina ez genuen horretarako ausartzia izpirik. Ostatuan nintzen ordukoz, Zeldaren haiduru. Ausartziatik debaldetasunerako jautziaren zain. Han baziren Mauleko ikastolako bospasei burraso, solas-molasean garagardo haguntsuak ahoratzen ari zirenak eta ulertzen nuenaz Herriko Kontseiluarekin egonak ziren sos-eske:

– Mauleko haurrak baizik ez dütüe kontütan hartzen!

– Jin gitean oro Maulerat beraz...

– Ertzo zirea?

Zelda tabernan sartu zen. Eder. Alai. Lantegian zortzi oren ereuntsirik hautsia. So geratu

nintzaion. Mauleko ikastolako burrasoen helezinak ahantzi nituen osoki. Ahotsa arraitu zitzaidan Zeldarantz:

– Haur bat balin badügü ikastolan ezarriko dizügü?

– Gük? Haur bat? Amaia... –erantzun zidan harriturik Zeldak; besoak zerurantz itzulika eihera zaharraren moldean altxatu zituen, irri karkaila erraldoiz bururatzeko.

Alabaina, zergatlk ez? Ontsa lizateke... Amaia nintzena? Gogoa iratzarri zitzaidan. Bai, Amaia Ezpeldoi nintzen zuzenki. Nere izenaren ozena biderkatua nabaritu nuen, ahozkatu ‘umekeriaren’ ondorioz, eta Zeldaren sohakoari uztarturik natxizkan begiak ireki nituen, Joanaz eta Jason Gonzalez de Mendaviaz inguraturik nintzela ohartzeko. Joanak berriz deitu ninduen:

– Amaia, mesedez, esna zaitez!

– Joana? Zer ari zara zu ostatu honetan? Zeldarekin nintzen!

– Erotzen ari zara ala?

Betazalak apaldu nituen. Ametsak ninduen eraman Erriberatik Zuberoalat, Tuteratik Maulera, Pepek gidatzen zuen autobus hanpatuak

baino lasterrago. Eta haur desir hura zer zen? Beldurrak katestatu ninduen.

– Zer agitu zait?

– Zafraldi bat bildu duzu, han, Reina Sofiako aparkalekuan.

– Non naiz?

– Tuteran. Jasonen etxean. Uritzen aitaren kontsultan.

– Ez naiz hil orduan?

– Hil baldin bazara, berpiztu zara, hirugarren eguna baino lehen!

Jason hurbildu zitzaidan jori bero ketsuz bete katilua edateko eskainiz.

– Hurrupa ezazu, on eginen dizu –erran zidan Jasonek gozoki, eta Jasonen erremedioa ezpainetaratu nuen.

Bardeetako gauerdi urdinean, Zuriñe Nafarroako erregin lurgabetuak irentsarazi zidanaren gustu bera antzeman nion: amodioz ihardokitze mutuarena. Begiak hertsi nituen, ur gazi, mikatz, usaintsuak nere erraiak, giharreak eta izpirituko molekulak zeinen eztiki kilikatzen zituen barnaki sentitzeko. Bizirik nintzen. Bizirik. Herioan amaren parean eta Zeldaren sahetsean nindabilala-

ko, halako haustura batek inarrosi ninduen. Joanak eskua hartu zidan erranez:

– Jasonek baditu elementu ainitz zuretako.

– Ontsa. –eta Jasoni eman nion hitza–. Mintza zaite trankilik.

Jasonek zintzurra karrakatu zuen. Isilunea gelaz jabetu zen:

– Begira, Argedasko bidean kausitu dituzun odol ttantta idorrak Uritzenak dira. Hori batetik. Bestetik, metal puskak ez dira aireko batenak. Zerbait arinagoarenak. Trenputxartua zinen artean, zure galtzetako sakeletan hau aurkitu dugu...

– Zer da? –galdetu nuen paper zuri purtzilikatua ikustean.

Jasonek segitzen zuen hitz bederaren zamaren karreatzen:

– Paper bat. Ospitalean ohostu duzun txostenatik ateraia. Top Secret idazkia darama gainean.

– Ez naiz deusetaz oroitzen! Nik? Ebatsia?

Joana irrifarrez trufatu zitzaidan:

– Zu ere amnesikoa bihurtzen baldin bazara, xahu gara! Arraileria salbu, paper horretan izkri-

baturik da maleta ez dutela harrapatu Uritzen autoan.

– «Dutela» erran duzu bihotza: baina nortzuk?

– Baneki! Zu horren atzemateko pagatua zara naski!

– Pagatua? –oldartu nintzaion gauzak hain sotilki kontsideratzen zituen neskari–. Aise ari zara! Zurraldi biltzeko ba! Abandonatzen dut inkesta dilo hau eta agudo Maulera banoa! Ez naiz detektibe amerikanoa ni, kolpeak eta tiroak trumilka egarteko; ez naiz zorigaitzez Philip Marlowe, ez naiz Scully beldurgabea, Mulder-en laguntzailea, are gutiago odola uhinka dariola xerkatzea laket zaion Kinsey Millhone andereñoa! Ene lana, normalean, ohaide infidelen eta kabale errebelatuen etxera ekartea da! Badut aski oraikoan! Aserik nago! Segi ezazue zuek! Bakea behar dut! Zelda behar dut!

Monologo kexatua bukatu nuelarik, Joana eta Jasoni ttattit beha egon nintzaien: zur eta lur zeuden biak. Galduak baina ez desesperatuak. Ordea, medikuaren aurpegian duda izpia irakur-

tzen nuen. Otoizka –txantaia ote?– hasi zitzaidan:

– Mesedez... Uritz gure seme bakarra da. Zerbait arraro gertatu zaio, maleta madarikatu baten kausaz. Bide onean zaude, jarrai ezazu: Mercedes handi bat oparituko dizugu.

– Mercedes bat? Peko Arrüa hertsi eta junpekari hartan nola pasatuko naiz, Kontseilari Orokor berriaren Peugeot 605 animalea gurutzatzeko makurra baldin badut?

Peko Arrüa asmatzean, irriz urratu nintzen, eta bapatean umore ona hedatu zen nigan, behialako ur-joriaren antzera. Karkarak giharre doloretsuak inarrosten zizkidan eta minez kiribilkatzen nintzen. Medikuak bi pastila eman zizkidan:

– Minak jabaltzeko. Estomakan ostikoak ukan dituzu eta horregatik zara oinazeetan. Orduan, zer erabaki duzu?

Bi lagunak begi-ziloen mirazkatzen ari zitzaizkidan, erabakietan erabakiena agertu nien arte:

– Darrait.

Txaloka lehertu ziren Jason eta Joana. Gizon adinduak armairu bat ireki zuen, handik Johnny Walker whisky botila baten jalgitzeko.

– Ospa dezagun erabaki hau! Amaiaren ohoretan!

– Darrait, baina ez dut Mercedesik nahi –zuzendu nion basoak arradan betetzen ari zen medikuari.

Whisky ttilikak aho-sabaia jazarrarazi zidan eta pixkolatzen nindoala iduritu zitzaidanean, gogoratu nintzen aspalditik ez nuela zigarretarik erre. Joanari winston bat amoinatu nion eta, laster, keak gorputzeko eta izpirituko minak eraman zituen, ezerezean deusestatzera.

Jasonen kontsultako leihotik goiza itseskatzen ikusi nuen. Ideiak biribildu nituen: banekien orain Uritzek istripua jasan zuela maleta xarpil batengatik. Banekien ere aurrera jo behar nuela, eta gorago deitzen nuen Zeldaren behar fisikoa gerorako uztekoa. Loak harrapatu ninduen, whiskyaren eraginez menturaz, eta esnatu nintzenean Joanak bitxi kausitu zuen egin nion galdera:

– Herria astekaria leitzeko gutizia dut!

– Hemen?

– Bai, hemen eta bertan, paradisuko atean nintzelarik bezala.

– Ez dizut ezer ulertzen.

Esplikatu nion, hil nintzela eta hauta nezakeela linboaren, infernuaren, purgatorioaren eta... betiereko zorionaren artean. Agerpenaren denboran zehar, Joanak burua ezkerretik eskuinera mugitzen zuen etsiturik. Erran nuen amarekin mintzatzean zintzurrean traba astuna nabaritu nuela, dolamenaren karga, hots. Erantsi niolarik, hiletarik piztu nintzela ondotik, arras zoratzen ari nintzela iduritu bide zitzaion zarraitzuarrari. Gehitu zuen ez buru ez buztanik ez zuen solasaren ebakitzeko gisan:

– Mikoleta bizkaitarraren arabera «Emaztea ona dala, bearturik dagoanean».

– Bearturik?

– Ehortzirik... nahi baldin baduzu!

Ez nion Joanaren piko ustelduari kasurik eman eta nereari bermatu nintzen, bidearen ederra aurkezten, lau ebanjelistak aipatzen, Mathusalemen garaiko ixtorioak kondatzen, Abraham, Budha, Mahomet eta Jesusen erakaspenak

azaltzen, Jondoni Petritik gaur egunerainoko aita sainduak zerrendatzen, Tour de Franceko irabazleak edo bederatzi korrika hunkigarriak bailiran, xehetasunak oro baliagarri zitzaidan memorian bilatuz.

Joanak ez zezakeen jasan neure mistizismo krisia harroa:

– Euskaraz ezin da dibortzioa neholaz ere azaldu erdara sartu gabe, omen, ordea elizako gertakarientzat zer nolako hiztegi aberatsa! Nazkatzen nauzu! Ez zaitut inoiz horrela ezagutu!

– Zertan ari naiz ni?

– Kezkatzen nago: teologia gora eta behera! Espantuka! Urguluz! Hil eta arrapiztu zarelako! Bada besterik hala egin duenik, e!

– Barkatu. Oro nahasten ditut. Hemen Tuteran naiz. Jasonen etxean. Uritzen amnesiaren zergatiaren trenkatzeko.

– Hara zuhurtzia azkenean! Jakizu goresten ari zinen elizak emazteen eskubideak ukatzen dituela eta gure arteko amodio hau bera debekatzen.

Joanaren aldi zen kexatzea. Neskaren sohakoa sutsu mirestean, gorputza gorputzari zego-

en uneaz gogoratu nintzen: elizaren hamar manamenduak hurbiletik segitzen baldin baziren ‘ontsa hilçen’ ginen baina sekula ez galanki bizitzen. Joana sahetsean, nahiago nuen ‘galanki bizi’ ezenez eta ‘ontsa hil’. Uritzen memoria harrotu eta ahal bezain laster Mauleratu, Zeldaren konpainian egunen bukatzeko.

Telefonoak jo zuen. Goizeko zazpiak eta erdiak ziren. Herotsak belztu gintuen. Hormaturik geratu ginen, zeinek urrutizkinaren besagia altxatuko. Lo kuluxka baten egiteko estakuruaz Jason desagertua zen eta biak bakarrik ginen medikuaren kontsultan, zain. Orotan mina eragiten zidan harrabots luze meheak bost aldiz adierazi zuen bere txirrina. Joana zutitu zen, ni baino egoera fisiko hobeagoan zegoelako.

–19–

Lolaren telefono-deiak minaren erresumako lohordi nahasitik ilkarazi ninduen. Izpiritu amilduaren inarrostera behartua nintzen hondarrean eta Joanak nere itxuraldatze baikorra begionez ikusi zuela aitor nezakeen. ‘Libratze’ hasperen etsituz agurtu zuen neskak egunsentia, argi zirrinta, azkorria, oilaritea. Telefono ukalditik landa ez genuen pentsamendukan sobera denborarik galdu. Gaztanbide karrikaren izkinan Joanak utzia zuen autorantz lehiatu ginen tarrapataka, deiak zainetan isuri zigun abiadura gainditu nahirik. Alabaina, ez genuen usaian bezala, sareak urxoak airatu ondoan hedatzeko asmorik.

Goiz berriko ekiaren ziztek urratu ziguten larrua: beroak jadanik zapaltzen gintuen. Joanak gidatzen zuen, ni aldamenean oinazez plegaturik nindagoelako. Korellako bideari ekin genion, Tuterako industrialdea zeharkatuz.

Gogoak alhan genituen, eta Lola hura nor ote zen ari ginen galdezka: emaztearen ahotsa tele-

fonoan beldurtua bezainbat dudakorra zela iduritzen zitzaidan, alkoholak higatua bailitzan.

Lurralde idorrak trebeskatzen genituen, buztin horail mihiak erregebideraino lerratzen zirela: erabaki genuen Lolaren ez gehiago aipatzea, aski garaiz edukiko genuelako nor, zer, nola, zergatik eskaerei ihardespena. Harrigarri zitzaidan halarik ere beldurra zein erraz barreiatzen zen kasko batetik bestera, eta izua munduko gauzetan zehazkienik partekatua zen ontasuna zela erratera nindoalarik, Zentronikoko hiriak ortzaiza bete zigun. Orduan, Korellako kurutzunean eskuinaldera hartu genuen eta handik, frango fite, Korellako parte zaharrean abandonatu genuen autoa.

Korellako elizako zeinuek zortziak xugunki jo zituzten. Inguruetara beha geratu ginen hitzik ahoratu gabe, zerua edertzen eta laudatzen zituzten zikoinen airaldi graziosak miresten. Fronteraz haraindira itzultzean, ortzea biziarazten zuten hegazti eztien falta sumatuko nuela xuxurlatu nion Joanari. Hark, horma aberats batetako kantoinean zegoen eskudo zizelkatuan idatzia seinalatu zidan:

– Hemen dago!

Zaraitzuarrak erakutsiarantz zuzendu nuen sohakoa: «Jaungoikoa etxe honetako Jauna da!» izkribatua zen euskaraz harrian. Zigiluan otsoak azaltzen ziren, ilargi ahul bat, gerletarako bandera ugariak, burdinaz apaindu soldadoa eta hiru lehoi betikotzat harri puskan ohatuak. Hemen berdinki, indarraren –keria edo tasun ez erabiltzeagatik– presentzia nabari zen, indarraren itzala bederen. Joanak ametsa ebaki zidan:

– Sar gaitezen bihotz...

Gaztain egur astunez moldatu atea bulkaturik, gela handi fresko batean kausitu ginen. Sala hartan ikusi genituen menderen mendeetan metatu jargiak eta mahaiak, murruetan gudari-arropetan margoztu gizon zenbaiten potretak aztertzen genituela. Eskailera erraldoiaren goialdean, andere bat jaukitu zitzaigun:

– Gure arbasoak dira. Karlistak. Aurrera. Banekien etorriko zinetela!

– Eta bai: deitu gaituzu eta jin gara, normal den bezala –pragmatikoaz osatu zuen Joanak emaztearen agur antzekoa.

Botz hautsia entzutean, neskak eta biok behako kezkatua trukatu genuen. Anderea edana zen, biloak harro eta eskuko erhiak ikaran.

Lola zeritzona gure artera ausartu zen. Zaiapeko –kotapillot?– brodatuaren gainetik, zetazko gela-apaindura gorraila zekarren, den-mendrena makurtzen zenean bularren junta argitan uzten ziona. Une hartan ez nekien zergatik, begirada amultsua zor niola bururatu zitzaidan. Jujatzeko nere ohitura gaitza baztertu nuen, eta sukaldera zihoala, galdetu nion:

– Zertarako jin arazi gaituzu?

– Beno... –gelditu zen Lola–. Lehenik kafe bat behar dut. Barda arratsean, lanean nintzen eta ospitalean zerbait gertatu da: Uritz Gonzalez de Mendaviari dihoakion txostena ebatsi dute. Ikusi zaitut Uritzen gelan eta mutikoaren aitarekin kontaktoan jarri naiz zuregana heltzeko. Horrela zarete hemen. Egun txarra da neretzat.

Negarrez hipaka urtu zen bapatean eta gorputza moleskinezko jargiara aurdiki zuen ezintasunez bezain hordimenez. Ez genekien zer egin. Joana, ni baino zalhuago suertatu zen:

– Zer gertatzen da? Zergatik hainbeste edaten duzu?

– Mozkor zinteke bai zu ere –ebaki zuen motz–, lanetik itzultzean, akitua, bizpahirutan segidan, ohean espero duzun senarra etxetik kanpo parrandan dabilela ohartuko bazina! Erizainontzat ez da familia-bizia segurra eta erraza: ordutegi lakarra dugulako. Bakarrik nago orain eta agian luzarako.

Hitz madarikatuak ezpainetaratu zitzaizkioneko, lotsak katestatu ninduen: bakardadearen onartzea zen nekezena egunerokotasun fribolo honetan; nihauk ere ez nion sekula zuzenki erraten Zeldari non eta norekin nindoan. Ezin. Zintzurra korapilatu zitzaidala sentitu nuelarik mintzatzea deliberatu nuen:

– Senarra etorriko zaizu laster: auzoko saldak urrunetik oparoagoa ematen du eta ahosabaian mikatz gero...

– Zer zara zu? –oldartu zitzaidan Lola–. Ba al dakizu zer den hamabost urtez gizonarekin ihardutea, amodioz edo usantxaz, eta derrepentean bakarrik!

– Barkatu. Mutxurdin ondoa naiz egia erran. Zer salatu behar diguzu Uritzen kasuaz? Istripuaz, hots.

Jargiaren altzo sakonetik altxatu zen anderea. Sukaldera ernatu zen, eta minutu zenbaiten buruan berriz agertu, hiru kafe kikera azpil-zabal batean zekarzkiela. Mahairantz okertu zen: kikerak pausatu zituen. Zigarreta fina piztu zuen eta ke biribilak airatzen begi gorrituz segitzen zituela, arraposki hasi zen:

– Uritzek istripua eduki zuen gauean laneko nintzen Reina Sofian. Zuzendariari hots egin zioten eta handik laster anbulantziak, anbulantzia militarrak uste dut, gorputz apurtua ekarri zigun. Urgentzietan sartu genuen Uritz eta operazionetik landa, bost egunez egon zen erreanimazio gelan. Gela hartako ateak paisanoz zebiltzan bi guardia zibilek zaintzen zituzten. Eri berezia zela susmatzen genuen. Bere burrasoek ez omen zekiten semea ospitalean zutenik ere.

Istorio bitxi zein tristea kontatzen zigun Lolak. Apirilaren lauan agitua argiago zitzaigun. Emaztearen irakaspenetako zenbait ele azpimarratu nituen, xehetasun eske:

– Militarrak? Poliziak? Aitamek deus ez zekitela?

– Bai, zuzendariak etxekoak seigarren egunean abisatu zituen, ‘norbaiten’ baimena jaso ondoan. Norbait hori paralitiko kaideran dabilela iduritzen zait. Istripuaren gauean ospitalean ikusi nuen... eta kideek Bill deitzen zioten.

– Bill? ‘Norbait’? Zer basarta!

Emaztea isildu zen. Geroago ilunago zitzaidan Erribera eguzkitsu honetan Uritzen memoriaren harrotzeko neukan eginbidea. Bezperako zafraldiaz oroitu nintzen eta sabela oinazeetan bildu zitzaidan. Minaren zimiztak sahestuz frankoki jostatzea erabaki nuen:

– Barda, justoki, ospitaleko sarrera-bulegoan Uritzi dihoakion txostena ostu dut eta, beno, bi gizonek hil arte jo naute Reina Sofiako aparkalekuan. Txostena galdu dut bidegabeko borrokan. Ordea, paper bat salbatu dut. Hartan, maleta baten izatea aipatzen da. Ba al dakizu zerbait horretaz?

– Ez...

Kafe-ontzira whisky ttilika bat partta-partta aurdiki zuen Lolak, bihotzaren pixkolagarri. Tri-

pan min nuen nik. Hesteak botatzeko gutizia bortitza pizten zidan Lolaren kafe azkarregiak. Emaztearen behialako «Ez» fermuak solasa ixten zuela asmatu eta zutitzeko keinua egin nuen, Joanak agertu zidalarik:

– Argedasen atzo gure autoaren inguruan zelatan bazebiltzan bi gizonekin bat bazen urruntxeago paralitiko aulkitan haiduru.

– Zergatik ez didazu hori lehenago erran!

– Orain naiz gogoratzen, maitea.

Interesanta zen. Arrazoin zuen Joanak, paralitiko aulkiak oro ez ziren sospetxosoak, non ez genituen kontestu berezian kokatzen. Argedasen zaraitzuarrak begimendua kontestuan sartzeko ordua zen.

Zelako Bill hura ixtorioaren gakoa zen zirudienez. Zein motatako lotura zeukan Uritzekin? Maleta misteriotsua zena haria? Zer zegoen maletaren barnean? Itxura guzien arabera aitzinatzen ari ginen, baina urrats mantsoetan, mantsoegietan. Galderen ainiztasunak burtxoratzen ninduen. Zeldarekin noiz? Beldur zozoak jauretxetik kanporatu ninduen, Joana eta Lolaren harridura kilikatuz. Joanak oihukatu zidan:

– Nora zoaz Amaia?

– Hatsartzera, bestela hilen naiz hemen berean!

Argia ments nuen. Karrikako mugimenduak, herotsak, jendeak eta zeruan zikoina xuri-beltzak eskas nituen. Emaztearen desesperantzak kalituko ninduen, haren alkohol eta pixa urrinak gatibatuko, bakardadea eritasun ahalgegarria baitzen. Korellako plazan bake doia harrapatu nuen. Joanak Lola etxeko atarian agurtzen zuen bitartean, Lolarengana hurbildu nintzaion:

– Zergatik mintzatu nahi zenuen gurekin?

– Kontzientzia arintzeko gogoa neukan. Gure artean bego hau guzia. Ez dut arazo gehiagorik nahi. Badakit Uritzen aitetamak egia jakin lehiaz dabiltzala apirilaren lau hartaz geroztik.

– Zaindu zaitez Lola –amultsua murmuratu nion eta gohainduragatik besarkada tinkoaz despeditu nuen.

Joanaren sohakoa pindartsu zegoen, sutan, erretzeko prest. Autorantz abian ginela erasialdiaren tenorea jin zitzaidan:

– Eroa zara ala? Nihaur uzten nauzu Lolarekin; zu zara, ez, detektibea?

– Lasai Joana, lasai. Hatsa bahitua neukan.

– Akort. Zer egiten dugu orain?

– Tuterako ospitalera!

Zentronikon gaindi Tuteralatzea deliatu ginen. Korellako hilerria ikusgarria zela ohartarazi zidan zaraitzuarrak, eta hark desir zuen bezala obratzea onartu nuen, indargabeturik. Estomaka garrasika ari zitzaidan eta airearen jastatzea on baizik ez zen neretako.

Joanaren mintzoa ez nuen trabatzen, autoirratian lurralde berde eta hezeak hain ederki abesten zituen Benito Lertxundiren zinta bazebilela. Orbaizetako arma olharen petik iragaiten zen Irati ibaiaren txirriparen ozenak golkoa gozatzen zidan, eta lagunaren eleak hobeki irents nitzazkeen:

– Gerla Zibilaren denboran –zioen Joanak– Francorekin borrokatu zuten Nafarroako Brigadek. Falangistez eta erreketez osatuak ziren brigada haiek Mola jenerala iparralde honen konkistatzen, odoleztatzen, suntsitzen lagundu zuten.

Eñaut Etxamendiren kantua ezpainetaratu zitzaidan beti bezala, herri honetako leku bakoi-

tzari egokitzen zitzaion auhena neukan memorian.

– Karlixtoekin hasi ginen ta Reketekilan segitu... Oro Nafarroa saldu!

– Biba! Kantatzen duena ez da sekula hilko! Soizu, Nafarroa eta bereziki Erribera aipatzen denean, Berdeguneko jendeek nazionalista pentsatzen dute ezbairik gabe. Ordea, errealitatea oso desberdina da: Molaren armadek suaz eta burdinazko geziez zitzifrikatu eta menperatu zuten Nafarroa, ohizko itxura historikoetarik kanpo.

– 1522an bezala?

– Halaxe.

Autoa Korellako hilerriaren aurrean abandonatu genuen eta beroagatik, zipresondo usaintsuek itzaleztatzen zuten eremuan sartu ginen isilik. Joanak, eskutik eutsirik zuzenka, Korellako errepublikar afusilatuen hobiaren parera eraman ninduen. Bazterreko mausoleo erraldoiei konparatuz iduritu zitzaidan lore xuri, berde, arros, gorri, hori eta ubel gehien zeukan oroitarri lauza zela. Ikusten nituen hor, Jon Mirande zakarrak hainbeste iraintzen, gutiesten eta mespretxa-

tzen zuen Errepublikar banderako hiru koloreak. Bihotza jauzi zitzaidan berrogeita hamargarren urteurrenaren ospakizunetan pausatu marmolezko hitzak irakurtzean: «Biharko belaunaldiek ahantz ez dezaten jende hauek, libertatea, justizia eta errepublika aukeratzeagatik erahilak izan zirela». Tirokaturik azkenastu ziren alabaina, Toribio, Simon, Jose, Raimundo, Nicasio edo Fulogio eta beste hainbat. Hitza ihes joan zihoakidan:

– Mirande exakin eta bekaitz hutsa zen. Ez zuen inoiz ezer ulertu.

– Zer ari zara zu?

– Mirandek, idazleetan idazleenak, errepublika gorrotatzen zuen eta ez zen beltzekin edo indio larru-gorriekin haurridetzen ahal berak gutun batean izkribatzen zuenez. Nazka dut Mirande goraipatzen aditzen dudanero...

– Goazen, bestenaz zu hemen trenputxartuko zara –erran zidan Joanak amoretsu, neure aurpegi zurbailak izuturik. Halatan segitzen nuen monologatzen:

– ...Kondenatzen zuen gizartearen antzekoa zen Parisko zuberotar idazlea: eskubitarra, arrazista, zozokeria arruntaren aristokrata, indarra-

ren laudatzailea, euskaldun-fededuna hots! Miranderen ideologiaren nostalgiaz dabiltza oraino zenbait (gero gehiago naski) gure herrian...

– Otoi. Amaia isil zaitez! Pentsa ezazu urrats handi bat egin dugula Lolarekin hitz egitean eta laster jakingo dukegula Uritzen istripua zerk eragin zuen.

Hitza ahitu zitzaidan. Hilerritik ilkitzean otoitz gutizia nuen, neronendako lehenik, eta munduko zapaldu, hautsi, mutilatu eta torturatu guziendako. Banekien funtsean, mila aldiz irakurririk, ez zela literatura ez eta bizitza onik egiten ahal sentimendu eztiekin; baina zena zela, aitortzekoa neukan bihotzaren barnetik jeloskeria, nahikeria, urgulua eta gorrotoa ezabatuz geroztik, harremanak eta ekintzen norabideak aldatu zitzaizkidala. Jende bakoitzak, arraza edo kultura baten superioritatea ahanzten zenean, bere leku propioa zuen lurrean, beharren araberakoa, edozein larru-kolore, sinesmen edo ideia edukiagatik, harremanen hobetzea xede zuen ber. Salbaiak, adibidez maternalismo askoz Margaret Meadek aztertu zituenak, Sepik ibaiaren haranetako Arapesh, Mundugumor edo Txanbuliak gu baino ai-

nitzez errazkiago elkar jasaten zutelako nere iduripena salatu nion Joanari:

– Salbai primitibo hutsa naiz Joana!

– Korellan gara eta ez Ginea Berrian, maitea –ihardetsi zidan neskak, misterioz bete begirada beroaz inguratuz.

Autoan kokatzean Joanak musu lasaigarria eman zidan erranez:

– Gosalduko gara Zentronikoko kanpinean.

–20–

Zentronikoko kanpin arrada beteko edangelan kafesnea kroizantekin manatu genuen. Goseak ez ninduen bakean uzten, eta estomaka karrankan dolorez ari zitzaidan. Joanak ahal bezain eztiki hitz lasaigarriak xuxurlatzen zizkidan, baina Jason Gonzalez de Mendavia medikuak eman erremedioak ziren minaren ezabatzeko hoberenak. Ordea, pastila xuriek loeria ematen zidaten eta iratzarririk irauteko, kafe bortitza behar nuen. Noiz behinka, sabelaren zola –ez zen desiraren urrakoa naski!– zilarrezko laban batez sarraskitua nabaritzen nuen: bezperako zafraldiaren ondorio latzak jasaten nituen.

Kanpineko jabeek gosaltzeko bilduak ziren jendeak gozoki zerbitzatzen zituzten bitartean, Joanaren parean hilotz bezala nindagoen, Lolaren etxean jakinaren laburtzen: gero eta uhargiago bilakatzen ari zitzaigun Uritzen istripuaren inguruko inkesta madarikatua. Funtsean, solasez solas ikasten genuen apirilaren lauko gau hartan zer gertatu bide zen, Argedasko ateetan. Bill

izan zitekeen ixtorioaren gakoa, baina nor eta non bizi zen Bill hura? Ikerketa honetan ihardespen bakoitza galde kezkagarri bihurtzen zen. Bukaerarik ez balitz?

Estomaka orroaz hasi zitzaidan. Joana ikusi nuen zutitzen nere sahetsera hurbiltzeko, eta trenputxar zorian sohakoa, edan-gelako hormetan dilingaturik ziren Erriberako AEKren iragarki koloretsuetan bermatu nuen. Zaraitzuarrak besoetan tinkatu ninduen eta azkenean hatsa har nezakeen. Joan zen neska ordaintzera eta lasterka autora eraman ninduen, eguzki berotik salbatzera. Autoan kokatu orduko lokartu nintzen eta begia ireki nuelarik, jadanik Reina Sofia ospitaleko aparkalekuan ginen. Joanak erran zuen:

– Artamen beharra baduzu bai zuk ere?

– Ez naiz hain gaizki. Sabelean min dut.

– Sendatuko zaitut gaur –gehitu zuen Joanak, autoko motorra itzaliz.

Erne atxikitzen ninduen musika ere isildu zen.

Izpiritu barreiatua haiatu nuen, egitekoak zerrendatuz: Uritzi eskatu Bill izeneko gizonik ezagutzen edo behintzat entzuterik bazuenez haste-

ko. Gerokoak gero noski, nahiz gerotik gerora ibiltzea ez zen sobera baietsia gure herrialdean. Autotik jaustean, konturatu nintzen, zurraldia jaso nuen tokian berean beroak nardatzeko partez, on baizik ez zidala eragiten: amaren sabelerantz itzularazten ninduen. Joanaren hatzetan pausatzen nituen urrats dudakorrak eta halaz heldu ginen Uritzen gelara. Inork ez zigun aitzinamendua trabatu, ez ateko zaindariek, are gutiago sarreratokiko sekretaria panpoxak.

Uritz bere aitarekin zegoen elestan, gu ganbaraz jabetu ginenean. Uritzen behakoan harridura irakurri nuen, iragan hurranaren memoria bailuan. Ahots ikaratiaz galdatu zigun:

– Zer nahi duzue oraino?

– Uritz –ahapezkatu nion–, goazen zuzen harira: zer zen zeneraman maleta hartan?

– Maletan? Ez neukan maletarik nik!

– Ai... Ahantzia nuen amnesikoa zinela! Dena dela, egizu indarño bat: maleta hark zer gordetzen zuen baldin badakizu, Billengana iritsiko gara...

– Bill? Non dago Bill?

Aitak semearen zalantza sentitu zuen eta lauazkatzera bezala etorri zitzaion, eransten zigula:

– Bill, gaixoa, kaliforniar mutiko bat da. Duela zortzi urte lazki kolpatu zena San Ferminetan, Navarreriako iturri puntatik saltatzean. Lagunak mozkorrak ziren eta bera ere ez zegoen oso gurbil. Lurrean lehertu zen. Orduz geroztik zangoetarik paralisiaturik dago.

«Mehexi» asaldakorra marmarikatu nuen nerener, Navarreriako iturritik airatzen zirenak urgulutsu andanatzat neuzkalako, eta denbora berean bitxi zitzaidan, aitasemeek neure zafraldia kudeatu zuena hain ontsa ezagutzen zutelako. Zergatik bada ez nuen inkesta ero hau Bill nor zen eskatzetik hasi? Jakin beharko nuen alabaina hatsarretik Bill horren izatea. Debaldetan zen dena, bidea molde batez egitera derrigortu baininduen Uritzen amnesiak. Aitari buruz bihurdikatu nintzen:

– Uritzen adiskideetarik da Bill?

– Bai eta ez –jarraitu zuen Jasonek–. Bardeetan landareak eta hondar erromanikoak aztertzean ardura gurutzatzen zuen Bill gure semeak.

– Besterik ez?

– Ez dut uste. Bardea Beltzen maldan egoten da, Antso Abarka geldiunean behera doan xenderan, Santa Engrazian hain zuzen ere.

– Santa Engrazia?

Kaskoa bete zorri geratu nintzen. Hazkaroka zerabilkidan gogo lehorra, berdetasunez jaukitu zitzaidan eta Ehüjarren gora ibiltzen itxuratu nintzen: itzalpez itzalpe, ibai kantariaren ertzetik, paradisurantz. Ekain hondarrean Zelda toki kuttunera eraman nuelarik, handik itzultzean haserretu egin ginen Maulera orduko, Zelda nekatua baino nekatuago zelako:

– Bortüan ebiltea ez zeitala laket! Nahiagorik itxasoan! Ertzo zira Amaia!

– Ejer düzü Ehüjarre: bizitzearen ikurra...

– Emazte Mentxak taldekoa zira bai zü –orroaturik, bizkarrez urruntzen segitu nuen Zelda eta iduritu zitzaidan une hartantxe azken aldikoz ikusten nuela amodiora deitzen ninduena.

Negar ttanka batek busti zidan begia eta erabaki nuen, baina berantegi, ez nituela neure gustu txarrak lagun prosimoetan prosimoenari

ere hertsatu behar. Zintzurra korapilaturik tanpis etsitua errepikatu nuen mila bider.

Joana eta Jason aurrean begiztatzean, berdetasunaren samurtasunak ihes egin zidan, horailari, haize beroari, eguzki sutsuari eta tamariz tustei eremuaren uzteko. Funtsean Santa Engrazia edo Santa Grazia biak kide ziren, bata bestearen osagarri nonbait. Buruhona nahasirik neukan eta erraietako doloreagatik Jasoni erran nion:

– Billekin mintzatuko gara.

– Hark ez liro ulu bat kalit –zehaztu zuen Jasonek.

Bixtakoa zen, paralitiko aulkitan zenak ez zuela deus gaiztorik obratuko. Ordea, obratzea bat zenez, mana zezakeen. Salatzekoa niona Jason zapalduari, Lola erizainak Bill zeritzona kukuxkatu zuela apirilaren lauko gauean Reina Sofia ospitaleko aparkalekuan? Uritzen gorputza zekarren anbulantziarekin batera? Paralitiko kaidera ez baldin bazen izan, menturaz, Lola ez zela ezertaz oroituko, eta gainera Joanak Argedasen gure karroari minguru-zinguruka itzal berdinak

sumatu zituela. Neronen sekretuak neuzkala iritzi nion eta Jasoni agertu nion:

– Agian Bill, Uritzen istripuarekin junta dezakegu. Zanpatu nautenen manatzaile izan daiteke kaliforniar enbalditua. Orduan zeozer gehiago baldin badakizu erran lotsarik gabe.

Begiak biribildu zituen Jasonek, ezinezkoa aditu bailuen. Zartatzear zegoen. Pariatzekoa zen, erdietsi laidozko telefono-aldiak berriz gogoratzen zituela eta mehatxua beretako ere har zezakeela. Beretako eta oraino suertez bizirik zegoen semearendako. Lotsa bazebilkion zainetan itogarri, hatsanga:

– Ezin dut sinetsi! Baina, baina...

– Arma bat beharko dugu –erantsi zuen Joanak, gizonaren destrenpuaren arintzeko bezala.

So tzarra plegatu nion zaraitzuarrari:

– Arma bat? Zerendako? Erran dizut ez nintzela Kinsey Millhone: ez naiz pipa animal batekin ibiliko ni gero!

Joana kexatu zitzaidan brauki, haserreaz gorri-gorriturik:

– Ez, ez zara Millhone, ez zara Harry inspektorea, are gutiago Ranbo... Uste duzu ala won-

derwoman zarela! Bill hori peligrosoa izan daiteke. Arma eramango dugu. Puntu.

Muturtu nintzen. Armak, denen iduriko sekuritate gehiago ekartzen zuen, baina aldi berean, arriskua ere bai. Nere inkesta txarpilak gaur arte armarik gabe kudeatu nituen, kabale galduen kasuan adibidez, akuilu xixtadun baten laguntza baliatzen nuen arren. Arriskuetan jartzea ez nuen gogoko, ez lanean, ez ikerketetan, ez amodiotan. Ardura nahiago nuen ihes abiatu urrats bat bortxaz egin baino. Nere dudak itxuraz Jasonek partekatzen zituen. Ordea ahozkatu zuen hotz:

– Etorri neure kabinetera. Han behar duzuena emanen dizuet.

Jason, Uritzen gelatik atera zen, eta gu haren ondotik, Uritz lotan abandonatuz. Mandoan tematzen nintzen, kasko gogorretarik nintzelako. Joana trankilago zebilen, eta hain anple agertzean, espero nuen colt baten maneiatzen jakingo zuela. Pentsamendu horiek neuzkan buruan ospitaletik Jasonen bulegorainoko bidean.

Eguerdiko eguzkiak zuzenka jotzen zuen, lurra, esperantza eta biharra errez. Basamortu

desiraz nindagoen, hondarrezkoak edo haragizkoak. Errauts-ametsetan nintzelarik, ilargi marra uhargiak sohakoa bahitu zidan, memoria leku batetik bestera garraiatuz. Ixtantean Tuteratik Maulera zein Atarratzera banindoan hitz soil edo agerpen hutsak tiriaturik.

Jasonek gure herotsak entzun zituzkeen eta kontsultaz haratagoko gune batetarik deitu gintuen:

– Aurrera! –kantatu zigun eta emeki-emeki ilunpeari ohitzekoak ginen, kanpoko argitasunak itsuturik heltzen ginelako.

Argiturri ubelak irentsi gela batean aurkitu ginen. Han, Jason, tegia irekirik, guretako egokiena zen armaren hautatzen ari zen, pausatuki mintzo zitzaigula:

– Hau, Nevadan artzain higatu otto Pettek hiltzean oparitu zidan winchesterra duzue! Beti gatazkan ari ziren, omen, ardi eta behi zaintzaileak, eta ottok idazten zidanaren arabera, koioteak oihuka edo rattle-snaken zintzarradak hautematean, arma honen kanoia tinkatzen zuen, zenbaitek Biblia baino fermukiago.

Amerikaren aipamenak airosten zidan memoria-zoko zimeldua. Euskaldun orok nola, nik ere lehia bakar bat neukan: Baionan untziratzea, New York pareko Rhodes islandera heltzea, berrogei eguneko ‘bahialdiaren’ ondotik Trans American Railwaysko trenean aterbetzea eta arratsapal uhargi usaintsuan Arizonako desertuko geltoki herdoilaturen batean jaustea, goseak hilik, zorriz hanpaturik eta irauten ikasirik nukeen. Koioteen deiadarren beha iragango nuke gero, gauaren hondarra.

Bizkitartean, Jasonen armen bildumak ez ninduen Joanak bezainbat interesatzen. Amerikak! Billek zekarren landderra ere amerikanoa zen. Ainindeza estralurtiarren nuklear hatsak hurrupa, Fox Mulderren arrebaren gisa, Bill amerikanoak zekarren landderretik xixtuan urrunduz. Baina horrelakokeriak Minesotan baizik ez ziren gertatzen, eta Jasonek bere kolekzionea komentatzen zarraikan plazer izpia ahotsean, Joanaren ardura sustatuz:

– Arma bolboradun hau aitatik semera pasatu da bost mendez gure familian. Nafarroa kolpatu duten guzien aurka erabilia izan da. Baina

zuentzat honako hau aukeratzen dut: aitonak Gares aldeko Gamazadetan honekilan tiro egin zuen. Arina da, zehatza eta ekargarria.

Joanaren eskuetan jarri zuen eskopeta traketsa Jasonek. Keinu latza marrazten zuen neskak arma haztatzean: zinez pizua zirudien. Laster, colt arrunta deitzen nuena neure ahurretan zegoen. Armaren oin izoztuaren atxikitzeaz harritu nintzen. Jasonek gehitua entzun nuen:

– Horrela, hobeki ibiliko zarete! Kargatua da!

Coltarekin zinominoka hasi nintzen: altxa, apal, gora, behera, ezker, eskuin, Jasoni eta Joanari buruz aldizka, oharkabean armaren mihia kilikatuz, esplikatzen ez nekiela colt baten erabiltzen, ez nintzela kapable bi metrotara elefante baten ohiltzeko, ddestuka, bi kideen begirada larritua ulertu ezinean. Azkenean, Joana atrebitu zen:

– Amaia... Kasu... Sugizu... Hilen gaituzu. E... Madazu arma hori fite!

Ez zidana medikuak errana arma kargatua zela! Nihaur konturatu nintzen armaren arriskuaz eta zurbaildurik, Joanari luzatzeko partez, Jasonek coltarekin batera eskaini zidan larruzko

opotsean gorde nuen. Eskuen danbara jabalduri, besapean jagoitik neraman opotsari usatzekoa nintzen. Jason eta Joanaren zainak hustu ziren. Joanak debaldezko balentriak moztu zituen:

– Goazen Santa Engraziara!

– Zerbait jan beharko nuke –ohartarazi nion inoxenteki–. Badu hogeitalau oren ez dudala deus ahoratu!

– A zu! Muskarian bazkalduko gara beraz.

Medikuak xantza on desiratu zaigun, eta kontsultako ate berezia hertsi zuen. Destinuaren meneko ginen hemendik aitzina. Gibeltzerik ez zegoen: Billekin hitz egin ondoan, agian Uritzi zer gertatu zitzaion jakingo genuen eta partikulazki maletaren misterioa argituko genukeen. Sekretuki, Gaztanbiden gora Parte Zaharrera bideratzen ginenean, espero nuen Bill hura baba cool saldoko norbait zatekeela. Joanak aldiz, airarazten zituen eleen arabera iduri zuen gerlara abian zela: Santa Engrazian egitekoa Clausewitch taktizianoaren hitzekin azaltzen zidan, irri gogoa nigan piztuz.

Tuterako parte zaharrean sartzean, ekia itzal bila zebilela ikusi nuen goratasun gehiegirik ez zeukaten teilatuetan zehar. Beroak ontzen zidan izpiritua orain, eta eguzki leinuru bakoitzaren bidez erraietako doloreak ahanzten nituen. Egiaz armaren jabegoak sikologikoki itxuraldatzen nin-duen eta beste norbait nintzela sentitzen nuen: segurrago, azkarrago, ausartago. Ordea, plantan kalkulatzekoa nuen noiz eta nola atera Jasonen familiako oroitzapena.

Muskaria zeritzon ostatuan pintxo urintsuak klikatuz eta irratian jotak lerratzean, nabaritzen nuen ezkerreko bularraren aldamenean armaren fereka hotza. Zerbitzariak baso biribiletan ardoa banatzen zigun eta airostasun aieruak bete nin-duen: Jose Jarauta 'Joselico' Monteagudoko labo-rariak Gamazaden garaian sortu jota baten oihartzuna jin zitzaidan gogora:

Vivan las cuatro provincias
Que siempre han estado unidas
Y nunca se apartarán
Aunque Gamazo lo diga!

Begirada iluminatua bota nion Joanari. Hala zen alabaina: lau probintziak, edo seiak, edo zazpiak, edo gaur egun bezala, hemen bat, bestea hor eta gaineratikoa han nonbait, mugaz bestaldean, zatikatuak ginauden. Independentzia osoa atsolutoki guretzekoa genuen.

Besapean neraman colta lekuko.

Edanik eta aserik.

–21–

Bi egun lehenago ‘pentsamenduaren indar primitiboaz’ Tuteralat itzularazi nuen Joana. Muskarian gozatzen ari ginenean, sekretu handitan neskak salatu zidan moto batekin etorri zela, eta ibilgailua Plaza Berri inguruko aterbeetan gakoturik abandonatua zuela. Bizkitartean autoa jesan zion Iruñeko adiskide bati eta harekin genituen Erriberako bideak aztalkatu. Orain Santa Engraziara abiatzeko, Bardeetarik xenderaz xendera, motoak egokiago zirudiela esplikatzen zidan Joanak, pintxoak bata bestearen ondotik ahoan sakatuz. Gormandizaz ala gosez? Sabela minbera neukan nik eta ardoa baizik ez nezakeen irents: hainbat hobe hondarrean.

Ardoaren baporeek burua arintzen zidaten eta egitekoak zerrendatzen nituen. Jasonek presta eman coltak trabatzen ninduen, baina zaraitzuarraren gomendioen arabera, deus ez bailitzan ibiltzea askitto nuen. Mahats-urak errazten zidan bizitzea, eta landderrak ezin harrapatuta sentitzen nintzen. Beropean isilik, motoa aparka-

tua zegoen tokira heldu ginen: arnesa ez zen kantoreko Duccati zaharra, trial mehakoil eta zaratatsua baino. Bapatean beldurra jaukitu zitzaidan:

– Zertako ez gara autoz joaten ahal Santa Engraziara?

– Sorpresaz bahi dezagun Bill. Horretarako motoz goazen!

– Lotsa naiz maitea!

– Igo zaite gibelean eta motüs –larderiatsuaz bukatu zuen neskak solas antzua.

Joanak manatua egin nuen. Kaskoak banatu zituen, eta berotasunagatik burua gogoz-kontra estali nukeen. Besoak gerrian biribilkatu nizkion eta emazte bakar metalezko zaldiaren bizkarrean Plaza Berrira jautz egin genuen, Tuterako erromatar zubitik, burdinazko zezenak seinalatzen zuen Zaldunen Ejeako kurutzuneraino.

Joanak nahikoa laster gidatzen zuen arren, emeki-emeki izua ahantzi nuen, haizea gorputzean balakari nabaritu arau. Momentu hartan, Joana maite nuen eta herioaren dantzaldira eramatea ere barkatzen nion. Motoan, konfiantza osoa negiola aitor nezakeen, indar handiko ele-

trika linea astunen itzaletik pasatzean. Orduan, Easy riders emeak ginela itxuratu nuen eta ezpainek irrimarra plegatu zidaten. Bardeetan zinez sartu ginenean, aire eta errautsetan argiago egin zitzaidan bizitza oro ihesetik herioaren altzorako filme bakar bat zela. Nerea bai funtsean, besterenak agian errealitate gehiago edukiko zuen.

Bardeetan berriro lautada edo barta erreak ilusitu ninduen: lurraren idorrak zeru urdina gainditzen zuen eta gaita minkorren soinuak gogo-zokoan kabitu zitzaizkidan. Ber denboran bezperako minak iratzarri ziren sabelean, estomakan eta giharretan. Dolorearen baztertzeko mentalki erantsi nuen amoros izatea, munduarekin eta jendeekin batasunean ihardutea zela. Ordea, nere gustuko, orekak guti irauten zuen, bihurgunean hor baitzegoen beti, eromena gure haiduru. Hots, zauriaren sentimendua ardurenean zorionaren jastarekin eskuz esku zebilen.

Itzuli batean preseski bide-nagusitik hegora makurtu ginen, motoa aurrera zihoala, segurkiro, buztin xehea altxaraziz. Patarrean gora abiatuak ginen, gero eta gorago, berde ilunezko lan-

dare apalez estali ordokietan barna. Ezkerraldean, pentokaren maldan, zelai bat hedatzen zen, egiaz urruneko ortzaiz-aintziran galtzen. Harangoia zena? Egun zenbait lehenago Olatzen etxeko patioan hostokatu liburu koloretsuetan ikusi karten arabera, Harangoia zen han beropean nagiki atsedentzen.

Inguru-minguruka, arte laburrek eta ezkai harroek usantzen zuten gain batera iritsi ginen. Joanak motoaren motorra itzaliz azaldu zuen:

– Loma de la Negran gara. Seiehun eta berrogei metrotan.

– Gailurrean beraz.

– Trufa zaite trufa! Erremulia bildu behar dut etxeko.

– Ageri dea itsasoa hemendik?

– Itsasoa, Katalunia edo Kantabria aldean duzu –ahozkatu zuen Joanak landare ttikia erakusten zidan bitartean–. Hau sabina da: arbol urri usainduna.

– Mare Nostrum –xurxurlatu nuen, birikak hantuz kanpo zoragarriari airea ebatsiz.

Kataluniatik «ehun mando beren zilar kargekin» hurbiltzen entzun nituen, Peñaflor gazteluko

kartzelan errendatzen zihoan Zuriñe erreginaren kontsolagarri. Irri samur gutiziak golkoa kilikatu zidan. Hortzartean murmuratu nuen:

– Zuriñe, emazte euskaldunen mendeetako abandonua.

Marmarrak ez zuen inolako loturarik Uritzen memoriaren berpiztearekin, are gutiago Bill zelakoarekin. Instant bateko zimizta izan zen. Besapean neraman coltaz oroitu nintzen mekanikoki: ez nuen sentitzen non zegoen. Oihuz hasi nintzen:

– Merde, Joana! Arma Tuteran ahantzi dut!

– Ertzo zara ala? Hor duzu bere opotsean araiz!

– Beldur naiz –aitortu nuen armaren hotza bular ondoan nabaritzean eta Joanari eskatu nion:

– Emaidazu pott bat.

Zaraitzuarrak bere sahetsera tiratu ninduen, eta begiak begiekin uztartzen zirela ezpainek bat egin zuten, izuaren ezabatzeko molde tinkoan. Joanaren mihiak zinezko itsasoaren gazitasuna zeukan. Mintzatu nintzaion:

– Gaur... Zuriñe...

– Utzi fantasmak, Amaia –gomendatu zidan eta segitu zuen erranez–: Bai gaur, bizirik ilkitzen baldin bagara!

– Goazeman orduan.

Denbora gutitan, errautsez beltzaturik, Antso Abarkaren kapera eta aterbera heldu ginen. Handik ere, balkoi hunkagarri moduan, Bardeak hedatzen ikusten genituen, ilun, deigarri, su eta garretan, noiznahi amor emateko prest: gariz erein lur landuak, oliba-sail desolatuak, zuhaitz tolestuak, bihurdikatuak, gris etsitu koloreko hostoak haizetan, borda ohien hondarkinak, usain ainitzak baltsan, arranoak airean basamortuan hauts zorian zebiltzan hats-erro hilikinen klika gomitaren zain. Mehatxuaren eta bake-aieruaren artean urratzen ziren Bardeak. Nigan halaber izua eta larru-gutiziak pizten sumatzen nituen, zeru urdinetik dindilan bezala. Dudaz bustirik nintzen eta sorbaldan coltaren karreatzeak ez ninduen izpirik lasaitzen.

Bardeak utzi genituen eta bide zuzen batek Tauste aldera eramaten gintuen. Une batez, ezbairik gabe, ezker hartu genuen, bide hertsiagoren batean barna. Xendera mandrunastatuaren

ertzeetarik aitzur pikotxaz zilatu ubide lehorrak lerratzen ziren, noizbehinka arroilaren altzotik desafioka banbu-tusta gotorrak altxatzen zirela. Azkenean seinale batek Santa Engrazian ginaudela erakutsi zigun.

– Santa Engrazia! –oihukatu zuen Joanak motoaren azantza garraituz.

Nihauk ere ontsa irakurria nuen bazirela oraino bospasei kilometro herriska hartaratzeko. Eremu idorreko Santa Engrazia honek ez zuela uda apaletako Iparraldekoaren xarmarik errepikatzen nuen nerener: ainara saldoak uluxkaka ortzean hegaldaka ahuspez! Itxurak beldurra zokoratu zidan, barneko alarmak oro orroaz entzuten nituen bitartean. Joanari ere bihotza punpeka nabaritzen nion.

Santa Engrazia lehorrean ginen ondorioz. Herri sarreran abandonatu genuen motoa, eliza umilaren maldan bildua zen herriko taberna bakarrean Bill zelakoa non bizi zen galdetzeko asmoz. Ibilgailuaren zarata metalikoa bapatean ments genuen. Solasean ahotsa bortxatzen genuen, herabea sustatzen zigun isiltasun madarikatuaren ezabatzeko. Kasko-zokoan hitzak kol-

peka ari zitzaizkidan salbamen eske, eta Niko Etxarten ahaide batez askatu nituen hondar eleak:

– Baikooor...

Joanak harriturik so egin zidan, eta bere klasikoak ezagun zituela frogatzeko gisa jarraitu zuen:

– Ez dugu hemen guk oihukatzen amen!

– ...Holtzarteko arroiletan! –gehitu nuen irriz urratzen ginen artean.

Beste behin Euskal Herriko kantarien deiak jiten zitzaizkigun laguntzaile, lasaitzaile, lauzkatzaile, ikatzera igortzaile.

Herriko tabernatxoan inor ez zegoen, arrats fapala izanagatik. Kontuarrean plantatuz, bi kafe manatu genituen, eta pezetatan ordaintzean, andere mutiriari eskatu genion inoxenteki:

– Non bizi da Bill?

– Bill? Kaliforniarra?

– Bai.

– Begira, Kortesera doan bidexkaren gurutzamenduan, herritik kanpo dagoen karabana batean.

– Milesker.

Billetea kaixan plegatu zuen aspertzen zebilen andereak, eta bizkarrez zegoenean agurrik gabe ostatu hitsetik atera ginen. Plaza hertsian txakur baten zaunka behatu genuen, oilar berantiarraren kukurrukua eta leiho batetik zetorren telebistaren hotsa, futbol komentarioz ozen. Oinez segitzen genuen emazteak erran bezala. Bi palmondo miretsi genituen urruntxago, eta iduritu zitzaidan urratsetik urratsera Hawain ginaudela, Joanaren ordez Magnum edo Higgins kide neukala, motoaren zein mendi-bizikletaren partez surf-taularen erabiltzeko gai nintzela eta Erribera osoa Malibu bilaka zitakeela.

Palmondoen itzalera hurbilduz, aterbe xumea begimendu genuen: Ameriketan ohizkoa zen mobil-home haietariko bat zen, gris eta zilar. Barnean norbait bazebilela ohartu ginen eta hitzik trenkatu ezinean, kontuz ibiltzea erabaki genuen. Are hurranagotik, Bruce Sprinsteenen soinuren baten atabal ukaldi haserretuak hautematen genituen.

Got in a little hometown jam
So they put a riffle in my hand

Sent me off to a foreingn land
To go and kill the yellow man...

Bam... Bam... Bam... Bo in de iuesei... Ozena biderkatzen zuen haize epelak orain eta behialako Hawai baino, lekuak Vietnam antza hartzen zuen neure gogoan: gerla, borroka, komunismoaren aurkako etengabeko erasoak, napalm isurketak, My-Laiko sarraskiak, lur bahituak, emazte eta haur bortxatuak, gerlak, gerlak, gerlak, Libertate nahikundeak odolean zanpatuak, denetan, zuzenka edo zeharka pax americana zaintzearren. Zaragozako base militarretik Bardeetako tiro-poligonoaren erdi bidean ginen. Ahoa idor neukan. Eguzkia lurrertzean gordetzen zihoan. Huts eta lasai sentitzen nintzen azkenean. Mobilhomearen atzealdean, Joanaren seinalearen haiduru nindagoen.

– Aitzina neska!

Palmondoen gerizatik jalgi ginen eta deus ez bailitzan mobil-home zelakoaren atean jo genuen. Barnean norbaitek musika apaldu zuen eta gaizki urineztatu erroten karrankak bortaratu ziren. Ireki zuen.

Aurrean genuen gizona, paralitiko kaideran jarririk: Bill zen. Aurpegia labankadaz josirik zeukan eta Oakley markako betaurreko beltzak zeramatzan sudur-gainean. Ez zen guti harritu bi neska –eder?– mobil-homearen atarian ikusteaz. Irri lodi, bekaitz eta protidiko batez agurtu gintuen:

– Zer nahi duzue?

– Bill zara?

– Haaaiii...

– Mintza gaitezke zurekin?

– Of course... I am Bill Stam of Santa Teresa, Ca. Freedom fighter.

Karkaza gurintsu bezain harroaz bukatu zuen bere buruaren aurkezpen laburra. Billek bere 'karrierra' Joanari hitz espantosez kondatzen zion:

– Borrokatu dut Vietnamen, Ulsterren, Varsovian eta Torinon. San Ferminetan hautsi nuen bizkarrezurra. Eta orain hemen nago, betiko freedom fighter!

– Apirilaren lauan non zinen bada? –galdetu zion neskak beldurrik gabe.

Begitartea xifritu zitzaion. Urguluaren ordez haserre gorria bermatzen nabaritu genion. Paralitiko aulkia indarrez gibelera bultzatu zuen, ulertzen ari baitzen zertara gentozen. Eskuaz mahaiaren aldepeko tiretaren idekitzeko keinua egin zuen une berean Joanak oihuztatu zidan:

– Redios Amaia! Jalgi ezan colta!

Orduan, saia eta saia ari nintzen, hainbeste denbora armari usatzen iragan ondoan, ez nintzen gogoratzen ere Garesko Gamazadetako pistola zaharra neramala. Besoa altxatu nuen eta mendea zirudien minutua ahitu zitzaidan opotsetik arma ilki nuen arte. Joana enauketua zen, garrasika:

– Erna hadi! Tuntuna! Bestela biak kalituko gaitin!

– Hara! Hara! Bill, ez igi otoi!

Bi ahur durduzatiz natxikan Jasonen aitatxiaren animaleko pipak kaliforniar gaixoa hormatu zuen. Eskua mahaian debaldetan utzi zuen gehiagoko jesturik gabe. Joanaren manuak konplituz, kaiderara hurbildu nintzen eta belarripean kokatu nion Billi pistolaren mutur karroindatua. Joanak galdera errepikatu zion:

– Non zinen apirilaren lauko gauean, Uritzek Argedasko bidean istripua jasan zuelarik?

– CIAko agentea naiz. Hilik ere ez dut hitz egingo!

– Ageriko hori! Hil baino lehen askatuko duzu bai mihia araiz!

Joanak begi-keinuaz armaren puntarekin gizonaren lepoko zainaren kilikatzera gomitatzen ninduen. Bapatean, kontzientzia txarra hazi zitzaidan, haragiaren malgoa haztatzean eta hitzetik hortzera hiltzaile bilakatzea erraz zitzaidala ohartzean. Bala zeinen eztiki kabituko zen gizaizoaren zintzurrean! Eskerrak finean Billek mintzatzea deliberatu zuela, bestela uste nuen trenputxartuko nintzela seko, net. Ahots ahulez hasi zen amerikanoa elearen bihikatzen:

– Gau hartan bi gizonekin Argedasko bidean Uritzen autoa ezagutu dugu. Banekien Bardeetan galdua nuen maleta hark zeramala. Orduan bide-juntan haren zain egon gara bazooka batekin. Ziztu bizian zetorren eta gure parera heltzean... banba!

– Suzko bola –erantsi nuen Billen solasa moztuz–. Zer zegoen maletaren barnean? –galdegin nion coltaren sudurraz lepoa zirikatuz.

Billen arrapostua bertan atera zen:

– Planak... Airekoen lurreratzeko aireportua nahi dugu antolatu Bardeetan, tiro-poligono baliosaren osogarri. Nago gazte mukizu antimilitarista horiek nondik jakin duten proiektuaren berri?

– Lagun zenuen Uritz ezta?

– Alibia baino ez...

Kexu eta etsiturik zegoen Bill. Lepozaina tiran zeukala ohartu nintzen. Billek jarraitu zuen:

– Maleta istripuan erre da. Uritzek memoria hustua du. Proiektuak aitzina eginen du.

–Uritzen memoria zer gertatu den ikasteak harrotuko du naski –erran nuen eta armaren mihiaren bulkatzeko gogoz nindagoen, mendekuz, Reina Sofiako aparkalekuan bildu nuen zafraldiaz oroituz. Baina ez nuen erhia mugitu. Pistola eskuan, mobil-homeko leihotik kanpora begira geratu nintzen, arratsapal arrosaren miresten, inkiet hargatik, hidoi honetarik nola ote jalgiko ginen neure buruari eskatzen. Joanak bizki-

tartean begiak diamantearen pare gogorturik zeuzkan.

Nazka neukan nagusi.

–22–

Gamazaden denborako txispa astuna zen, armen karreatzeko ohiturarik ez zuten neure eskuetan. Billen dardarrek beldurrezko uhinak bideratzen zituzten, eta Joana sekula baino lasaiago ikusten nuen, kaliforniar inbaldituak bortxaz kontatzen zituenak paperean jartzen.

Gizonari, beroa aspaldian jabaldua izan arren, izerdia kopetan behera ttortta lodika isurtzen zitzaion. Iduritzen zitzaidan emeki-emeki urtzen ari zela, baina damu izpirik ez zuen erakusten, ez Uritzen istripuari zegokionez, are gutiago militarren interesen zerbitzuan bizitza bat landderrean ezarririk. Billen usaiako lana bide zen. Eta damuak beste munduko ziratekeen. Bizkitartean, aski bagenekiela erabaki genuelarik, uuuuf luze batez coltaren plegatzeko keinua egin nuen, Joanaren begien zimizten labankadapean:

– Ertzoa zara ala? Atxik ezazu pistola hori gora fermuki!

Behialako lepozainaren juntan pausatu nion berriro Billi, coltaren mutur hotzikaratua. Anartean, zaraitzuarrak mobil-homea bisitatu eta mirazkatu zuen, gizonaren estekatzeko soka bila, eta zenbait minuturen buruan etorri zen besoak korda higatuz eta alanbre herdoilatuz kargaturik.

Joanak alanbre xixtaduna inguratu zuen lehenik Billen gorputzean, batez ere agerian ziren larru-zatien gainetik, horrela kaliforniarrak ez zuen jestu soberarik egiten ahal. Gero, sokaz tinkatu zuen gizona bere paralitiko kaiderari. Mobil-homearen barneko gauzak oro, armairuetako arropak eta gerla-sekretuen eramateko teknikak biltzen zituzten liburuak barreiatu zituen lurrean. Telefonoaren haria moztu zuen eta orduan bakarrik eman zidan neskak armaren apaltzeko baimena.

Tarrapataka jalgi ginen mobil-hometik, lasterka abiatzeko Santa Engrazia honetako karrika soilaren puntan utzia genuen motorantz. Goizeko lauak izango ziren eta gauak gauari opari ziezaiokeen freskuran Kortesko norabidean kokatu ginen, zeru izartsuaren gerizan. Lotsa desagertua zitzaigun eta sentitzen genuen Uritzen istri-

puaren misterioa azkenean, egunarekin batera, argitzera zihoakigula. Astia bagenuen goizean goizik Reina Sofiara heltzeko eta edozer gertatu aitzin Uritzekin solastatzeko. Agian mutikoaren oroitzapenak behin betikoz harrotuko genituen.

Pentsamendu horiek gogoan, Joanaren gorputzaren eztitasuna jastatuz, ziztuan bagindoazen –suzko bolak ginena gure aldian?– Buñuel, Ribaforada eta Fontellas zeharkatzen genituela, isiltasunik handienean. Herriak ebakitzen zituzten karriketan noiztenka txakur zaunka gaizki iratzartua entzuten genuen. Taustetik Tuteralako erregebide nagusitik urrun ibiltzen ginen, Erribera oraindik lokartuaren usainak estimatuz. Bideko erreginak ginen. Haize arinak izpirituaren kraixturuak askatu zizkidan; ametsari ekin nion: Baigorriko Nafarroaren Egunean edo Mauleko ikastolako Tuterarekilako birazketa ospakizunetan miretsi Ribaforada eta Ablitasko dantzarien makil kaxka sotilek esnaturik mantentzen ninduten, gaitaren soinu itxuratua bihotz-altxagarri zitzaidan eta Beterri peñako joaldunek ortze mugan nagi etzatera zihoan argizagi mauregia alaitzen zuten, eta dilon-dalanka Fontellasko

hotel abandonatuan eraikiko zen Argia ikastolaren harrien molekulak inarrosten zituzten. Historialari ofizialek, aldiro, ahanzten zituzketen Erriberako euskaldun apurren –apurrak egun eta bihar?– mintzoak. Alkatxofa eta esparragoz hazirik ozen bilakatzen ari zirela nioelarik, Joanak motoa Reina Sofia ospitaleko aparkalekuan itzali zuen. Kaskoa ilki zuen erranez:

– Ametsetan beti! Hemen gara: zoaz Uritzekin hitz egitera!

– Bai, arrunt.

Harmaren opotsa xerkatu nuen eta harritu nintzen coltaren han ez kausitzeaz. Joana trufari bilakatu zitzaidan:

– Bururik ez duzu! Ohartu ez baldin banintzen pistola han egongo zen, Billen mahaiaren gainean.

– Eske, ez daukat armaren eramateko gusturik.

– Jasoni itzuliko diogu gero, bere familiako oroigarri baliosa.

– Eiki. Arren banoa! –erantsi nuen eta buruhona Larrain-Dantzaren ahaideak kilikatzen zi-

dala, ohoinaren gisa ospitaleko bitrazko ateak bultzatu nituen.

Nehor ez zegoen ongijin gelako bulegoan. Eskailerak igo nituen eta Uritzen gelara heltzean, erhiarekin bortan lau banbako arin eginik, ganbaraz jabetu nintzen. Erremedio eta jende urrinez moldatu aire tepoak abantxu uxkaili nin-duen. Erraietako nazkaren ez nabaritzeko deika hasi nintzen:

– Uritz, esna zaitez, Uritz!

Dei apala errepikatu nion bizpahirutan kasik debaldetan, eta bapatean, izuak katestaturik Uritzek begi handiekin so egin zidan.

– Nor zara?

– Amaia Ezpeldoi. Behar naiz zurekin mintzatu.

– Tenore honetan?

– Bai. Seiak eta erdiak dira. Non dago apirilaren lauan zeneraman maleta beltz hura?

– Maleta? Ez dakit. Ez nuen maletarik nik!

– Uritz, memoria galdu duzula baldin badiozu norbaiten edo zerbaiten gordetzeko, errazu segidan! –kexatzear nindagoen–, bestela susta ezazu oroimena. Billek dena aitortu digu gaur.

Gelako hormak xuritu ziren eta punpean ohetik altxatu zen Uritz. Beldur izugarria frogatzen zuten mutikoaren sohakoek, neure ahotik isuri hitzak suzko bolaren antzekoak bailiran. Elea trenkatu nuen:

– Bill zure lagun amerikarra ohartu da maleta ebatsi zeniola, eta amerikar bati, hark eskubide guziak ukan arren, ez zaio sekula deus ostu behar!

– Bill? Paraplegikoa da...

– Zerbitzu-sekretuetako kidea ere bai. Bazooka tiro batez ebaki dizu bizitza. Zure txandan paraplegiko zirate.

– Berak ezin du ezer egin!

– Berak ez, baina manuak eman ditzazke.

Eskua bilaire nahasian hara-hona pasatzen zuen Uritzek. Akidura nasaiak zaplastatu zuen eta irrifar eztia marraztu zioten ezpainek:

– Hil zorian nindagoen, hozturik, «zai bazaude, zaude lasai» hautematen nuen su-larrek erretzen ninduten artean. Bitxia izan da guzia. Oso.

– Maletan zeuden Bardeetako amerikar aireportu xedearen planen kopiarik ba ahal duzu?

– Ez nekien maletan planak bazirenik. Ez dut lortu maletaren irekitzea. Tafallara eramaten nuen, maleta zabaltzen ni baino trebeago zen lagun bati. Besterik gabe.

– Intsumisoa zara?

– Bai, noski. Amerikanoen ideien berri banuen. Susma nezakeen maletak zeozer irakatsiko zidala. Ane nahi dut.

– Nor da Ane?

– Nere andregaia. Gogoratzen naiz orain.

Aharrosia libratu zuen Uritzek. Abantxu normalki hitz egiten zidan eta partta-partta iraganaren zatiak itzultzen zitzaizkion memoriaren osatzera. «Zai bazaude, zaude lasai» marmarikatzen zuen etengabe, txori errebelatuaren antzera. Bihotzean ximiko bat sentitu nuen. Loak deitzen ninduen ni ere. Alta erantsi nion:

– Zure burrasoak deituko ditut. Landderrean zaude. Hemendik goiti, segurtasun neurri zehatzak har ditzaten gomendatuko diet, afera jabaldu artean bederen.

– Nola lortu dituzue informazioak Billen ahotik? Bill nere adiskidea da.

– Bizirik utzi dugu. Billentzat Bardeetan trankilik ibiltzeko alibia baino ez zinen Uritz.

– Milesker Amaia. Kasu eginen dut.

Nekaduraz horditurik zegoen Uritz. Gaitzeko indarretan zinpurtzen zen apirilaren lauaren inguruko gertakarien ozkan jartzeko. Hondarrean betazalak hertsi zituen. Gaztearen atseden moldea gutiziatu nuen eta begirada bat bota ondoan, gelatik atera nintzen, huts eta goibel.

– Inkesta bururatua dut. Zeldaren sahetsera lehiatuko naiz –xuxurlatu nuen nerener, ospitaleko pasealeku antsiadun eta eter-usaindunetan barna nindoalarik.

Zeldaren aurpegi loriosa imaginatu eta harengana ahal bezain laster hurbiltzeko tiria gogorra nabaritu nuen. Berrehun eta berrogei kilometroko –Mauleko herriko etxearen sasietan landatu pankarta kolorebidunaren arabera– distantzia zegoen bi hirien artean. Morriñaren oinazeak jasaten nituen: Errigora berdeetakoa nintzen eta sobera denbora eraman nuen Erribera idor honetan.

Burutazio nostalgikoz hanturik, presarik ez neukala iduritu zitzaidan eta haiduru egoteko

jargia batek nere etendura onartu zuen. Ospitaleko leihoetarik eguna altxatzen nekusan, ortzea arros eta lurraldea ubeltasun misteriotsuaz estalirik. Uritzen memoria balakatuko zuen eguzkiak eta zoriontasun zerbait pizten zen nigan. Alabaina, estomakak sufriarazten ninduen bitartean, pozik nintzen argi pixka bat ekarririk zuzentasun eskaseko mundu honetara. Joana kanpoan zain neukala izan zen nere kontzientziaren azken pentsua.

Neguko elur ametsak garraiatu ninduen: odol ttanka gorriak zuritasuna bermarazten zuen. Lurraren azalean, odola isurtzen zen beti arrazoin berdinengatik, beti zapalduek libreago desir zutelako, gizonek, emazteek, zaharrek, gazteek lana, herria, etxea edo behintzat intimitatearen txabola ahulen segurtatzeko xedea zeukatelako, hizkuntza, ura, eta borondate horien guzien gainetik mututasunaren armaden gisa kudeatzen gintuzten tokiko eta kapitaletako botereek. Pentsamendu bakunak, jan-ereduak, josta eta kirol manerak, arropak eta amodioaren egiteko keinuak oro bateratu zizkiguten, adina, ordua, diferentziak, jende-herri nahikunde bereziak ezaba-

tuz, merkatu kontsumista bakarra osatzearren, jendeak izan baino lehen erosleak bagina bezala. Filmeekin krimen harrigarriak asmatzen zituzten eta berri-sailetako sasi-errealitatezko hilketa kolektiboak modu horretan legitimatzen. Literatura bera, ezin sinetsizko erahilketa absurdoz hanpatua zen, gurean idatzia barne. Biolentzia birtualean murgildurik, egiazko zapalkuntzak justifikatzen genituen, botereen alde ari ginen, gure haurrideen borrokaren kontra.

Elurra zikindurik zetorren. Beldurra kentzen ziguten –ala beldurraz desjabetzen gintuzten?– aldika, nobelak, egunkariak irakurtzean edo telebista pizten genuenean; haurrak ere beldurrik gabe hezten saiatzen ziren, soldadoek ekai-kimikozko neurotropeak irensten zituzten eta herriak suntsitzen jarraitzen zuten Bosnian, Ruandan, Burundin, Amazonian, Euskal Herrian, hots nonahi munduan. Beldurra baztertzean panpiña motelak bilakatzen ginen, jende-erresponsabilitatea galtzen genuen; lotsagabearen armada isileko gudariok noizean behin ametsaren bidearen berreskuratzeko ‘floating-tank’ zelakoetan aterbetzen ginen, amaren sabeleko ur-amniotikoen

nostalgiaz beterik. Ametsaren ala beldurraren sentimenduaz jabetzeko?

Puntu horretan nintzelarik, harategiak, garbiketa etnikoak eta integrismoak modan zirela nioen artean, burdinazko herots astun baten taupa hauteman nuen hurbiltzen: gohaina haztten zidan armada lehertzaile harena zena?

Armada hartako partaideen aurpegi zenbait jada ezagutzen nituen, adibidez, neure izenaren ahozkatzea hain zail zitzaion nagusi-ttipia, hogeita hamazazpi urtez lanean erauntsirik beti bezain ume eta arduragabe ziharduten kolegak, beren bizian sekulan erabakirik hartu ez zutenak, beti segitu, beti murmuzikan kexu ordea, herri hau saldu eta saltzen zarraiten apez eta notable saldoko kideak, moral-egileak, «gizon bakar baten gisa» aitzina gintezen xede zutenak –gu haien mutil edo sehi naski–, norberaren libertatearen pribatizatzeko gai zirenak, beren interesen indartzeko. Amets gaiztoko metal, altzairu eta ordenen zaratak uxatzen saiatuz, punpean, hatsanga iratzarri nintzen. Askatasuna nuen helburu.

Ospitaleko pasealekuko jargiatik minez konkorturik altxatu nintzenean, lau guardia zibilez inguraturik kausitu nuen nere burua. Doi-doia ulertzen nuen hizkuntzan mintzo zitzaizkidan:

– Amaia Ezpeldoi? Ven con nozotroh.

– No konprendo.

– Zigenoh po faboh, zi no...

Bi gizonek sorbaldatik bortizki lotu ninduten eta haiekin joateaz beste aterabiderik ez neukan. Loaren elurrezko erresumatik jalgitzean, Joana non ote zegoen galdetzen nindagoen:

– Behar orduan Joana... –hasperen etsituaz, kaki-zikinez jantzi orden zaintzaileen artean, utzi nuen Reina Sofia ospitaleko aixolbea.

Isilik nindabilan ametsak harrotu izua barnean, danbaka: nora ninderamaten? Zergatik ni? Nere arrestatzeak Uritzen istripuarekin zerrikusirik bazuena? Gizonak ere hitzez bekaitz bazebiltzan eta sentitzen nuen komunikazioa latza zatekeela.

Lursagar zaku malgoaren antzera, guardia zibilen autora aurdiki ninduten. Bezperako estomakoko ziztak jeiki eta iduritzen zitzaidan beste zafraldi baten menturan nintzela. Hortzak tinka-

tu nituen eta izpirituaren lasaigarri behialako paradisuko ateak itxuratu: amaren berriz gurutzatzeko esperantzak, arrazoin nuelako ustea bermarazi zidan. Kolpeak, irainak, mehatxuak, axolarik ez neukan bizpahiru oren lehenago Uritzen memoria xifritua loratzea lortu nuelako. Gizon armatuek egin zezakete bakarra, nere hiltzea edo preso sartzea zen. Zelda! Lehen kasuan, amodioaren balizko ahuspean nere dolua karreatuko zuen, eta bigarrenean, astero Mauleko notiziak bidaliko zizkidan zintzo-zintzo. Nahi izanez gero, hara, oso xinplea zen egoera.

Komarkako komisaldegira heldu ginen. Han, horma berdezko gela batetan hertsi ninduten. Goragalea sortzen zidan txoko hartako pixa urrinak. Ikaran nindagoen: une luzez nihaur egon nintzen mahai hutsari begira. Bapatean, borta zabaldu zen, eta guardia zibilak sartu ziren idazmakina zekartela. Mahaian plantatu orduko galderak bihikatu ziren.

– Diganoh quien te ha dao informazioneh?

– No konprendo.

– Tonta ehe! Sabemoh todo ya!

– No konprendo.

– Como ha lokalizao a Bill?

– No konprendo –errepikatzen nuen taigabe, Erriberan egunak gastatu ondoan, Castellano apurra nereganatua nuela bixtakoa izan arren.

Gizon batek Nafarroako telefono listina eskuratu zuen eta jo ninduen buruan, kexugorriturik:

– Te haremoh hablar hiha de puta!

– No konprendo –nion oraino ere, kuska bakoitza bederen ulertzen nuelarik.

Atorrak arrabiraturik gizonaren kideak ukamila kaskaka ziharduen: min nuen orotan. Orduan, neure baitan, Raimundo Lanasen, Txakoliren, Uxueko Potxolikaren, Zirilia Eskuderoren, Benito Eranen, Mendigatxaren, Zirilio Zabalegiren, Teofila Perezen, Angel Martinezen, Dolores Laurelen eta Julia Benediren ahotsak nahasi ziren, jota-eske (irabazi arte) salbamendu eskaintzaz. Kantatzear nindagoen joaldien menpean:

Al escudo de Navarra
Las cadenas le pusieron
No porque las soportaron
Sino porque las rompieron...

Montxo Goikoetxearen hitzak ziren hats-bila airatzen. Eta egia zen: kateak hausteko ziren eta hausteko zen zapalkuntzaren dupiña, hausteko Zuriñe erreginaren bakardadea. Orduan, ikusia ez nuen telefonoak jo zuen.

Handik fite, Tuterako parte zaharrean libre aurkitu nintzen.

Tuterako arratsalde apal beroan, Zuriñeri zor niokeen solt ibiltzea.

–23–

Gerla bukaera ilun iduripena gogoan, Gaiarre karrikaren izkinan aurkitu nintzen laster. Zazpiak aldeko Erriberako eguzkiaren meneko. Jason Gonzalez de Mendaviak prestatzen zidan apartamenduraino oinez abiatu nintzen, komisaldegitik harriturik solt eta sano ateraturik. Tutera zaharreko kale hertsietan barna, aire idorra usaintzen nuen, libertate eta arintasun perfumea zekarkidala. Ideietan baikor nintzen aspaldiko partez eta burutik zigi-zaga motelka Uritz gaixoaren begitartea ibiltzen zitzaidan, sustatzaile. Halatan, espero nuen zaraitzuarra etxean nere haiduru zegokeela, amaiera baten ahuspearen elkarrekin ohoratzeko.

Horren ordez, apartamendu fresko eta argigabean sartu nintzenean, Jason kausitu nuen. Eleant zen, zorionaren zigilua begietan zeramala.

– Milesker! Gertatu zaionaz oroitzen da orain Uritz. Abokatu batekin hitz egin dut eta gaurtik aurrera Justizia mailan borrokatuko gara.

– Hobe.

– Ez duzu pozik ematen –artekatu zuen gizonak–. Zer dela eta? Lan ederra egin duzue!

– Non da Joana?

– Iruñera beharra zeukala esan dit –erantsi zidan Jasonek eta sorbaldetarik tinkatuz–: Lortu duzu! Andreak eta biok eskertzen zaitugu! Ezinezkoa zen bestela!

– Inkesta luze eta nekosoa izan da.

– Bai, eta peligrosoa ere bai.

– Joana... –hasperen etsitua libratu nuen.

Tuterako komarkan nintzenez geroztik, Joanaren ausentziaz, izpiritua urratzen nabaritu nuen bigabostetan, eta orduan Zeldaren begitarte desiragarria hedatzen zitzaidan premia gorri gisa, bake-eremu antzera, ezinaren aurkako murraila bailitzan. Tiria bortitza nigan sutzen sentitu nuen, eta itseskatuz, zauria agerian, «Maulera noa» marmarikatu nukeen hortzartean. Jasonek ahurra altxatu zuen:

– Ez oraindik Amaia! Gaur arratsean Zentronikoko euskaldunen biltokian afaria antolatzen dute eta nik hara gomitatzen zaitut.

– Zentronikoko euskaldunak?

– Bai, beno, Zentronikotik Tuterako ikastolara doazen haurren burrasoen taldeaz ari natzaizu. Giro polita moldatzen dute, edozein festaren karietara. Korrikarako adibidez animalekoa montatzen dute.

– Okey!

– Erriberako maneran afalduko gara. Joteroak ere han dirateke.

– Jo ta ke, irabazi arte...

– Horixe bera! Bederatzietan jinen naiz zure bila. Anartean egizu lo. Eta esan nahi nizun hemendik aurrera pisu hau zurea datekeela. Tori giltzak!

Jasonek gakoak eskuan pausatu zizkidan. Ez nuen indar askirik ezezka zinpurtzeko. Utzi nuen bizitzaren uraren isuria zubipean xuxurlan. Zinez akitua nintzen eta Joanaren ez izateak hausten bezain errausten ninduen. Jasonek nere tristularen izaria neurtzen zuen, so zegokidan, ttattit eta mutu, begiko dirdira gordegaitz. Apartamenduko gakoekin jostatzen ari nintzen, kemenuts, medikuak eztiki agurtu ninduenean. Lainoki atea hertsi zuen, eta haren urratsak eskaileretan be-

hera lerratzen entzun nituen. Lotarako gutizia zainetarik ihes zebilkidan.

Zeldari telefonatzea deliberatu nuen. Egongelara abiatu nintzen, pasatzean telebista mekanikoki piztuz, isiltasunaren inarrosteko. Emeki-emeki mugaz bestaldera deitzeko zenbakiak marraztu nituen: han, lau joaldi zizkolatsu behatu ondoan, norbaitek urrutizkinaren besagia hartu zuen. Ixtant batez beldurrak katestatu ninduen: nork ote zidan erantzungo? Lotsa jabaldu zitzaidan botz ezagun eta eztia hauteman nuelarik:

– Zelda heben! No! Amaia! Bizi zirea orano?

– Bai prefosta! Galanki zurratürik izan nüzü bena ontsa! Eta Maulen?

– Ez gütüzü gaizki! Bestak joan dütüzü pix eta alkohol ürrinez hantürik, komertsantek ikurriñak bitrinetan ezarri ditizüe eta Ondarearen Etxea egünoroz zabalik düzü.

– Akort. Eta zü Zelda nola zira?

– Etxe handi hontan nihau nüzü bakotx.

– Egia?

– Zer uste düzü ala?

– Bihar horra nükezü.

Negar irentsiaren herotsak gatibatu zidan golkoa. Aitortzekoa niona Zeldari, Joanarekilan gastatu nituela hondar hiru asteak, amodio eta desamodiozko urmael nahasietan igerika? Maite nuela ere ezin niron erran. Erriberako urrezko argiak bereganatua ninduen, begiak eta bihotza barne. Hitz gehiagorik gabe, azalpen eta justifikazioneak oro gerorako utzi nituen. Telefonoa pausatu nuen tristuraren zamak leherturik.

Telebistaren aitzinean jarri nintzen bigarren kateak eskaintzen zuen «Desde el pais de los vascos» saioari begira. Zuberoa nekusan preseski pantailan, berde, lorios, baketsu, griñatsu, minbera, txülüla soinuz apaindurik, zerua astun bezain gris. Zuberoako ortze hedoiez estalia ederki ezkontzen zen Zeldaren soarekin. Herriminak edo morriñak zilatzen zidan gogoa, leizetzen izpiritua eta harpe hezetsuan galtzen ziren nere indarrak. Bizkitartean apartamenduko atetik Jason eta bere andrea hurbiltzen ikusi nituen, Zentronikora abia gintezen biak keinuka. Ez ginen debaldezko solasetan higatu eta telebista itzalirik karrikara atera ginen isilik.

Tuteratik Zentronikora hemezortzi kilometro bazen. Gau izartsuak alegrantzia hazten zidan eta laket nuen ortzaizean dirdiran zebiltzan mila argizpien kontatzea. Jasonek gidatzen zuen bitartean, ipuin zaharraren antzera agertzen zigun zein hunkigarria zen elurra Erriberan, bazter horail eta idorrak zuriz beztitzen zirela, txoriek hatz umilak elurraren gainean marrazten zituztela eta elurra hormatzen zelarik gauak magikoak bihurtzen zirela. Xoraturik behatzen nion Jasoni, gorputzean kanpoko bero haizetsua hotz bilakatzen zitzaidan artean. Zentronikoko biltxokora heltzean ohartu nintzen ikaraz dardaraka ari nintzela.

Afal-lekua xinplea zen: mahai luzeak eta jargi meharrak. Jasonekin sukaldera zuzenka joan nintzen. Xinaurrien pare han jendeak –gizonak eta emazteak– kozinatzen ari ziren, doi-doia ulertzen nuen hizkuntza batetan arrailerian, bata bestearen sustatzen eta sustengatzen, agur eta iepaka airoski. Izkina batean zutik zegoen Malon de Etxaide ardoz bete garrafoitik zetorren joriak bazuen zerbait ikustekorik menturaz ilunaren bihotza mila irri karkaraz harrotzearekin. Jasonek xi-

rripa amoltsua –hauxe jainkosa maitagarria!– baso batera bideratu zuen eta godaleta arradaturik luzatu zidan.

Emazteak tipula egosien bipiltzen ari ziren, haurrek baratxuriak erretzeko apailatzen zituztela, adinekoek amandak, esparragoak edo frantses-porruak adelatzen zituzten unean. Zenbaitek garrafoi hitzemanetik botiletaratzen zuten Erriberako ardoa. Jasonek esplikatzen zidan afariko janariak oro etxeko mozkinak zirela. Sukalde mugimendutsutik kanpora deitu ninduen azkenik. Biltxokoaren patioan aiheneko urteko xirminduek sua usaintzen zutela konturatu nintzen. Hatsartu nuen bake bila. Gizonak, adin guzietakoak, kerren eta makiltxoz suaren inguruan kostilak, txistorrak eta panzeta puskak erretzen zebiltzan. Haizeak karreatzen zuen pikotze urrinak beretu ninduen eta lekuaren eztitasunak ahanztea ekarri zidan. Sukaldeko ateko aulki batean jarri nintzen.

Haurretan ttikienak lasterka jostatzen ziren, adinekoen oharpenetaz kasurik egin gabe. Oihuka. Kantu-kantari. Besoekin jestu handiak eginez, neskato ile beltz zardaiak abesten zuen

«hegan, hegan, hegan. zikoina zeruan...» eta neskatoa airatzear zegoela iduritu zitzaidalarik, pentsatu nuen Nafarroa hegaldaka lurretik askatzear zegoela. Hunkidura kuttunak harrapatu ninduen, Uritzen memoriaren atitxatzeak sortu pozaren ondorio gisa. Jasonek halatan, inguruan urt ez nindadin, ardo uhargiz mukurutu godaleta eskaini zidan. Arratsapalean, ziruri-mingurika ortze zabalean zikoina zuri-beltzak miretsi nituen. Amoros nintzen. Axolarik gabe.

Sutearen aixolbetik gizonak txaloka etorri ziren, jan-gela airosaren hantzera. Mahaian kokatu ginen denak. Kostila puntuan erreak, txistor gurintsuak, panzeta epelak, oliba-olioan trantxitu tipula egosiak, esparrago mehe-arinak, Lodosako pikillos gorriak, amanda lehorrak, suak balakatu baratxuri xixtor malgoak gatzean xixtaturik, ahosabaiaren kilikari guziak, denetarik irensten genuen, ezpainak langile fin, Kaskanteko ardoa burrustan lagun. Hitzak urinarekin nahasten zitzaizkigun eta ‘geroa’ tendre bezain lehiagarri nabaritzen nuen orduan. Irri-gogoz nindagoen, ihaute-nagusiaren haiduru: noiz etorriko

ziren bada Zipoteroaren aroak, Kapirotearenak eta Zarramuskeroenak?

Ordu hartan munduaren iraultzeko enbeia neukan, militar eta sasi-militarren ahurretarik bahitzekoa, askatasun eta justizia sozial pixkat lortzearren. Haurren algarek neure kasko-zokoan Stingen «free free set them free» ahaidea mailukatzen zidaten, aborigeno ororen oldarra abesten, Bronxeko beltzen negro-spiritual lizunak ozenarazten, indioen wayak deiadarkatzen, Bereterretxen kantorea eta Mikel Laboaren Komunikazio-Inkomunikazio.

Buru barnea lur biribil bihurtzen ari zitzaidanean, katiluetarik eskuratzen nuen behin tipula egosi puska baten ondotik amanda lehorra, ogitartean panzeta eta kluk! godaleta huts. Banekien egoaren itzala baztertzen baldin banuen, ardoaren bidetik jarraituz bapatean ezer bezain guzi bilakatzen nintzela. Egoaren loaldiak elkartasuna iratzarrazten zuen. Fusion zelako ekintza kimikoen orduan, libertate osoko sentimendua hedatzen zen nigan. Eta libertatearekin batera zoriona pizten zitzaidan: ez nuen inoren beha-

rrik. Libertate uhargiaren emaile izateaz aski eskertzekoa nukeen Erribera.

Basoa nihauk bete nuen. Atabal magikoen taupadak ametsezko lagun, haur karkazailak, burrasoen erasiak eta hurrengo Nafarroa Oinezen aipamenak entzuten nituen:

– Inoiz baino gehiago...

– Ikastola berria eraik dezagun.

– Datorren astean Iparraldera goaz materiala saltzera! –erran zuen mahaiaren puntatik emazte lirain eta alai batek, basoa altxatuz eta hamazazpi mila urteko zoriona opatuz.

Beste batek ere basoa airarazi zuen segidan, alaitasunik handienean:

– Tuterako alkateari! Ikastola hitzaren ahozkatzera heldu delakoz azkenean! Bejondeiola!

– Biba hura –erantsi nuen oroituz Maulekoa oraino elearen eremuan traukatzen eta lazki behaztopatzen zela, nahiz haurretik euskaraduna izan.

Ohargarriak ziren Mauleko auzapezaren hitzak Euskaltzaindia jitean adibidez: «Honki-jin eüskaltzain agurgarriak! Erderaz jarraitüko düt, parka, eüskal mintzajearen mankatzeaz lotsa ni-

zalakoz. Eh bien donc, je me réjouis de vous recevoir...». Tuterakoak ikastolarenganako urratsa konpliturik zeukan, Maulekoak aldiz ez. Bortxa zerbaiten beha zeuden Zuberoako hiriburuko kontseilariak, berdintasuna aipatzean noizbait bulego munizipaleko bi kide honela mintzo entzunak izan baitziren:

– Si il a obligation, qu'est-ce que vous voulez...

– T'es obligé...

Goi mailako solasak ahoan ibiltzen ziren Mauleko hautetsiak eta haien analisia politiko finak beste basotara bat ardo merezi zuela jujatu nuen: onegin! Alegrantzia bermatzen zen muga ohiaz bi aldeetako haurrideen artean, ardoa isurtzen zela bizi-minaren itogarri, ezinaren erresuma ez zitakeela guretako iduritzen zitzaigun. Mozkorraren uhinen aurka, baratxuri xixtorra gatzean xixtaturik ezpainetaratu nuen: zena zela amaren etxea defendituko genuen, gatz, olio eta uretan blai. Historiak ez gintuen biziki laguntzen baina honen ildoak makurrarazten ahal genituen saldoa tiraka jarriz gero.

Zentronikoko mutil batek, Tuterako eta Argedasko bere adiskideak piztu zituen. Jakina zen bi herrien artean gaitzeko lehia zegoela eta debadioaren funtsaren erakusteko Argedaskoak txiste baten kondatzeari ekin zion:

– Behin batean, Tuterako bat joan zen Bardeetara moto dirdiratsuaren gainean eta han Argedasko artzain xahar bat gurutzatu zuen, ardi troparen zaintzen. Motoa burrunban errautsetan artzainaren parean geldiarazi zuen, urguluz irrifarretan eta gizagaizoa desafiatu zuen:

«Ardi bat emanen didazu, zenbat dituzun asmatzen baldin badut?».

«Noski baietz, txo!».

«Larehunta hirutan hogeita bost badituzu».

«Justo gizon! Har ezazu bat, nahi duzuna!».

– ...Tuterakoak bildu zuen bere asmaturia errazaren saria, eta motoaren gainera zihoala artzainak abilki eskatu zion:

«Barkatu, baina nik pentsatzen baldin badut zu nongoa zaren itzuliko didazu ardia?».

«Bai nekazari, bai!».

«Tuterakoa zara!».

«Nola susmatu duzu? Aztia zara ala?».

«Ardiaren ordez txakurra eramaten duzu».

Argedaskoa isildu zenean, ardo arinean sotildu izpirituak algarazko sumendi bilakatu ziren. Alde guzietarik alegrantzia bermatzen zen, eta nik ere neure partea deplauki eskapatzera utzi nuen. Maite nituen egoera bat finkatzen zuten ixtorio-mixtorio lainoak. Godaletak berriz arradatu zizkiguten eta mahaiaren puntan aspaldian gogazkan zegoen Raimundo laborari zohitua zutitu zen eta bere alaba gehienarekin ahots sakon minkorrez kantan hasi zen:

Iba a la mar y se baña
Eres como aquel canario
que va a la mar y se bañaaaa
Y con el pico remueve la arena
y no enturbia el agua
La arena y no enturbia el agua
Y eres como aquel canario

Gizon adindua, deiadar saminetan higatzen zen artean, berdetasuna, Argedasko bide zuzenaren ertzeetako zuhaitzak, Bardea iluminatuak, Zeldaren begi grisak eta Joanaren papondo leu-

nak itxuratu nituen. Jota, Erriberako blues zaharra zela ziruditan eta zintzurrean birlak hantzen nabaritu nituenean, Raimundo jarri zen eskuekin kaskoa inguratzen zuela: lurraldea itsaspe orlegi zelako nostalgiaz leherturik iduri zuen.

Nostalgia zen eta, denbora berean, mundu zapalduaren askatasun egarria. Bizarra arin zeukanak segitu zuen:

Si pasas por Valcaldera
Párate un poco a rezar
A los cientos de navarros
Llevados allí a matar...

Txaloak ugaritu ziren. Lekukoa botz batetik bestera pasatzen zen, etengabe, kantuak bizibidea segurtatzen bailuan:

Raimundo Lanas ta Etxaun
Xibero ta Nafarroa
Biei kantatzen diegu
Larragako joteroak...

Ahotsak larrutzear, soka bokalen hautsmugan, eman genuen hain ezaguna, hain gurea, hain ‘internazionalista’ zen Lakuntzak asmatu jota hau. Biltxoko bilduan nahasmendu larria nabaritzen zen, eta ardoak ardoari haugi, besteek bezala, godaletak barrandan husten nituen, lixeritzeko, baratxuri xixtor erreak gatzean ihauzkan ahoratzen nituela eta milikatuz irensten. Jason Gonzalez de Mendavia ondoratu zitzaidan:

– Bagoaz. Berriro ere eskerrik asko, Uritzentzat egin duzunarengatik. Etorri nahi duzunean: Erribera zeurea da.

Jargia hertsitik zutitzen saiatu nintzen baina ardo baporeen kulunka lasaigarriak zangotan bermatzea debekatu zidan. Medikuak lagundu ninduen eta eskerrak errepikatuz besarkada adiskidekorraz agurtu ninduen. Sentibera nintzen eta begiak busti zitzaizkidan. Jasonek Maria zelakoaren meneko utzi ninduen. Mariak arrunt azaldu zidan gau hondarreko egitaraua:

– Bakalaua jastaraziko dizugu! Goazen Bugi-Wugira!

– Arren –soilaz aberastu nuen Mariaren proposamena, jadanik zutik nintzela baliatuz.

Burzoroak eramaten ninduen, kantatzeko gogoak eta libre sentitzen nintzen. Mariak bere kolegak izendatu zituen eta jendeak oro beren haroan abandonatuz, kanpoko auto batean itzalpetu ginen Tuterako night-club hartara bideratzeko. Autoa mukuru betea zen eta Mertxe zeritzonaren belaunetan kuxkurturik nindabilen, gaizki, itsas azalean untzi trakets.

Mariak esplikatu zidan eran, bakalau musikaren erritmoa nazkagarria zen, lanzinantea, bihotzaren taupaden bihurdikatze latza, baina ahanzmenaren troxatzeko egokia. Gin-kas zenbait hurrupatuko genituela gehitu zuenean, nere adostasun osoa erdietsi zuen Maria sotilak. Ez nuen nik beste beharrik.

Gaua aspaldian izartsu zegoen eta sarri Iruñean gaindi Maulerateko autobusa hartuko nuen Tuterako Plaza Berrian.

–24–

Pausaturik, dutxaturik, gosaldurik eta beltzaturik Mauleko Europa ostatuko eguteran aurkitu nintzelarik, larunbat eguerdia omen zen hartan –alabaina Xiberoko Botzako mintzalariak ez zuena errana neskenegüna ginatekeela egün orotako?– ohartu nintzen denboraren neurmena osoki galdua neukala. Erriberako eremuen zabaltasunean higatzen zen orduen joanaren zehaztasuna, ilunaren eta argiaren arteko gudukak soilik finkatzen zidan. Ez nuen funtsean seinale gehiagoren beharrik. Halatan, etxean, agenda beltza hostokatzean konturatu nintzen San Ferminetara abiatuz geroztik bizpahiru aste pasatu zirela, Ühaitza Galerietako zubipean lerratu zen bezalaxe. Inoiz gelditu gabe.

Arnegira heldu bezain laster aroaren freskurak harritu ninduen eta aspaldiko partez, arratsaldea bero izan arren, hotza nabaritu nuen hezurretan kilikari. Tafallatik gora ikusten nituen Pirineo gainak gris hain gris, non argitasun primalaren ihes goiztiarraz antsiaz damutu nintzen.

Ibañetara hurbildu arau, Erriberaz dolutzeko astia ukan nuen. Han, lagunak, adiskideak, urratsen hatzak, Uritzen memoriaren oldarrak uzten nituen, zeren aurkitzeko hemen? Zeruaren gris gohazu honen? Nola iraunen nuen argi eskasez? Arnegiko plazan, auto-stop eginez, Garazira eramango ninduen traturraren sahetseko jargian kokatu nintzenean, gristasunarekin bakea sinaturik nuen ordea.

Garaziko herriko etxe aitzinean abandonatu ninduen traturrak, turista gorrailen erdian arrotz. Mintzamena trabatua neukan, aditzik ez zitzaidan ateratzen eta telegidatu panpiña baten pare oinez abiatu nintzen Garaziko Jai-Alaiaren bidegurutzeraino. Erhia altxatzen nuen auto bat iragaiten zenero, kemenuts eta lotsaz hanturik. Gristasuna onartua baldin banuen, geratzen zitzaidan bihotzaren barnean, Zeldaren parean banpez aurkitzeko halako beldurño zozoa. Ziruditan ardura, urrunetik aisago maitatzen zirela kideak, eta errealitateak ametsaren zurrunbiloa mila pusketan hauts zezakeela. Halarik ere kotxe zuria gelditu zitzaidalarik, ez nuen sartzeko limarrik dudatu.

Arratsapal usaintsua jastatzen nuen autoko leihotik, ertzetarik biribilketan jiten ziren belar idor edo soro epaitu berrien perfumeek bihotza uxkailtzen zidaten, kilometro bakoitzean herri berdearekilako lotura sendotuz. Erriberan hastapenean orlegitasunetik berezirik bezala sentitu nintzen eta, orain, Garazitik Lartzabalerateko norabidean kolore zatiak berbiltzen saiatu behar nuen. Gidaria bere ofizioaz mintzo zitzaidan, salmenta helburuak eta derrigorrezko errendamenduak aipatuz. Ez nion kasurik ematen, helburuzenbakituetaz axolarik ez nuen eta premiazkoa zitzaidan gauza bakarra justizia soziala zen. Oxkaxe tinitik agertu zitzaidalarik Zuberoaren zilarra, gizonaren hitzak hutsean urtu ziren.

Burdin-iturrietan edateko lehia piztu zen nigan eta egarri bitxi horrekin autotik jautsi nintzen Mauleko plaza arrosean. Gabezia guziak ezabatuak nituen, osotasun batean ulertzen nuen neure izate makurra. Gaztelurantz altxatu nuen burua, ikurriñaren presentzian ixtorio luzearen bukaeraren begiz segurtatzeko. Orduan loaren deiak harrotu ninduen, bizkar-zakua eskuan nuela etxera zaluki zuzendu nintzen. Gaua

aharrausika zetorren eta amor eman nuen, biluzi ezinik, ohean etzanik.

Inguma traketsek nahasi zidaten gogoa. Ostegunean Zentronikon nintzen, gin-kas hurrupatzen eta bakalau musikaren erritmoan dantzatzen, mundua bezain zaharrak ziren erritmoak neuretzen, egiaren errateko. Biharamuna autobusean gastatu nuen, izpiritua debalde eta gorputza arranpaz konkorturik. Iruñeko aldagunean, geltokian berean egon nintzen, Nafarkaria Egunkariako gehigarrian agertzen zen Katalina Etxamendi itoiztar biztanlearen aburuen irakurtzen:

«Ai, utziko baligute... Azkeneraino erresistituko dugula, hortaz ez izan dudarik. Lanak hasieran daude oraindik eta bizitzan gauza asko pasatzen dira. Nik bakean utz gaitzatela besterik ez dut nahi».

Joanaren estakurua zen Itoiz eta agian komisaldegian tinkaturik nintzen unean, aitzakia horrekin desagertzea hein batetan barkatzen niola errepikatzen nuen. Zaraitzuarraren ausentzia bezainbat kezkatzen ninduen lotarik, biharko Zeldaren presentziak. Basamortuak hedatzen zitzaizkidan buru-zokoan, izerdi perla tematsuen

oroitzapenak, ardo uhargien nostalgia eta eguneroko gristasunaren aurkako oldarrak. Hondarrean desir nuen norbaitek, Uritzentzat bezala, neure memoria harro zezan, eta orozbat norbait hura Zelda baizik ez zen izaten ahal.

Gogapenen ozka horretan nindagoen larunbat goiz hartan, eguzkia motelki laino astunekin jostatzen zebilenean, Europako terrazan Zeldaren haiduru. Bapatean behialako argitasuna piztu zen, Zelda Xiberoko Ikastolen ator koloretsua soinean hurbiltzen ikusi nuelarik jendez emokatu plazatik. Minutu urri hartan, Radio France Pays Basqueko soinu metalikoen ordez nahiagoko nuen Benito Lertxundiren gaueko ele isilen baladaren bat aditu, hiriko bozgaragailuek biderkaturik, bortu mazelaz mazela ozentsu. Aulkitik zutitu nintzen, bezperako durduzak ezeztaturik eta ausentziaren trukezko presentzia biziki estimatuz. Zelda parean neukala erran nion:

– Maitea –hitza eskapatu zitzaidan uholde galernazuaren maneran–, aspaldiko!

– Ez naüzü besarkatzen ere? –galdatu zidan Zeldak, aitorpenaz den-mendreneko harridurarik agertu gabe.

Isil bulta bat jarri zen gure bien erdian, bizpahiru asteko urruntasunaren izkinen leuntzeko gisan. Elea askatu zitzaidan:

– Heldu naiz luze ibiliz...

– Ütz itzazü kantoreak eta emadazü pott bat!

Zeldaren matela eztian ezpainak pausatu nituen eta gorputzean behera ikara laztana isuri zitzaidan. Zuriñe erregin dohakabeak edatera eman iraganaren saldak bezain on egin zidan Zeldaren aurpegiko larruaren hunkitzeak. Oroimena zainetan neukan: Ibañeta zolan autobusa gelditu zelarik eduki nuen agerrindeaz jabetu nintzen. Dolamenezko auhenak behatu nituen Orreagako kaperatik hegaldatzen, han, harrizko hilkutxaren inguruan mantalet eta kapeletez jantzi ehun emazte adindu zeudela Antso Azkarraren Tuteratik Orreagarateko azken bidaian negarrez. Ehortzetaren miresten ari nintzela, kolpetxoa nabaritu nuen sorbaldan, eztul bi eta ahots lakarra:

– Urrent ozu gore ixtoria! Zaureki nozu ahamendrikrat! Libertate dei ohek bigoteik altxatzian, ni nokezuz ohiuz, zaure bizi-nahian! Ohit

zite ohortzaz! Orai xoan bear zot erresuma bageko herrialdrat... Agur.

Joanaren antzera, misterioski urtu zen ezpazio magikoan Zuriñe lurraldeaz eta emazte ohoreaz biluzi erregina gaixoa. Bizkitartean Zelda airos, eder, arin eta elekari neukan bixtan. Hasperenka erran nuen:

– Zuriñe...

– Zuriñe? Eta Joana?

Xifriturik nintzen. Nondik jakin zuen Zeldak zaraitzuarra Nafarroa behere hartan gurutzatu nuela? Nik uste nuen geriza itsuak jartzen nituela ixtoria bakoitzaren artean, batak besteaz deus ikas ez zezan. Zirudienez, debaldetan. Galdera hutsetan galtzeko betarik gabe, lainoki eta jeloskeria arruntaren xenderetarik aldenduz, Zeldak segitu zuen:

– Bai, atzo goizan fatürrak fax bat ekarri dizü etxerat. Bi aste hotan üdürialat ontsa gozatü düzüe alkar! Oizü: irakur ezazü zihauk!

Fax paperezko gutun meharra eman zidan, eta hitzen kordela xehea mentalki argitu nuen hobendun sentitzenago nintzela:

«Laztana: pasa diren egunetan zorion frango jastatu dugu biek; Uritzen memoriaren iratzaraztea lortu dugu baiki. Ez nuen erreusitze hori ospatzen ahal zurekin behar bezala. Itoizen akanpada antolatu dute Eguzkiko eta Koordinakundeko kideek. Damu dut zinez. Horrela da bizitza... egin zazu gura duzuna! Estimatzen zaitut paketa: jin zaite ekainaren hastapenean Bardeetako Martxara, Zeldarekin. Han ikusiko gara!».

Idatzi eleen oihartzunak burrunbatzen zuen nigan; amultsutasuna hurrupatzen nuen eta odola zainetan burbuilaka nabari nezakeen. Ez nekien ateka gaitz horretarik nola atera. Fax mekanika sotilen madarikatzea baino ez nezakeen egin. Bizkitartean Zelda so zegokidan ihardespen arrazional baten haiduru. Justifikazioa mamitzekoa nuen laster, bestela ez nintzen datorren urteko Bardeetako Martxara maite ninduenaren konpainian abiatuko. Durduzatuz ahoa ireki nuen:

– Badakizü, Erriberan suertatü zeitan inkesta ez züzün aisa, eta nihau ez nündüzün deusetan aitzinatürenko. San Ferminetan atzaman düt

Joana Garalda, Itzaltzukoa, aspaldiko ene lagüna!

Begiak apaldu zituen. Jarraitu nuen Uritzen istripua aipatuz, nola Bardeetan gau osoa iragan nuen, Zuriñe ezagutu eta luze bezain nekos izan zela, landderosa ere bai, zafraldi bi bildu nituela Tuteran, behin ospitaleko atarian eta gero komisaldegian –begira zauri idorrak!– eta hondarrean heldu ginela istripua planteatu zuen Bill kaliforniar inbalditua rekin ‘zibilizatuki’, hau zen arma kakoil baten mehatxupean solastatzera. Bitxiki, Zeldaren aurrean burua garbitu beharrak, ideiak, denborak eta guneak ozkan jarrarazten zizkidan. Bapatean ulertu nuen ez nuela gehiago Zelda bera abandonatzeko gogorik, armaren erabiltzeak nazka hazten zidala eta lan finkoa kausitzekoa nukeen neskarekin ‘zoriontsu’ iharduteko. Ene uneko delibero eroaren berri eskaini nion:

– Zelda, ene libertateak ez dizü zure pairamena balio: serioski lanean plantatüko nüzü.

– Lanean edo xomajean berdin zitzazüt, eneki egoiten ziren ber –moztu zuen Zeldak neure xede ederren haria–. Aize hegoaren gisa

ebilten zira esküin eta ezker, maite naüzüla errepikatzen deitazüt hürrünetik sekülan erresponsable izan gabe!

Isiltasun taigabea hedatu zen gu bien artean. Behakoa plazara altxatu nuen: turistak bazihoatzin, beltzatzeko krema usaina denetan barreiatuz, aparkalekuetarik zabalduxea zen Maison du Patrimoineraino urriki. Zenbait gorrail ziren, besteak ilun eta azkenak oraino zuri-zuriak. Frantses zerratuak plomuzko zerrailuaz kateztazen zuen Mauleko arrabote alegera, mon pais tropikal ahaide bresiliarrak itsas haraindiko bahia beroetara izpirituz eramaten zituela. Bikoteak eskuzesku zebiltzan, ondarearen etxearen itzalean musu arinak elkarri emanez, haurrek fresbee ausartez plaza trabatzen zuten eta gida-liburuak erosirik udatiarrak karrika emokatuetan urtzen ziren. Inbazione hitzak kaskoa mailukatu zidan, bahiketa kulturalak gero eta triste sentitu nintzen. Zelda otoiztu nuen, naufrago kolektibo honen tormentetarik salba nindezan, amodioaren estirak leunduz.

– Zelda...

– Ertzo nüzü, parka, maite zütüt bai nik ere! –murmuratu zuen eta auzia arras ez latsatua izanagatik, gai-aldaketa ekarri nuen mahai izkinara, zerbitzariak bi porto haboro pausatzen zizkigun bitartean.

– Nola iragan dira Mauleko besta horik?

– Mozkor galanta hartürik pürü: egon nüzü bebi-jü txülülatzen gaü orotan; biharameneko belitzea zerbait züzün...

– Pentsatzen ahal düt bai.

– Badakizü –irria ezpainetara jiten zitzaion– Mauleko besten antolatze batzordeko nagusiaren gainen kontatzen dela ixtorioñi bat.

– Ahaa...

Porto godaleta eztiki balakatzen zuen Zeldak. Misterio bat bailitzan eleen arteko hutsunea markatuz hasi zen erraten:

– Ostatüz ostatü, zokoz-zoko ebili düzü sosez okitürik den gizon hura, konpainia onean, kontseilüko kideeki hots! eta gisala bost libera berri baizik ez ditizü enplegatü: kafe baten, berearen pakatzeko doia. Hogei zentima galdü ditizü musaren idekitzean!

– Biba hura! Biba Maule! –kantatzen nuen pastoral entxerretan bezala, algara aberatsaz beztitzen genuela hautetsi zenbaiten zekentasuna.

Karrikako bozgaragailuetarik Etxahun-Iruri mertzenario ohiaren abestia hautematen genuen:

jolies filles
qui frétillent
dans les bras de leurs chers amants
farandoles
qui s'envolent

– ...les fêtes de Molion, ponpon!

– Bagutza! –ahozkatu zidan Zeldak, arraileriak aski iraun bailuan.

Eguteratik zutitu ginen, aurpegi gogorrak, hertsiak, larderiatsuak zituzten jendeen erditik bidea zilatuz. Karrikan, besoa neskaren gerriondoan inguratzeko edo musu baten lepogibelean pausatzeko gutizia zapaldu nuen. Gizon-emazte izan bagina, keinu eztiak zilegituko zizkigun 'giz'arteak eta menturaz txalotuko ere, hainbes-

te kexu, gerla, sarraski, dibortzio jasaten baitzen, ederra zelako ikustea oraino bakarrek bazekitela elkarren maitatzen. Ez zen etxit gure kasua. Anartean, Zeldaren mututasun mistikoak amodioa xuxurlatzen zuen eta desiraren zizten amiñi bat jabaltzeko, Lamin famatuak saltzen zituen magasinaren paretik iragaitean, Zentronikoko gau zohardian ikasi jota kantatzen hasi nintzaion:

Iba a la mar y se baña
Eres como aquel canario
que va a la mar y se bañaaaa
Y con el pico remueve la arena
y no enturbia el agua
La arena y no enturbia el agua
Y eres como aquel canario

Zintzurra larrutuz bukatu nuenean, Zeldaren hatsa hurbil nabaritu nuen, aitormen orduetan nola:

– Ejer düzü: potta nahi düt!
– Heben?
– Lotsa zira ala?

– Joan gitean etxealat.

Musika xoxolek faltsuki airosten zuten hiriko kaleetan barna, kongeladoreetarik atera eta mikro-uhindun labeetan bero arazi taloak saltzen zituzten denden itzaletarik pasatuz, pegarrak eta makila ferratuak %20ko beherapenarekin proposatzen zizkiguten saltokiei uko eginez, ikurriña neguan mutzutzen eta udan amidonaturik saldei erakargarri moduan erabiltzen zutenen ataletarik ihes, bi hilabetez «euzkaras gira» papertxoak txilintxautzen zituzten bitrinak madarikatuz, Aveyroneko esnearekin osotu herriko ardi-gazna urrintsuak eskaintzen zituztenak deabru izendatuz, Taiwanen josi Mauleko egiazko espartinak birindika aurdikitzeko gogoa menderatuz, bidaia hondar mugetaraino eramaten genuen.

Mauleko kantonamenduko kontseilari orokorraren animaleko autoaren buhakoak Bidegain lantegi ohiaren hormen kontra zapalastatu gintuen: politikariek ez gintuzten inoiz hatsaren hartzera utziko, batez ere ‘euskal’ larruaren pean eskuindar amorratuaren haragia agertzen zutenek. Trinkili-trankala, Peko Arrüaren 76 zen-

bakian neukan bulegora iritsi ginen. Sano eta salbo.

Etxeko atea ostiko batez klaskarazi nuen, Leninen potreta dardaraziz. Hark ere inarrosaldi onaren premia zeukala erratera nindoalarik, Zeldaren ezpainak nereetan lerrakari sentitu nituen. Ez genuela elkarretarik berezi behar izan zen ukan nuen azken pentsamendua. Erribera zabaldu zitzaidan gogoaren limes zelakoa apurtuz. Bardeetako usain idorrak harrotu ninduen, ibiltaria nintzen, deuseren jabe, etxerik gabe, aditza kementsu eta hitza poeta kaxkarren ezinaitortuaren oihartzun egile. Dena konpli, ahozka, izkriba zitekeen, hitz egokien laguntzarekin perpausen antolatzeko kuraia kausitzen baldin bazen. Eta bizitzeko nahikunde bortitza, hor zegoen, gure baitan lo, memoria hilaren antzera.

Uritzen amnesia sendatzeko gai nintzenez gero, nereaz arduratzeko ordua etorria zela iduritu zitzaidan. Erhi punta trebeek norabidea eta betekizuna seinalatzen zidaten. Gau oroz maitale berdinarekin oheratzeko adinean nintzen engoitik.

Erribera neukan bihotzean, argi eta berme eske. Burumuinetan kokatu basamortuak salbatuko ninduen jagoitik. Distantzia zenbakitu arrazionalak estado zapaltzaileek ordaindu geografoek kalkulatzen zituzten. Hurbiltasunaren mamia, urruntasunean zegoen.

Zeldaren besoartean nindagoen.

... Amorezko pena bañooo,
Hegan, hegan, hegan, zikoina zeruan.